



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VI. legegintzaldia

Iruña, 2004ko abenduaren 17a

108. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Txosten berezia: “Haurrentzako identitate bat (Nafarroako 0tik 3 urtera bitarteko haurren hezkuntza)”,  
Nafarroako Arartekoaren Bulegoak egina ([2. or.](#)).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Txosten berezia: “Haurrentzako identitate bat (Nafarroako 0tik 3 urtera bitarteko haurren hezkuntza)”, Nafarroako Arartekoaren Bulegoak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2004ko ekainaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. “Haurrentzako identitate bat (Nafarroako 0tik 3 urtera bitarteko haurren hezkuntza)” txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren Bulegoak egina, jaso izanaren berri ematea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2004ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**Txosten berezia:**  
**“Haurrentzako identitate bat (Nafarroako 0tik 3 urtera bitarteko haurren hezkuntza)”**

**AURKIBIDEA**

1. Sarrera. Haurrentzako identitate bat.
2. 0tik 3 urtera bitarteko etapa Konstituzioaren aurreko araudian.
3. Konstituzioa eta ondorengo garapena; LOGSEri eta LOCEri buruzko aipamena.
4. 0tik 3 urtera bitarteko haurren beharrak eta hezkuntza ereduak.
5. Gizartea 0tik 3 urtera bitarteko haurren hezkuntza premien aurrean:
  - Nafarroako Arartekoari aurkeztu zaizkion kexa eta kontsulten azterketa.
  - Gurasoen asmoak eta eskaerak 0tik 3 urtera bitarteko haurren hezkuntzaren inguruan.
  - 0tik 3 urtera bitarteko haurren hezkuntzarako baliabideak eta haien ezaugarriak.

6. 0tik 3 urtera bitarteko zikloari hezkuntza izaera ematearen komenigarritasunari buruzko azterketa.

7. Ondorioak

**1. SARRERA**  
**HAURRENTZAKO IDENTITATE BAT**

Hiru urte iragan aurretik ere, Nafarroako Parlamentuan gehiengoa duten bi alderdi politikoek, familien eskariei erantzunez, 0tik 3 urtera bitarteko haurrentzako toki gehiago sortzeko erabakitako printzipioak gizartearen dinamikak berak gainditu dituela dirudi; agerian geratu da, sortutako tokien kopurua eta behar direnena alderatuta, premiak handiagoak direla eta erabaki horiek aurreikusita-ko planifikazioa geldiarazi beharra.

Testuinguru horri “tentsio soziala” izeneko kontzeptua ezartzeko arrazoiak badira, dauden baliabideen eta familiek ezinbestekotzat jotzen dituzten arteko aldea, hau da, herritarren gogobetetze ezaren maila, berretsi dutelako azken urteotan hainbat datuk: tokien kopurua eta eskolatzeta, beharrak eta edukiera. Halatan, azken bi urteotan erabaki haren garrantziak balorazioa galdu du, bultzada geldiarazi delako, nahiz eta baliabide gehiago sortzeari buruzko erabaki hura egokia izan, bai eta finantzazio sistema partekatuari buruzkoa ere, arlo honetako beharrak arretaz aztertu dituztenen iritziz, oro har eta zuzenketa txiki batzuk kenduta, aproposa dela pentsatzen baitute.

Pentsa genezake erabakiaren garrantziak berak, herritarrei arreta hobea emateko prozesua abiarazi zen aldetik, ez ote zuen berarekin ekartzan inguruabar eta muga multzo bat, orain azaleratzen hasia dena indar berriz. Zabaldu den ideia da hasierako bultzada motibazio politikoz jantzirik jaio zela eta, horiek motibazio zentzukoak izanik ere eragotzi egin zutela, agian, haien aplikazioa hain “presakotzat” ez jotzea, epe luzeagora ikus-

tea “zerbitzu” honen gaineko eskaeren bilakaera, eta toki administrazioen inplikazio irmoagoa, erabaki hark zuzenean ukitzen baitzituen etorkizunari begira, zuzeneko arduradun diren aldetik horien parte direla, mugaturik eta abiarazteko lanetan buru izan gabe bada ere.

Foru administrazioak kautelaz jokatu du beraz Otik 3 urtera bitarteko hezkuntzaren arloan papera nagusia bere gain hartzerakoan, eta horrek udalen erantzukizuna areagotu du herritarren aurrean; egoera hori ez da bidezkoa, hezkuntza zerbitzu horretan parte hartzeak ahalegin ekonomiko handia eskatzen dielako edo, bestela, beste administrazio batzuen menpe gelditzea, kasu honetan foru administrazioaren menpe, konpromiso horiei aurre egin ahal izateko. Alde batean mendekotasun ekonomikoa, horrenbestez, edo ekonomikoa eta politikoa, gertaerak ikusirik, eta bestean, herritarrak, sistemaren finantzazioan parte hartzeko prest, baina prozesua nork gidatu behar duen edo finantzazioari zeinek aurre egin behar dion jakin beharrik ez dutenak, eta bai ordea eskaintza behar adinakoa, kopurutan behintzat, nahi dutela.

2001eko erabakiaren kontzepzio horren eraginez ez zitzaion behar besteko garrantzirik eman garatu beharreko sistemaren funtsari: hezkuntza izaera.

Haren akatsak barne -arestian aipatuak, hain zuzen ere, argi antzeman ahal izateko aurrerago “tentsio sozialetik” beretik eta familien eskaeren presa logikotik haratago doazen zenbait alderdi-, erabaki hark abian jarri zuen Otik 3 urtera bitarteko haurren hezkuntza beharrei erantzuteko sistema bat.

Espanian izan diren gobernuek hezkuntza nahiari eta hezkuntzarako eskubideaz baliatzeari egin dizkioten lege ekarpenen inguruan txosten berezi honetan azaltzen den laburpen historiko trinkotua gai honen garrantziaren erakusgarri da berez. Eta, aldaketen tartetik suma daitekeen adostasunean edo desadostasunean oinarriturik, begi bistakoa dirudi beharrezkoa dela foru arau berriak sortzerakoan Parlamentuaren erabaki haren oinarri mugatuaren euskarri izan zen eredu gaudituko dituzten ezaugarriez janzteia eta kontuan hartzea, orduan bai, zerbitzu berrien erabilgarritasuna eta horiek izan beharreko hezkuntza helburuak hurbilaraziko dituzten alderdiak.

Gure herrialdeko arauen historia hurbilaren sekuentziak -konplexua eta aldi berean muntakoa- haurtzaroko hezkuntzari -haren oinarri juridikoari- ageriko garrantzia ematen dio, behar materialaren gainetik eskatzen baita eskaera eta hezkuntza baldintza funtsezkoenak batera daitezen, sektorearen

arautzea -aurreikusitakoa eta premiazkoa- ekarriko duen epe motz edo ertaineko edozein ekimenek aintzat har dezan etorkizuna osotuago izateko aukera, pertsonaren haurtzaroko garapenari dagokionez, eta horren zerbitzuan jarritako ahalegin profesional eta ekonomikoez adin txikikoek eta haien familiek lortuko duten etekina handiagoa izatea, alderdi bakoitzak merezi duen garrantziarekin.

XXI. mendearen hastapenetan, haurrei bere identitatea emateko helburua, ez besterik, izan daiteke haur hezkuntzaren arloan arauen ekintzaren ardatza; eta helburuaren ezaugarriak ikusirik, eraginkortasun faltagatik bazter utzi beharko lirake beste bide batzuk, administrazioen eta familien ahalegina eskatu eta Otik 3 urtera bitarteko neska-mutikoak “biltzeko tokien parkea” handitu baizik eginen ez dutena, kalitatezko eskaintza -ez eta kantitatezkoa ere, ziur aski-, foru administrazioak koordinatua, osatu gabe. Datuek frogatzen dute esandakoa.

Haurtzaroko hezkuntza alderdiei erantzuna emateko beharrezkoa da administrazioek ahalegin politikoa egitea hezkuntza helburuak txertatzeko administrazio publikoen erantzukizun izanen diren interes orokorren esparruan. Hezkuntzarako esku-bidearen printzipioak, haurtzarokoaren tarte horretan borondatezkoa izan arren, lehentasuna izan beharko luke beste edozein argudio ekonomiko edo unean unekoren gainetik.

Nafarroako Otik 3 urtera bitarteko haurrendako ereduak aldeztu aurretik dagoen errealitatean txertatzeko ahalegina ekarri beharko du, baina norabidea, zalantzarik gabe, laguntzaren hobekuntza orokorra, dauden zentroak egokitzea eta zentro berriak sortzea, funtsezko oinarri batekin, alegia, haurrak, gizakia eta subjektua den aldetik, hezkuntzarako eskubidea duela, hezkuntza administrazioaren etengabeko begiradapean.

Otik 3 urtera bitarteko haurrentzako zentroak paratzeko 2001ean hartu ziren erabakiak abiapuntu izan ziren gure foru erkidegoarentzat, eta osotara justifikatu eta gauzatuko lirake garapen betean den eredu antolatuz gero, haurrei ematen zaien laguntza zuzenbidetara lotuagoa, ikuspuntu ekonomikorik orekatuagoa eta gurasoei lana eta familia uztartzeko behar duten sostengua transmitzeko gai izan dadin, sistemari kalitatea eskatzeko erantzukizuna gurasoengan utziko duen esparru baten barruan.

Otik 3 urtera bitarteko hezkuntzak aldaketa handia izan du azken bi hamarkadetan, bai iritzi sozialari bai arau garapenari dagokionez; nabarmen egin du aurrera hezkuntzaren inguruko esku-

bide sistema bat -haurren eskubide orokorrak, ekiteko oinarri funtsezko gisa- taxutzeko zereginen.

Lortutako aurrerapenek, hemendik gutxira beharbada berretsiko direnek, gobernu eskudunen ekintzaren norabidea ezarriko dute, arau autonomiatik abiatuta baina dagoeneko finkatua den doktrina nagusiaren ikuspegitik. Gizarte batek lortzen dituen aurrerapenetatik abiatuz planifikatzea ez da beti erraza, baina arauak sortzeko ardura duenarentzat erronka adore emalea da.

Gehixotan transmititzen den irudia da emakumea lanaren merkatuan sartu izana dela seme-alaben hezkuntzan gertatzen diren gorabehera batzuen jatorria, familiaren bizitzaren testuinguruan prestakuntza eta betebeharren banaketa behar bezalakoak ez izateagatik; baieztapen horrek badu agian oinarria datu zientifikoetan, baina guztiz atzerakoia da arrazoi gisa erabiltzen denean zenbait egoeraren aurrean. Izan ere, Otik 3 urtera bitarteko haurrentzako hezkuntzaren eskaera, beste asko bezala, bizitza familiarraren kalitatea handiagoa -ez dirusarrera gehitzea soilik- eta seme-alaben hezkuntza hobea lortzeko nahari zor zaio.

Ahaztu gabe XXI. mendean bizitza familiarra denbora libre gehiagoren beharrak eta lan bikoitzaren garrantziak -bi sexuen artean banatua, hobekuntzarako asmo partikularrak lortzeko, behar ekonomikoei nahiz asmo profesionalei gehiegi erantzuten ez dien lan merkatu ezegonkor, aldakor eta globalizatuak sortzen dituen defiziten aurrean- sortutako presioaren eraginpean dagoela, egia da halaber herritar guztiek bere eskubide teoriko guztiez baliatu nahi izatea hobekuntza sozialak -eskubideak barne dituztenak- edo eskubideak -zeinez baliatzeak hobekuntza sozialak dakartzan- garatzearen aldeko eragilea, apustu soziala dela.

Ikuspegi horretatik ikusi behar da Nafarroako Otik 3 urtera bitarteko haurren hezkuntzaren inguruko gai guztiak une honetan albiste bihurtu izana.

Gizartearen oihartzunak eta kexek toki falta seinalatzen badute ere, indarra hartzen ari dira, aldi berean, beste hainbat alderdi: haurren hezkuntzarako eskubidea beharrezkoa izatea eskatzea, ziklo horretako langileen lan baldintza duinak, beste erkidego batean eskandalua eragin dutenak; haurrentzako eskola publiko eta doakoa izateko eskubidea nahi orokor gisa; aniztasunean oinarritutako hezkuntza eta gizarte ereduak garatzea; zentroak euskarari dagokionez dagoen errealitate egokitzea; zentro berrien abiapuntua kalitatea izateko helburua; modulua/haur ratio ekonomikoen hobekuntza; zorrotz jokatzea zentro

pribatuen baimenerako eta mantentzeko erantzukizun publikoari dagokionez; familien parte-hartze demokratikoa, eskubide eta betebeharrak gisa, geroan eta gehiago eskatzen dena eta eskatu beharrezkoa; toki enteei haurrentzako eskolak abian jartzen, finantzatzen eta mantentzen izan beharrezko parte-hartzearen azterketa; familien ekarpen ekonomikoaren arloan sistema bidezkoagoa bilatzea, errentaren arabera kontrako edo aldeko bereizkeriak ezartzen ez duena; eta, azkenik, foru administrazioak bultzatuta, haurren eskubideen alde eta haurrak, baldintza berdinetan, hezkuntza prozesu osoan sartzearen alde Espainiako arau tradizioan baliagarria den guztia indarberritzearen garrantzia.

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa: María Jesús Aranda Lasheras

## **2. Otik 3 URTERA BITARTEKO ETAPA KONS-TITUZIOAREN AURREKO ARAUETAN**

Arlo baten arautzea legegilearen borondatearen adierazpena izateaz gain araugintzako prozesu historiko baten emaitza da. Horregeatik, egungo erregulazioaren arau aurrekari azterketari esker edukiaren irispenaren eta esanahiaren ikuspegi osatuagoa eta zabalagoa izan dezakegu.

1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioaren aurreko legeak testuinguru sozial jakin baten ondorio dira, une hartan uste baitzen "haurtzaindegia ez dela behar-beharrezkoa bi eta hiru urteko haurrentzat, familia normal bateko kide baldin bada, zeren adin horretan ama baita haurraren prestakuntzaren eragile nagusia -ez bakarra-; beharrezkoa da, ordea, amak edo amaren ordekoek haurraz arduratzerik ez dutenean" (1973ko uztailearen 27ko Ministerioaren Agindua).

Aurreko testutik ondorioztatzen da emakumeak pixkanaka lan munduan sartzen joateak eta garai hartan nagusi zen familiaren ideiak ekarri zutela, neurri handi batean, derrigorrezko oinarrizko hezkuntzaren aurreko etaparen arautzeari helden hastea gure ordenamenduan, baina ez haurren etapa horretako hezkuntza premiei erantzuteko xede berriazkoaz, baizik eta emakumezko langileen seme-alabei arreta emateko.

Horrenbestez, derrigorrezko oinarrizko hezkuntzaren aurreko etapa, bi urtetik sei urtera bitartekoa, berezko izaerarik izan gabe agerrarazi zen legeetan. Ondorengo hezkuntza zikloa prestatzeko aldia zen, "amaren lan baldintzatua dela-eta sei urtetik beherako haurrentzako arreta eta zaintza zentzuduna beharrezkoa denerako", Lehen hezkuntzari buruzko 1945eko Legeak, ondotik aipatuko dugunak, hitzez hitz adierazten duenez.

Hortaz, saiatuko gara Konstituzioaren aurreko arauetan “zerotik hiru urtera bitarteko etapa” izenekoaren ezaugarriak zehazten, ondoko arau hauek jasotzen dutena laburki azalduz:

#### LEHEN HEZKUNTZARI BURUZKO 1945eko UZTAILAREN 17ko LEGEA

Lege honen 18. artikulua eskolako mailakatzeari hasiera ematen dion aldi bat aurreikusten du, bi adin-tarte bereizirik: bi urtetik lau urtera eta lau urtetik sei urtera. “Eskolaurreko Institutuzioak” izenekoetara bi adin-tarte horietan zeuden neska-mutikoak joan zitezkeen: “Ama eskola” izenekoetara bi urtetik lau urtera bitartekoak eta “Ume eskola” izenekoetara, berriz, lau urtetik sei urtera bitartekoak.

Botere publikoak ez zeuden beharturik ama eskolak eta ume eskolak ezartzera. Xede nagusia emakumezko langileen seme-alabei arreta ematea zenez, emakumeak kontratatzen zituzten industria edo nekazaritza zentroak beharturik zeuden.

Ildo horretan, legearen aipatutako 18. artikulua onartzen du “tokian tokiko aukerak eta ahalmen ekonomikoak” ezarriko dute kasu bakoitzean botere publikoen jardunaren esparrua; hurrengo artikulua zehazten du “ama eskolak eta ume eskolak behar adinako matrikula izan dezaketen populazio guzietan sortuko dira”. Halere, lehen esan bezala, “horrelako behar beste eskola sortzea derrigorrezkoa izanen da industria edo nekazaritza zentroetan, amaren lan baldintzatuak sei urtetik beherako haurrentzako arreta eta zaintza zentzuzkoa eskatzen duenean.”

Legeak ez du zehazten zaintza eta arreta eginkizun horiek betetzeko eskatzen den titulazioa. Zehaztu duen gauza bakarra da “irakasleak emakumezkoak izanen direla” (19.1 art.), zentro horietako jardura ama langilea ordezkatzeko betetzen baita.

Ez dira zehazten, halaber, zein diren zaintzarako zentro horiek bete beharreko baldintzak, eta ez legean ez hura garatzeko arauetan ez dira ezartzen enpresa entitateek sortutako tokiek bete behar dituzten gutxienekoak. Legean horri buruz dagoen xedapen bakarrak aipatzen du alderdi hau, lehen azaldukoaren harian: “(ama eta ume eskolen) instalazioak, diziplina eta jarduna etxeko bizimoduaren isla izanen dira” (19.1 art.).

#### HEZKUNTZARI ETA HEZKUNTZA ERREFORMAREN FINANTZAZIOARI BURUZKO ABUZTUAREN 4ko 14/1970 LEGE OROKORRA

14/1970 Legea, asmo handiko planteamendu batekin, hezkuntza sistemaren erreforma integralari ekiteko egin zen.

Gure ordenamenduan aurrenekoz, hezkuntza prozesua bere osotasunean hartzen da, zenbait mailaren bidez garatzen den unitate gisa, maila bakoitzak bere izaera duela eta guztiak elkar loturik.

Funtsezko oinarri horiek legearen artikuluetan bertan jasotzen dira, xedapen orokorrei buruzko 9. artikuluan hauxe ezartzen baitu: “Hezkuntza sistematik ziurtatu egiten du hezkuntza prozesuaren batasuna (...) maila desberdinak elkar loturik egoteko irizpideak zuzenduko du (...) maila bakoitzeko edukia eta hezkuntza metodoak ikasleen bilakaera psikobiologikoaren arabera izanen dira”. Eskolaurreko hezkuntzak lehengo aldiz hartzen du maila horretako baten izaera, lehen mailarena alegia.

13. artikulua lehen hezkuntza maila horren edukia garatzen du, eta aldaketa handiak sartu aurreko arautzearen aldean, etaparen legezko izaera nabarmen bestelakotzen dutenak:

- Eskolaurreko hezkuntzaren definizioa da hezkuntza etapa bat dela, haurraren nortasuna harmoniaz garatzeko helburua duena.
- Eskolaurreko hezkuntza borondatezkoa da.
- Doakoa izanen da ematen duten estatuaren ikastetxeetan eta doakoa izan ahalko da estatuaren ez direnetan ere, borondatez ituntzea eskatzen badute.
- Eskolaurreko hezkuntza bi urtetik bost urtera bitartekoa da eta bi etapatan dago banaturik: bi eta hiru urteko haurrentzat haurtzaindegia eta lau eta bost urekoentzat ume eskola.

Legearen planteamendu berrizale eta aurreratu, ordea, zapuztu egin zen praktikan, testuan aurreikusitakoei ez zitzaielako erregelamenduzko garapenik eman. Artikuluetan zehar eta itxura hartzen sumatzen den araubide juridiko berriaren funtsezko alderdi batzuetan etengabeak dira legeak aurrerago izanen duen garapenaz egiten diren aipamenak; baina garapena ez zen behar adina izan eta, batzuetan, legearen arimari kontrajarri zitzaion.

Legeak etapa hau ezartzeko beharra haurraren nortasunaren garapen harmoniatsuan oinarritzen badu ere, 1973ko uztailaren 27ko Ministerioaren Aginduan, azalpen honen hasieran aipatu eta,

legea garatzearen, eskolaurreko ikastetxeen ildo pedagogiko nagusiak zehazteko zeregina zuen hartan, hauxe adierazten zen irmoki:

“Hautzaindegia ez dela behar-beharrezkoa bi eta hiru urteko haurrarentzat, familia normal bateko kide baldin bada, zeren adin horretan ama baita haurraren prestakuntzaren eragile nagusia -ez bakarra-; beharrezkoa da, ordea, amak edo amaren ordezkoez haurraz arduratzerik ez dutenean” (...) lau urtetik aurrera, harreman sozialetarako joera hain da agerikoa non haurraren garapen komunitarioa sistematikoki eta pixkanaka egin beharrak arrazoitzen duen eskolaurreko ikastetxea.

Lehen esan bezala, legeak, horrez gain, “legea garatuko duten xedapenen” aipamena egiten du, bereziki gai hauetan: eskolaurreko ikastetxeen irakaskuntza araubidea, gobernu eta administrazio organoetako kideak eta ahalmenak (60.3 art.), irakasleek bete beharrekoak (107. art.), unibertsitateko diplomatuak izatea gutxienezko baldintza gisa, halere (102. art.).

Aurreko arauetan bezala, legeak agintzen du emakumezko langileak hartzen dituzten entitateak eta enpresak beharturik daudela euren langileen seme-alabentzako eskolaurreko ikastetxeak sortzen eta mantentzen laguntzera (98. art.); aurrenekoz, halere, estatuarenak ez diren ikastetxeak ireki eta jarduteko alde zuzeneko aurretiko baimena ezartzen da (94. art.), eman edo ezeztatu ahalko dena eskatu beharreko baldintza edo betebeharrak betetzen badira edo ez.

Azkenik, komeni da ohartaraztea orain arte egin dugun arauen azterketan eta 14/1970 Legearen asmoa aurreratuagoa bazen ere eta haren xedea ikasleek adin tarte desberdinetan dituzten berezitasun psikopedagogikoen ikuspuntutik hezkuntza sistemaren erreforma integralari ekitea izan arren, behin ere ez direla aipatu bi urtetik beherako haurren hezkuntzaren arloan izan ditzaketen behar. Adierazgarria da 14/1970 Legeak ere ez duela hitz bat bera ere esaten bi urtetik beherako haurren inguruan.

### **3. KONSTITUZIOA ETA ONDORENGO ARAU GARAPENA**

1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioak, egitura juridiko-politiko berri bat itxuratzen duen oinarritzko arau den aldetik, eta herritarren oinarritzko eskubideen eta askatasun publikoen alderdi dogmatikoaren arautzailea izanik, eragin erabakigarria du arlo honen gai funtsezkoetan.

I. tituluko II. kapituluko lehen atalean “Oinarritzko eskubideak eta askatasun publikoak” izenekoan

arautzen du Konstituzioak hezkuntzarako eskubidea, 27. artikuluan zehazkiago. Arau horrek, “guztiek dute hezkuntzarako eskubidea. Irakaskuntza-askatasuna aitortzen da” adierazi ondoren, zehazten du “Giza nortasuna oso-osorik garatzea dela hezkuntzaren helburua, betiere bizikidetasunaren printzipio demokratikoak, eta oinarritzko eskubideak eta askatasunak errespetatuz.”

27. artikuluko 5. idatz-zatiaren bitartez botere publikoen esku uzten du bermatzea gizabanako guztien hezkuntza-eskubidea, hezkuntzari buruzko programazio orokorraren bidez, sektore interesdun guztien parte-hartze eragingarriarekin eta ikastetxeak sortuz; nolana ere, hurrengo idatz-zatian pertsona fisiko eta juridiko guztiei aitortzen zaie ikastetxeak sortzeko askatasuna, konstituzio-printzipioei dagokien begirunearen barruan. Konstituzioak, horrez gain, oinarritzko hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa dela ezartzen du.

27. artikulua, 9.2 artikuluko klausula eta 14. artikuluan xedatutakoa –I. tituluko II. kapituluan aitortutako eskubide guztietan islatu eta horiek ulertzeko erreferentzia puntua dena– elkar lotuz gero zehaztu daiteke zein den Konstituzioaren agindua, alegia Konstituzioak botere publikoen esku uzten duela behar diren baldintzak sustatzea pertsona guztiek bermaturik izan dezaten, berdintasunez, hezkuntzarako eskubidea, eskubide horietaz osotara baliatzea galarazi edo eragozten duten traba guztiak kenduz.

Hezkuntzarako eskubidea 27. artikuluan (I. tit., II. kap., 1. atala) aurreikusteak Konstituzioaren beraren 53. artikulua nagusiki ezartzen duen babes gorena edo sendotua ematen dio, eta funtsezko edukiaren garapena lege organikoaren mailako arau bati lotu beharra (Konstituzioaren 81. art.).

Bestalde, Konstituzioak Estatuak autonomia erkidegoen arteko eskumenen lurralde banaketaren ezaugarriak azaltzen dituelarik, 149.1.30 artikuluan ezartzen du estatuak eskumena duela “titulu akademikoak eta lanbide-tituluak eskuratu, luzatu eta homologatzeko baldintzak arautzeko, eta Konstituzioaren 27. artikulua garatzeko oinarritzko arauak emateko, botere publikoek alor horretan dituzten betebeharrak betetzen direla bermatzeko”. Era berean, arau horren 1. idatz-zatiko 1. puntuak estatuari esleitzen dio Konstituzio-eskubideak egikaritzean eta konstituzio-eginbeharrak betetzean, espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarritzko baldintzak arautzea, hau da, hezkuntzarako eskubidearen funtsezko edukiaren aurrean espainiar guztien berdintasuna bermatuko duten oinarritzko baldintzak.

Azkenik, Konstituzioari buruzko aipamena ezin da amaitu esan gabe Konstituzioaren I. tituluko III. kapituluaren jatorriaren politikaren sozial eta ekonomikoaren arau gidarien esparruan, 39. artikulua botere publikoaren esku uzten duela familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa ziurtatzea, eta arauaren azken idatz-zatian adierazi umeei nazioarteko itunetan ezarritako babesa izango dutela, itunok haien eskubideak zaintzen dituzten neurrian.

Konstituzioaren arautzeari, haren norainokoari eta Oitiko 3. urterako bitarteko etaparen hezkuntza izararen oinarri konstituzionalari buruz aurrerago arituko gara zabalago, ziklo horren hezkuntza alderdiaren komenigarritasuna aztertzen dugunetan txosten berezi honen kapituluaren.

#### KONSTITUZIOA GARATZEKO ARAUAK. LOGSE ETA LOCEREN AIPAMENAK

Ikastetxeei buruzko ekainaren 19ko 5/1980 Lege Organikoak indarraldi motza izan zuen, Konstituzio Auzitegiaren aurrean aurkatua izan ondoren etenik geratu ondotik hezkuntzarako eskubideari buruzko 1985eko lege organikoak derogatu baitzuen; 1985eko lege haren asmoa zen, zioen azalpenaren adierazten denez, "5/1980 Lege Organikoak jasotako arautzea, partziala eta Konstituzioaren arimari ez oso leiala" ordeztzea. Hezkuntzarako eskubidea arautzen duen lege organikoa 1985eko uztailaren 3an onetsi zen.

#### Hezkuntzarako Eskubidea arautzeko uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoa.

Hezkuntzari buruzko 1970eko lege orokorrak oinarritzeko hezkuntzaren derrigorrezkotasuna eta doakotasuna ezarri eta zerbitzu publikotzat hartu bazuen ere, lehentasunez Estatuaren gain utziz haren ardura, praktikan egia da hezkuntza luzarotan gutxi batzuen pribilegioa izan dela, guztien eskubidea baino gehiago.

Guztion hezkuntzarako eskubidea Konstituzioan aitortu eta bermaturik zegoelarik, LODERen ahalegina izan zen funtsezko edukiaren garapeneri heltzea.

LODE delakoak, hasteko, hezkuntza jardunaren helburu nagusiak eta eskola erkidegoaren kide guzti-guztien eskubideak eta askatasunak zehaztu zituen, eta ondoren ikastetxeen sailkapena ezarri, irizpide hauen arabera: ikastetxeei eusteko berme diren baliabideen titularitate juridikoa, jatorria eta izaera.

Legearen atarikoak berak arrazoitzen duenez, haren asmoa da "urtetan behar bezalako arreta izan ez duen irakaskuntza publikoari duintasuna

eman eta aukera berdintasuna bultzatzea"; horretarako, hezkuntza beharrei eman behar zaien erantzuna bermatzea Estatuari eta autonomia erkidegoei dagokiela, zein bere eskumenen esparruan, irakaskuntzaren programazio orokorraren bidez eskola postuen eskaintza egokia emateko.

LODEk garrantzi berezia ematen zion hezkuntzarako eskubidea eta ikastetxea aukeratzekoak biak batera bermatu beharri, atarikoak azpimarratzen duenez, "guztiendako hezkuntzarako eskubidea bermatu ezean ez baitago askatasun hori".

LODERen 11. artikulua -Hezkuntzaren kalitateari buruzko Legeak derogatua- ezarri zuen ikastetxe horiek "ematen dituzten irakaskuntzen arabera, eskolaurreko hezkuntzakoak, oinarritzeko hezkuntza orokorrekoak, batxilergokoak eta lanbide heziketak" izan ahal zirela. LODERen 14. artikulua, egun indarrean, bermatzen du zein diren ikastetxe orok, bere izaera dela eta, bete behar dituen gutxieneko baldintzak, eta agintzen du ikastetxe guztiek gutxieneko betebeharrak batzuk izan behar dituztela irakaskuntza kalitatea ziurtaturik aritzeko. Gobernuak erregelamenduz ezarri behar zituen gutxieneko betebeharrak horiek. Gutxieneko betebeharrak horiek gai hauen ingurukoak ziren: irakasleen ikasketak titulazioa, irakasle bakoitzeko ikasle kopurua, irakaskuntzarako eta kirolerako instalazioak eta eskola postuen kopurua.

Beraz, aipatutako azken bi manuetan (LODERen 11. eta 14. artikulua) jasotako arautzearekin bat, hezkuntzarako eskubideari buruzko lege organikoak eskatzen du eskolaurreko ikastetxeek gutxieneko betebeharrak batzuk bete behar dituztela, legeak berak zehazten dituen hainbat gaitan, ikastetxe horietan ematen den irakaskuntzaren kalitatea bermatzen saiatzeko.

LODERen 14. artikulua ezartzen dituen gutxieneko baldintza horiek ikastetxe pribatuak ere eskatu beharrekoak dira, eta LODERen 23. artikuluan ezartzen du "arabide orokorreko nahiz bereziko irakaskuntzan aritzen diren ikastetxe pribatuak ireki eta jardunean egoteko baimen administratiboa beharko dutela. Baimena lege honen 14. artikuluan xedatutakoarekin bat ezartzen diren gutxieneko baldintzak betetzen badira emanen da."

Aurreko guztiarekin ere, LODERen 24. artikulua onartzen du balio akademikorik ez duen titulu bat lortzeko irakaskuntzetan aritzen diren ikastetxe pribatuak zuzenbide arruntaren arauak lotuko zaizkiela; salbuespen gisa, LODEK "haurrak babestegatik" justifikatzen duena, ezartzen du "haur hezkuntzako adineko haurrak modu erregularrean hartzen dituzten ikastetxe pribatuak 23. artikulua aipatzen duen baimen administratiboaren mende

egonen dira; eta hala ezartzen du LODEren 24. artikuluko 2. idatz-zatiak, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko 1/1990 Lege Organikoak emaniko idazketaren arabera. (Komeni da gogora ekartzea hiru urte arteko tartea LOGSEk ezarritako haur hezkuntzako lehen zikloa dela, eta beraz haur hezkuntzari buruz esaten denak tarte hori barne hartzen duela ulertu behar da).

Ikastetxeak, zehazki eskolaurrekoak, sortzeko eskumena nori dagokion ezartzeko, berriz, LODEren 17. artikuluko aurrekusten du, noski, ikastetxeak sortzea kasuan kasuko autonomia erkidegoko gobernuaren edo gobernu kontseiluaren eskumena dela, zein bere eskumenen esparruan. Nolanahi ere, LODEren 2. xedapen gehigarriak, 10/1999 Lege Organikoak emaniko idazketaren arabera, ezartzen du "ikastetxe publikoak sortu, eraiki eta mantentzeko eta derrigorrezko eskolatzea betetzen dela zaintzeko, toki korporazioak hezkuntza administrazio eskudunekin batera arituko dira, lege indardunek ezarritakoaren esparruan eta, hala eginez gero, bi alderdiek erabakitzen duten moduan."

Xedapen horrek eta LOGSEren 11. artikuluan jasotakoak ahalbidetu zuten gure Foru Komunitatearen esparruan ezartzea hitzarmenez osaturiko lege esparru bat, zeinen araubide juridikoa Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak abuztuaren 2an emaniko 3086/2001 Ebazpenean jaso zen; ebazpen horren bidez arautu ziren toki entitateek sustaturiko Haur Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendu eta ekipamendurako hitzarmenak sinatzeko oinarriak.

### **Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoa.**

LOGSEren atarikoan jasorik daude legegileen hausnarketak; horiek arretaz irakurritz gero jakin dezakegu zer asmo eta xede erdietsi nahi ziren araua onestean.

Legearen hasieran gogorarazten da hezkuntzan gizartean bizitzea ahalbidetzen duten balioen transmisioa eta erabilera gauzatzen dela, bereziki oinarrizko eskubide eta askatasun guztien errespetua, eta bizikidetasun demokratikoaren eta elkarrenganako begirunearen ohiturak bereganatzen direla. Gizartean heldutasuna, neurria handi batean, banakako arloa eta erkidegoarena hezkuntzan oinarriturik eta haren parte-hartzearekin, bateratzeko gaitasunaren eskutik. Gizartearen aurrerapenaren aldeko aldakuntza orok, txikiak nahiz handiak, ondoan izan du beti, aurretik ez bada izan, hezkuntzaren bizkortzea eta bultzada, aldakuntzarako dituen aukerei emaniko itxaropenak eraginda.

Hausnarketa orokor horietatik abiaturik, legeak balorazio labur bat egiten du legea aldarrikatu behar zen garaiaz, arauen eta historiaren ikuspegitik, erdietsitako lorpenez eta erreforma berria justifikatzen duten gabeziez eta eskasiez.

Konstituzioan jasotako arautzea, nahitaez, aipatu eta nabarmendu ondoren espainiar guztien hezkuntzarako eskubideari eta hezkuntzarako eskubideari buruzko lege organikoaren bidez irakaskuntzaz egin zen programazio orokorraren medioz eskubide horren garapenari egin dion ekarpena, legeak aitortzen du egun oraindik indarra duen hezkuntza diseinua 1970eko legeak ezarri zuena dela.

Orditik hona bizitako bi hamarkadetan, gehiena demokrazian, hezkuntzak, halere, bultzada handia jaso du: oinarrizko hezkuntza orokorrean erabateko eskolatzea lortu da, derrigorrezkoak ez diren maila guztietan nabarmen handitu da eskolatze maila, aurrerapen garrantzitsuak gertatu dira aukera berdintasunaren arloan eta hezkuntza sistema Estatuaren egitura autonomikoak ekarritako dinamika berrira egokitu da.

Lorpen garrantzitsu horiek ez dute estali behar, legeak dioenez, egungo hezkuntza sistemak nahitaezkoa duela erreforma bat, "hezkuntzaren arlokoak diren egiturazko arazo batzuei soluzio egokia eman eta denboraren poderioz azaleratu edo larriagotu diren kontzepzio akatsak, gabeziak eta disfuntzioak zuzentzeko".

Erreforma justifikatzen duten kontzepzio akats edo gabezia horiek honako hau adieraziz zehazten ditu legeak: "besteak beste, horietako bat da derrigorrezko eskolatzearen aurreko tarteari hezkuntza izaerarik eman ez izana..."

Erreformarako prozedura horren elementu erabakigarrienetako bat da, hizpide dugun etapari dagokionez behintzat, aintzat hartzea hezkuntza erkidegoaren kide guztiek bere egindako ondorioak, zientzia psikopedagogikoen adituek, luze aztertu ondoren eta kontuan harturik Europan gure inguruan ditugun herrialde aurreratuenean esperientzia alderatua, onartutakoak.

Hezkuntza etapetan hainbat berrikuntza metodologiko eta curriculum aldaketa ekarri zituen prozesu haren eta esperientzien azterketa kritiko eta analitikoaren emaitza "Hezkuntza sistemaren erreformarako liburu zuria" izan zen; LOGSEk izaera juridikoa eman zion azterketa horri, legeak berak onartzen duen bezala.

"Liburu zuria" etengabe aipatzen du bere ondorioen artean gure azterlanaren xede den etapa, eta hauxe adierazten:



“Esperientziak eta ikerketak frogatu dute hezkuntzak ziklo honetan duen berezko balioa, jatorrizko betekizuna ama langileen seme-alabak zaintzea izan zela alde batera utzita...”

“Umeari, gurasoak lanean izan ala ez, bere garapenerako onak diren esperientziak eman nahi zaizkio, familian bizitakoen ordezkoak izan gabe, horien lagungarri eta osagarri baizik”

“Haur hezkuntza, bizitzaren lehendabiziko hila-beteetatik sei urtetarainokoa, hezkuntza sistemaren aurreneko etapa izan behar da... ez da derrigorrezko eskolatzeko maila izanen”

“Hezkuntza etapa honek irakasleen hezkuntza asmoa eskatzen du, esperientzien eta jardueren planifikazio zaindua, profesional espezializatuak, lan baldintza jakin batzuk zenbait gaitan: osasun, espazio, irakasle/ikasle proportzioa...”

“antolamendu berriaren helburua da hezkuntza irizpideen arabera arautzea arreta handirik jaso ohi ez duen eta eginkizun pedagogikoak baino laguntzakoak edo sozialak bete dituen maila bat... Maila honi hezkuntza izaera emateak aldaketak ekarri behar ditu ikastetxeen eta bertan ematen diren hezkuntza esperientzien antolaketan...”

“haur hezkuntzaren antolamenduaren erantzukizuna hezkuntza administrazioena izanen da... haiek zainduko dute haur hezkuntzako ikastetxe guztiek ezartzen diren baldintzak -irakasleak, espazio fisikoa eta segurtasun, higie-ne eta osasuna- betetzen dituztela... Ikuskaritza Teknikoaren Zerbitzuak gauzatuko ditu kasuan kasuko jarduketak...”

LOGSEren atarikoaren amaieran aipatzen da legearen asmoa dela Espainiako hezkuntza sistema berrantolatzea zabaltzen doan Europako ikuspegi baten barrenean.

Egokia dirudi berriz ere nabarmentzea testuari amaiera ematen dion Europaren aipamena eta gogorarazi bederlatzi urte lehenago, 1981eko urtarriaren 23an, onetsi zela Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen gomendioa haurrak jaiotzetik zortzi urte bitarte izan beharreko harrera eta hezkuntzari buruz.

Gomendio horrek hauxe xedatzen du kide diren estatuek bete beharreko zereginari buruz:

“Kontuan harturik jaiotzetik zortzi urte bitarte haurren hezkuntzak duen garrantzia laurogeiko hamarkadako European, kide diren estatuek honakoak bete beharko dituzte:

1. Haurren hezkuntza antolatu gurasoekin batera arituz, familiako hezkuntzaren osagarri eta etengabe hezkuntzaren lehen etapa izan dadin:

- behar adina dirurekin
- familia, gizarte eta lan arloetako legeak hobetuz.
- jarraikortasuna mantendu eta heldua modu berritzaile eta sortzailean heziko duen hezkuntza sistema bat planifikatuz...”

LOGSEren artikuluen testuak egiten duena da aipatutako alderdi horiei zehaztapen juridikoa ematea, ez besterik.

Halatan, 3. artikulua hezkuntza sistema osatzen duten araubide orokorreko irakaskuntzen artean sartzen du haur hezkuntza.

Legearen I. tituluko I. kapituluak haur hezkuntza arautzen du (7. artikulutik 12. artikulura), eta ezarri haur hezkuntza sei urte artekoa dela, eta haurren garapen fisikoa, intelektuala, afektiboa, soziala eta morala landuko duela. Haur hezkuntzako ikastetxeek harreman estua izanen dute gurasoekin edo tutoreekin elkarlanean aritzeko, gurasoek hezkuntza etapa horretan duten funtsezko erantzukizuna aintzat hartzeko.

Etapa borondatezkoa dela ezartzen da, baina administrazioaren esku uzten da eskolatzeko eskatzen duten guztientzako behar adina toki izan dadin bermatzeko ardua.

LOGSEk hezkuntza etapa honekin lortu nahi diren helburuak finkatzen ditu, eta adierazi lagunduko duela honako gaitasun hauek garatzen:

- “a) Haurrak bere gorputza eta ekintzarako aukerak ezagutzea.
- b) Besteekin erlazionatzea adierazpide eta komunikazio mota desberdinen bitartez.
- c) Ingurune natural, familiar eta soziala behatu eta esploratzea.
- d) Pixkanaka autonomia eskuratzea ohiko jardueretan.”

Haur hezkuntzako etapak bi ziklo ditu. Lehena hiru urteko adinera artekoa da eta bigarrena hiru urtetik sei urtera.

Hezkuntza metodologia esperientzietan, jardueretan eta jolasean oinarrituko da, maitasun eta konfiantza giroan.

Etapa honetako lehen zikloan mugimendua, gorputzaren kontrola, komunikazioaren eta mintzamenaren aurreneko agerpenak, bizikidetasun eta

gizarte harremanetako oinarritzko jokamoldeak eta inguru hurbilena ezagutzen joatea.

Haur hezkuntza espezializazio horretako maisu-maistrek emanen dute. Lehen zikloan ikastetxeek beste profesional batzuk ere izanen dituzte, adin horretako haurrentzat egokia den hezkuntza emateko kualifikatuak.

Amaitzeko, LOGSEk hezkuntza administrazioen esku uzten du etaparen garapena, eta aurreikusi horretarako hitzarmenak izenpetu ahalko direla toki korporazioekin, beste toki entitate batzuekin eta irabazi asmorik gabeko entitate pribatuekin.

I. tituluko I. kapituluko arautze horiez gain, LOGSEn beste bi aipamen egiten dira etapa honi buruz: lehenean aipatzen dira arrazoi sozialek, ekonomikoek, kulturek nahiz bestelakoek ekartzen duten berdintasun faltari aurre egiteko hartu beharreko osabidezko neurriak. Esparru honetan prebentzioak duen garrantzia nabarmentzen du legeak hezkuntza administrazioen esku uzten duenean kasu hauetan bermatzea haur hezkuntzako eskolatzeari begira ezar daitezkeen baldintza onenak. Bigarren aipamena lehen xedapen gehigarrian jasorik dago, ezartzen baitu zein izanen den bidea, legeak indarra hartzean, sei urteko beherako haurrak hartzen dituzten zentro ez baimenduak haur hezkuntzako ikastetxeetarako ezartzen diren gutxieneko baldintzetara egokitzeke.

LOGSEn jasotako arautzeak, legea horretan berean eta hezkuntzarako eskubideari buruzko lege organikoak ezarritakoari jarraiki, erregelamenduzko garapena izan zuen ondoren, ekainaren 14ko 1004/1991 Errege Dekretuaren bidez - araubide orokorreko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezartzen ditu- eta irailaren 6ko 1330/1991 Errege Dekretuaren bidez -haur hezkuntzako oinarritzko ezaugarriak ezartzen ditu-.

Foru Komunitatean, xedapen horien garapena jasorik dago, nagusiki, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak abuztuaren 2an emaniko 3086/2001 Ebazpenean, toki entitateek sustaturiko haur hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendu eta ekipamendurako hitzarmenak sinatzeko oinarriak arautzen dituen horretan. Garrantzi handiko alderdiak zehazten dira bertan, besteak beste:

*Haur eskoletan arituko diren profesionalen eskatu behar zaien titulazioa hauxe da:*

- Haur hezkuntzako goi mailako teknikaria.
- Haur hezkuntzako goi mailako teknikaria.

- Maisu-maistra edo OHOk irakaslea.
- Haur hezkuntzako maisu-maistra espezialista.
- OHOk irakaslea, eskolaurreko espezialitatearekin.
- Psikologia.
- Pedagogia.
- Psikopedagogia.

*Profesionalen kopurua, ikastetxeko, bertan dauden unitateen kopurua gehi bat izanen da, ratio hauen arabera:*

- Urtebetetik beherako haurrendako unitateak: 1/8
- Urtebetetik bi urtera bitarteko haurrendako unitateak: 1/12
- Bi urtetik hiru urtera bitarteko haurrendako unitateak: 1/16

Ikastetxeak ez badauka behar beste haur, adin ezberdinetako haurrak honako ratio hauek errespetatuz unitatetan biltzea baimendu ahalko da:

- Zero eta urtebeteko haurrendako unitateak: 1/7
- Urtebete eta bi urteko haurrendako unitateak: 1/14
- Zero, urtebete eta bi urteko haurrendako unitateak: 1/10

Ikastetxeetako instalazioek bete beharreko baldintzak. Beheko solairuan egonen da eta sarrera independentea izanen du. Jolaserako gune bat izanen du, atari zabalean edo etxartean. Aretoen gutxieneko luze-zabalera honakoa izanen da: bi metro koadro haur bakoitzeko. Bainugeletan, komunak haurren neurrien arabera izanen dira. Instalazioek osasun, higiene eta segurtasunaren arloan indarra duten arauak ezarritakoa bete beharko dute.

*Barne antolamendua: egutegia, ordutegia, onartzeko gutxieneko adina*

Ikastetxeak ikasturtez ikasturteko zerbitzua emanen du. Ikasturteak hamaika hilabete iraungo du eta urtean hilabete bat itxi beharko du (uztaila, abuztua edo iraila), toki entitateak aukeratzen duenean.

Oro har, haurrek ez dute egunean 7 ordu baino gehiago eman ahalko ikastetxean, egoera berezitan izan ezik. Azkenik, 16 astetik beherako haurrik ez da onartuko.

### Hezkuntzaren kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoa (LOCE)

Hezkuntzaren kalitateari buruzko lege organikoaren xedea da, zioen azalpenean adierazitakoaren ildotik, hezkuntza sistemaren egiturari, maila eta etapa desberdinetan, definizio berria ematea.

Egun eskolaurreko hezkuntza deitzen denari dagokionez, orain arte haur hezkuntzako bigarren zikloa izan denetik bereizi da; hiru urte artekoa da eta "haren ezaugarria da izaera bikoitza duela, hezkuntzako eta lehen haurtzaroko arreta eta zaintza, eta familien eskaerari erantzuteko eta haien beharrak asetzeko behar adina toki eskaintzea bermatu behar da."

Egun haur hezkuntzaren izena eman zaionak hiru urtetik sei urtera arteko etapa hartzen du eta aurrenekoz, borondatezko etaparen izaera hartzen du, doakoa halere.

LOCEk, I. tituluko I. kapituluan, eskolaurreko hezkuntza izenekoaren arautzea zehazten duenean, hauxe xedatzen du:

"7. artikulua: 1. Hezkuntza sistemak bere baitan hartzen ditu eskolaurreko hezkuntza, eskolako irakaskuntzak eta unibertsitatekoa.

2. Eskolaurreko hezkuntza hezkuntzaren eta laguntzaren arloetakoa izanen da eta berariazko arautzea emanen zaio.

3. Eskolako irakaskuntzak araubide orokorrekak eta araubide berezikoak dira..."

Beraz, LOGSEn eskainitako arautzean ez bezala, oraingoan etapa ez da hezkuntza sistema-ko eskola irakaskuntzan sarturiko araubide orokorreko irakaskuntzat hartzen.

Eskolaurreko hezkuntzak berariazko tratamendua du I. tituluko II. kapituluan, 10. artikulua honako ezaugarriak ezartzen baitu hitzez hitz:

10.1. artikulua. "Eskolaurreko hezkuntzaren helburua da hezkuntza eta laguntza ematea lehen haurtzaroan. Hiru urte bitarteko hurrei ematen zaie."

2. Autonomia erkidegoen zeregina izanen da hezkuntza etapa horretako haurrentzako laguntza antolatzea eta hura emanen den ikastetxe eta erakundeek bete beharreko baldintzak zehaztea, gobernuak etapa horren hezkuntza alderdiei buruz ezarriko duen oinarriko araudiari jarraikiz. Era berean, egokitzen dituzten gainbegiratze eta kontrol prozedurak ezarriko dituzte.

3. "Eskolaurreko hezkuntza adin horretako hurrei laguntza egokia emateko behar den prestakuntza duten profesionalak emanen dute.

4. "Eskolaurreko hezkuntza borondatezkoa da gurasoentzat. Administrazio eskudunak erantzuna emanen die familietan dauden beharrei eta eskariari aurre egiteko behar adina toki eskaintzen dela koordinatuko dute.

5. "Eskolaurreko hezkuntzan, xedeak izanen dira mugimenduaren garapena, gorputzaren kontrola, komunikazioaren eta mintzamenaren aurreneko agerpenak, bizikidetasun eta gizarte harremanetako oinarriko jokamoldeak eta inguru hurbilena ezagutzen joatea."

LOCEren V. tituluak ikastetxeak arautzen ditu, eta ez ditu ezertarako aipatzen eskolaurreko ikastetxeak. 6. xedapen gehigarriak eta 2. xedapen iragankorrak baizik ez dituzte aipatzen. Haietako lehenak aurreikusten du haur hezkuntzako lehen zikloa emateko baimena duten ikastetxeak eskolaurreko hezkuntzako ikastetxe bihurtzea legeak indarra hartzen duenean. Bigarrena, berriz, hiru urtetik beherako hurrez arduratzen ziren ikastetxe ez baimenduen egokitzapenari buruzkoa da.

Arautze hori garatze aldera honako agindu hauek onetsi dira:

827/2003 ERREGE DEKRETUA, ekainaren 27koa, LOCE ezartzeko egutegia onesten duena.

828/2003 ERREGE DEKRETUA, ekainaren 27koa, eskolaurreko hezkuntzaren hezkuntza ezaugarriak ezartzen dituena.

113/2004 ERREGE DEKRETUA, urtarrilaren 23koa, Eskolaurreko Hezkuntzako irakaskuntzen oinarriko hezkuntza alderdiak eta antolamendua arautu eta etapa horretako ikastetxeek bete behar dituzten baldintzak ezartzen dituena. (Hezkuntza Ministerioaren esparruan ezartzekoa).

1318/2004 ERREGE DEKRETUA, maiatzaren 28koa, hezkuntza sistemaren antolamendu berria, Hezkuntzaren kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoa ezarria, aplikatzeko egutegia ezartzen duen ekainaren 27ko 827/2003 Errege Dekretua aldatzen duena.

Errege dekretu honen artikulua bakarrak eskolaurreko hezkuntza ezartzeko unea atzeratzen du 2006-2007 ikasturtera (2004-2005 ikasturtean aplikatzea zegoen aurreikusirik), baina ezartzen du halaber "eskolaurreko hezkuntzaren ezarpena 2003-2004 ikasturtera aurreratu zuten hezkuntza administrazioek ondorengo ikasturteetan egin ahal izanen dutela ezarpen hori."

#### 4. Oti 3 URTERA BITARTEKO HAURREN BEHARRAK ETA HEZKUNTZA EREDUAK

Adingabea zuzenbidezko subjektu dela esateak besterik gabe, printzipio gisa duen balioaz haratago, ez du jasotzen zuzenbide horren arrazoia bera, hala nola haurraren nortasuna, gizakia den aldetik duen berezitasuna osatzen duten alderdien multzoa.

Hezkuntzaren ikuspuntutik adingabeen eskubi-dea eta haurtzaroan dituzten eskubide berariazkoak jakintzat, besterik gabe, ez emateko, eta haurra eskubide horietaz baliatzeko "oraindik" aktiboa ez den subjektua edo "garrantzirik gabeko subjektua" dela ulertu -hausnarketa gehiagori tokirik eman gabe- ohi dutenen kontrako akatsa ez egiteko, komeni da ikustea, gainera bada ere, Oti 3 urtera arteko haurraren nortasunaren ezaugarriak, bere bizi esperientziak nola prestatzen duen haurra etorkizunari begira bide batetik edo beste batetik eta zer eragina duten etapa horretan inguruan dituen inguruabar sozialek, familiarrek eta hezkuntzaren arlokoek.

Ikertzaileek eta adituek milurteko honi, hasi aurretik ere, esleitu zizkioten aldatetarik askok lotura estua dute hezkuntzaren arloarekin. Gizarteak duela urte asko jasaten hasi ziren lurrikara ekonomiko, teknologiko eta sozial hori oso loturik dago XX. mendearen azken urteen itxuratik apenas alden duen XXI. mendeko haur eta gazteekin.

Idea<sup>(1)</sup> zabaldua da merkatuaren globalizazioak ez duela herrialdeen arteko bizi-mailako berdintasun faltan arazoa konponduko, larriagotuko baizik. Justiziaren eta leialtasunaren arteko gatazka eta demokrazia global utopiko baten alde borrokan segitzeko premiak eragin nabarmena izanen dute planetako harremanetan. Gizon eta emakume guztiengatik duintasun bera lortzeko eskaera unibertsalak ez lieke aukerarik utziko egun globalizazio horren onurak jasotzen dituzten artean, nor bere kulturari, ongizateari eta tradizio historikoari leial izateko.

H. Kennet Galbraithen (1995) plazaratutako ideian, alegia, lana eta aurrerapen sozial eta ekonomikoa lortuko luketenentzako segurtasun sare bat lortzeko kezka handiagoa egon beharko lukee-

la dioen horretan, hezkuntza faktore erabakigarria da<sup>(2)</sup>.

Kezka hori abiapuntu, "Guztientzako Hezkuntzaren aldeko mundu adierazpena"<sup>(3)</sup> izenekoak eragin handia izan zuen haur hezkuntzaren arloan, "jaiotzean bertan hasten da ikasten. Horrek eskatzen du haurrei lehenbailehen eta hasieratik eman beharra zaintza eta hezkuntza, eta hori lortzeko baliagarriak dira familiari, erkidegoari nahiz erakundeei zuzendutako neurriak, komeni denaren arabera". Horrek bide ematen du azpimarratzeko ezen gizakien adimena, nortasuna eta portaera soziala oso azkar garatzen direla lehendabiziko urteetan. Garuneko zelula eta neuronon arteko konexioak lehendabiziko bi urteetan garatzen dira eta garunaren hazkundean -ikasteko ahalmena gaintzeko funtsezkoa baita- osasunak eta elikadurak ez ezik elkarreragin sozialak eta adingabeek inguruan duten giroak ere parte hartzen dutela, besteak beste.

Hezkuntza goiztiarra jaso zuten eta jaso ez zuten haurrak alderatzen zituzten hamabost azterlanen sistematizazio batek, bederatzi herrialdetan eginikoak<sup>(4)</sup>, ondorio nabari hauek aipatzen zituen haurren hezkuntzak dituen alde onen artean:

- Esku-hartze goiztiarrak eragin ona izaten du eskolako aurrerapenean eta jardunean, eta nabarmen jaisten du eskola utzi edo ikasturteak errepetatu behar dituztenen kopurua.
- Alderdi anitzeko programek onura handiagoak ekar ditzakete haur behartsuentzat pribilegiatuagoak diren beste batzuentzat baino.
- Hasierako hezkuntzaren egiturazko baldintzek eta kalitate txarrak ahuldu dezakete ikasketetan jarduteko prestatzeak izan dezakeen eragina<sup>(5)</sup>.

Aurreko arrazoi guztiengatik garrantzitsua da hezkuntza ematea lehen haurtzaroan. Berezik, bazterkeriazko egoeran dauden familietako haurrei ematen zaien laguntzak indar handia izan dezake etxeko gabeziak konpentsatzeko eta txirotasunaren gurrpil zoroa hausten laguntzeko.

Horrexegatik, agian, interesgarria da datu bat<sup>(6)</sup>, alegia eskolaurreko hezkuntza handitu egin zela munduan 1980tik 1995era, ia 37 milioi ikasle, eta irakasle kopuruaren gehikuntza denbora tarte

(1) Richard Rorty, 1995.

(2) José Rivero. *La educación infantil en el siglo XXI. Haur Hezkuntzari buruzko 4. Mundu Biltzarra. Madril. 1998.*

(3) Jomtiengo mundu biltzarra.

(4) Argentina, Bolivia, Txile, Kolonbia, Filipinak, India, Maroko, Peru, Turkia.

(5) R. Meyers, 1998.

(6) UNESCO. *Statistical Yearbook. 1997. Paris. 1997.*

horretan 1,73 milioikoa izan zela, haietatik gehienak emakumezkoak.

Berdintasun eta elkartasun handiagoa, gizarte lankidetzaren handiagoa lortzeko begira, hezkuntza iturri ezinbestekoa da eta adingabeen lehen haurtzaroko hezkuntza sistemak sendotzea funtsezkoa. Eskubide guztiak, salbuespenik gabe, betetzeko oinarri izan behar duen kultura berri bat, eta horrek berarekin dakar objektibitatea eta ahaleginak garrantzi bereko hainbat aldatuta erdiesten. Aurrebaldintza edo ondorio gisa, haur hezkuntza eta haurren bizitza garatzen den errealitate sozio-ekonomikoen aldatuta bat eginik daude.

Ziur jakinda milurteko honetan hezkuntza sistema guztien kezka eta erronka 6 urtetik beherako adingabe guztiei hastapeneko arreta ematea dela, hezkuntzarako eskubideak hartzen duen esparrua horrela handitzeko abiapuntua izan behar da elikadurara eta osasunera -zenbait herrialdetan erabakigarriak izan daitezkeen arren- mugatzen ez den hezkuntza goiztiararen kontzeptu bat. Eskolaurreko hezkuntzaren konbentzionalismoak eta eskolatuak baizik ez diren "azturak" gainditu behar dira.

Hezkuntzaren arloko lanen esperientzia aberatsak eta hainbat ikerketa bat datoz esatean haurrak euren komunikazio eta ikaste ereduak eraikitzen joaten direla gutxienez lau arlotan garatutako antolamendu psikomotorre batetik hasita: haientzat garrantzitsuenak diren helduekiko lotura, esplorazioa, komunikazioa eta oreka<sup>(7)</sup>. Aipatzen da, eta zentzuzkoa da, antolaketa eremu horien arteko elkar ekintza dela haurrari bide ematen diona bere hasierako eta etengabeko hezkuntzaren zutabeak eraikitzen joateko. irudikapen mentala, abstrakzioa eta beraz, hizkuntzaren eta "pentsamendu operatiboa" izenarekin ezagutzen denaren garapena.

Hasierako hezkuntzan, haurrak bere izaera du dagoeneko, bere edukiak jarri eta kanpoko edukiak jasotzeko gai da, eta horrek jarrera berriak eskatzen ditu bai praktika pedagogikotik bai irakaslearengandik: hezkuntza askeagoa eta berdintasunezkoagoa, haurren interesak eta edukiak ematean eragile baztertzaila izan ez den irakaslea bere egiten dituen, interes horiek haurraren ikasketa eta garapenaren protagonista bilakatzeko. Hasierako hezkuntzaren ahalegin nagusien xedea izan behar da egungo haurrari, goxotasunez hartzen duen giro baten bidez, gaitasuna ematea aurrerago taldean lan egiteko, besteekin batera elkarlanean aritzeko, adierazteko, eztabai-

datzeko, arazo berriak ebazteko eta autonomia izateko, baina besteekin harremanetan.

"Delors txostena" izenarekin ezaguna denak (XXI. menderako hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordeak UNESCOrentzat eginiko txostena) hasierako hezkuntzaren garrantzia nabarmentzen zuen eta honakoa adierazi: "egiaztatu ahal izan da lehen haurtzarorako hezkuntza berezia jaso duten haurrek jarrera ona dutela eskolarekiko eta halakorik izan ez dutenen kasuan baino aukera gutxiago daudela eskola behar baino lehen utz dezaten.

Osasunari eta hezkuntzari dagozkien alderdi horien arteko bereizkuntza abiapuntutzat harturik, arestian aipatzen ziren gaitasunak lehen haurtzaroko garatzea, argi dirudi hezkuntza eginkizuna, adin tarte horretan ere, ez dela laguntza eginkizunetan oinarritzen, ikerketak eta, kulturaren ikuspegitik, gizartearen bilakaerak berak kontzeptualki gainditu dituen arau historikoez hala ezarri bazuten ere. Hezkuntzaren esparruan "laguntzazkoak" har dezakeen izaera peioratiboaz haratago, laguntzazkoa izatearen kontzeptua "gutxienekoetatik" abiatzen da, zerbitzuen beharri nola eskaintzari dagokionez; administrazioak, hau da, botere publikoek, sostengua ematen dute ekintza berezien bidez baldintza okerragoetan dauden herritarren oinarritzko premiak asetzeko.

Haurren eskubideak aitortuz geroztik, ordea, kontzeptu hori ez da aplikatzeko modukoa, eta are gutxiago hezkuntzaren esparruan, bertan eskubide bikoiztasuna gertatzen baita: haurtzarorari dagozkionak eta hezkuntzarako eskubidea, orokorragoa. Biek ala biek, banaka nahiz batera, gizakiaz sortzen duten ikuspegiaren arabera, bizitzaren hasierako urteetan ere, laguntzazko jarduera, osagarritzko esku-hartze modua den aldetik, ez da zuzena ez eta egokia, gizarte bazterkeriazko muturreko kasuetan ez bada. Adingabeak etapa horretan dituen beharrak -gorputzaren zainketa, elikadura, garbitasuna- laguntzaren ikuspegi soiletik ase daitezkeen alderditzat hartu izan dira, eta, berriz, beste zenbait jarduera -irakurtzea, idaztea, margotzea...-, ikastekoak alegia, "hezkuntza" arlotzat hartzen dira, zentzu akademikoengan. Halere, frogaturik dago, ongi frogaturik ere, ikuspegi hori okerrekoa dela, bi alderdiak bereiztearen ondorioz mugatzaile bihurtzen baita, eta alderdi horiek hezkuntzakoak dira biak adin horretan: egitatearen ezagutzea, ikastea, haurraren banakako nor-tasunean txertatzea.

(7) José Rivero. *Ibidem*.

Are gehiago, pedagogoen eta psikologoek behin eta berriro gogoratzen duten bezala, haurrek ez dituzte hezkuntzako uneak eta hezkuntzakoak ez direnak bereizten; adin horretan, bizitzaren edozein une izanen da hezkuntzako orientabide egokia emanez gero, behar adina antolatua eta bitarteko eta profesional ahal den onenez lagundua bada. Beharbada gure gizarteak azken hamarkadetan ezagutu duen kultur eta gizarte bilakaera izan da etapa horretako beharretarako laguntza ikuspuntu "fisiko hutsetik" (zaintza) ikusteko modu hori gainditzeko bultzadarik onena, emakume gero eta gehiago lan munduan sartzearen ondorioz adingabeen arduratzeko guneak bilatu beharrak presio handia egin eta egiten badu ere.

Puntu horrekin sortzen da tentsioa, batetik adingabeen bilakaeraren ezaugarrien eta haiei eman beharreko hezkuntza egokiaren eta bestetik familiei laguntzeko premiaren artean, azken hori erantzunik jasotzen ez duen larrialdi bihurtzen dena maiz. Batzuen eta besteen eskubideak kontrajartzen diren puntu horri ezin zaio irtenbiderik eman aldi baterako politikaren irizpideak erabiliz, baizik eta ukituak diren guztien eskubideen defentsatik eta aplikaziotik, bateragarriak direlako irizpide ekonomikoa aplikatzen ez den bitartean, horrek unean unerako neurriak, laguntzazkoak gehien bat, ezartzea ekartzen baitu.

Haurrentzako hezkuntza zerbitzuek familien beharrei lagundu behar dietela eztabaida ezina izanik eta emakumeen enplegua sustatzeko zein garrantzitsuak diren kontuan harturik, gogorarazi behar da haurren hezkuntza dela hezkuntza sistema osoaren oinarria. Ulertu daitezke, beraz, familiako hezkuntzaren osagarri diren hezkuntza testuinguru gisa, gizakiaren gaitasunak eta ahalmenak jaiotzetik garatzen laguntzen dutenak, familia testuinguru guzti-guztiak ez badira ere hezkuntzarako egokiak.

Haurtzaroaren etapa horretarako tokien eskaera eta eskaintza nahikoa ez izateak kexa bihurtu duen tentsioa ere gertaera sozialak direla onartuta, eta haratago begiratuz gero, haur hezkuntza ezin da aztertu gizartearen eskaera edo behar bat bezala bakarrik. Gizartearen presioaren aurrean ez dago lehen haurtzaroan hezkuntza egokiaren beharra babestuko duen dikerik. Adingabeen garapen integralaren aldeko asmoa zenbat eta handiagoa izan orduan eta handiagoa izanen da administrazio publiko eskudunen erantzukizuna, eta

erantzukizun hori gauzatu egin behar da, gizartearen beharretarako egoki den toki kopurua egon dadin ez ezik, toki horiek haurren eskubideen premia eta ezaugarrietarako -tartean hezkuntza egoia- proposak izan daitezkeen ere.

Haur eskolen sistemak, adingabeen beharrei erantzunez, hezkuntza asmo garbia dauka, eta laguntzazkotzat har daitezkeen alderdian hezkuntza helburu horien zerbitzuan daude.

Katalunian, 15.000 biztanleren artean eginiko ikerketa batek alde nabarmenak aurkitu zituen haurtzaindegira joan zirenen, haur eskolara joan zirenen eta eskolako zikloa beranduago hasi zuten artean, haurren garapen psikomotorari dagokionez. Haurren nortasuna eratzean horrek izandako eragina ez zen hain ona izan haurtzaindegira joan zirenentzat etxean geratu zirenen aldean, baina haur eskolara joan zirenak hobeki prestatuak zeuden familiaren laguntza soila hartutakoak baino eta haurtzaindegietan egondakoak baino askoz hobeto.

#### ETORKIZUN SAIHESTEZINEAN PENTSATZEN

Pompeu Fabra Unibertsitateko Zientzia Politiko eta Soziologia Saileko irakasle eta soziologo María José González López andreak 2003ko datu zuen lan agiri batean<sup>(8)</sup> aipatzen zuen haurren eskolatzearen arloan, egun, Oitk 3 urtera bitarteko haurrak barne, eskaintza ez dela behar adinakoa, ez sektore publikoan ez pribatuan; familiak betetzen duen papera nabarmena da adingabe horiei laguntza emateko, familia eta lana uztartu beharrraren euskarri gisa, gure eremu geografiko eta kulturalako beste herrialdeetan gertatzen denari kontrajarririk; eta lurralde desoreka handia dagoela zerbitzu horien kopuruari dagokionez. Azpimarratzen dituen alderdietako bat da eskaintza publiko handitzen dela haurren adina gora doan neurrian, 3 urtetik hasita.

Hezkuntza sektore honetan, orain arte behintzat, eskaintza pribatua munta txikiagokoa izateko arrazoa, berriz, pizgarri ekonomikoen falta izan da, bereziki biztanle gutxiko eremuetan; hau da, etekin handirik ez dela izanen aurreikustea.

Administrazioek haurren eskubideak aintzat hartzeak, eta eskolatze behar horri erantzun zuzena emateko jarduteak –lege indardunek aukera ematen baitiete– alda dezakete oso pozgarria ez den etorkizun hori, Espainiako hezkuntza legeak,

(8) M. J. González López. "Servicios de atención a la infancia en España" 1/2003 11an agiria (Fundación Alternativas).

oro har, ez baitira diruz behar bezain ongi hornituta izan egungo beharrei erantzuteko, eta are gutxiago etorkizuneko. Adingabeen eskolatzeari egiazko eskubidea baino eskubide formala denez, haur hezkuntzako sistemak baliabide urriak ditu eta, gainera, administrazioen eskumenen arteko mugak ez daude oso argi ezarriak. Faktore hori lagungarria izan da -haren iritziz- egoera desberdin ugari sor daitezela bai udaletan bai probintzietan.

Haren iritziz, "zaintzarako zerbitzuen eskasiak familiarren mendekotasuna sustatu eta generoen arteko berdintasun eza berragerrarazi egiten du. Ekonomikoki eskuragarriak diren zerbitzuak gartzak, ordea, hainbat xede betetzen du: banakako eskubideak sustatu, gurasoek lan merkatuan parte hartzen lagundu, familiakoek edo etxeko langileek egun orduka betetzen duten lan ez-formala merkatura eramanez eta, horrez gain, enplegua ugaltzeko ondorioak sor ditzake. Enplegua ugaltzeko ondorioa zaintzako zerbitzuetan langileak kontratatuz sortuko litzateke, amen enpleguaren alde egin eta "dirusarrera bikoitzak dituzten familiek" (bi gurasoak lanean) zerbitzu gehiago eskatzea sustatzeaz batera.

Europar, zerbitzuen eskasiari aurre egiteko erabili diren joera berrienak bi ildotan banatu daitezke, orokorrean ikusita: seme-alaba txikiak dituzten familiei sostengua ematea laguntza ekonomikoaren bidez (zerga arintzeak edo ordainketa erregularrak) batetik, eta haurrentzako zerbitzuen garapena zuzenean sustatzea, bestetik. Haurrentzako zerbitzuen eskasia egoera kontuan harturik, familiei emandako laguntza oro positiboa da. Hala ere, zerbitzu publikoak sustatzeko aukerak eragin banatzaile handiagoa izan dezake familietan, agin gabeko guztiek kalitatezko baldintza gutxieneko batzuekin bereganatzen dutelako eskolatzeko eskubidea. Dirulaguntzek, ekintza bide bakar gisa baliaturik, eragin desberdina izan dezakete familiarren errentaren eta emakumeak lan merkatuan duen tokiaren arabera.

Eta hala da, baliabide gutxiago dituzten familiei dirulaguntzak emateak berarekin dakarrelako familiarren esku uztea sektore pribatuan soluziobideak bilatzeko ardura, eta erabiliko litzatekeen irizpidea izatea ahal diren kostu txikiak izatea edo familiarak bere gain har dezakeen kostua. Horrela jokatuz gero, "herritar txikienei" ez zaie bermatzen aukera berdintasuna hezkuntzaren arloan, eta, hitz batez, horixe izan beharko litzateke gizarte politiken egiazko lehentasuna.

Azkenik, haur hezkuntzako sistema publiko kalitatezkoa familiarren txirotasunaren kontrako estrategia bihurtu daiteke, etorkizuneko belaunaldiak hezteko eta prestatzeko aukera berdintasunezko tresna baten lana betetzen duelako; horren ezean, aukera horiek oso urriak izanen lirateke egungo dinamika demografikoa dela eta."

Lehen haurtzaroko arreta zerbitzuak etorkizuneari garatzeari begira, lehenengo eta behin eskola mapa bat egin beharko litzateke, ikastetxe publiko eta pribatuetan, haur hezkuntzako tokien eskaintzari buruz Oitk 3 urtera bitarteko multzoan, adinen eta udalen arabera zehazturik. Udal mailako eskola mapa horren berri eman beharko litzateke hezitzaileei, ukitutako administrazioei eta ikeritzaileei, oro har, eta zeregin horretan Foru Gobernuak Hezkuntza Departamentua aritu beharko litzateke buru, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioarekin elkarlanean, beharrezkoa bada, azken hori arduratzen baita hezkuntza arloko estatistikak zentralizatzeaz.

Era berean, garrantzitsua da argi edukitzea zein den egiazko eta ezkutuko eskaera lehen haurtzarorako zerbitzuen arloan. Informazio hori eskuratzeko bide bat izanen litzateke titularitate publikoko ikastetxeetan dauden itxaron zerrendak (izena eman eta tokirik izan ez duten haurrenak) nahitaez argitaratzea.

Hirugarrenik, hobetu beharko litzateke zerbitzuen kudeaketa publikoaren gardentasuna, herritarrek ezagutu dezaten zein den administrazio bakoitzak hartutako konpromisoa, haietako bakoitzak izanen dituen ahalmenak eta zer ekarpen egiazko egiten ari diren. Gardentasun hori hobetu eginen litzateke konpromiso zehatzak ezarri gero tokiko gobernuak edo/eta foru gobernuak biztanle kopuruaren arabera bere gain hartu beharko litzatekeen gutxieneko inbertsio egonkorren inguruan. Horrela, lurralde ekitatearen aldeko politikak ere sustatuko lirateke, zeren biztanle kopuru berdinari aurrekontuko ahalegin berdina eginez erantzun beharko bailitzaike. Zentzu horretan positiboa litzateke halaber administrazio bakoitzak haur hezkuntza ikastetxeen kudeaketan eta mantentze-lanetan urtean eginiko inbertsioen portzentajea ezagutzera ematea. Gai honetako adituen iritziz, haur hezkuntzako sistemaren egiten diren inbertsioak ez lirateke izan beharko barne produktu gordinaren ehuneko batetik beherakoak, baina kopuru horretara bakarrik iristen dira Danimarka eta, behar bada Suedia<sup>(9)</sup>; bestalde, kostuen banaketa honakoa izan liteke: heren bat familiek eta bi heren

(9) Tietze et al. 1999.

sektore publikoak, salbuetsirik utziz gutxieneko dirusarrera maila jakin batetik behera dauden familiak.

Administrazioek arlo honetan izan beharreko eskumenei dagokienez, berriz, abiapuntutzat har dezakegun ideia da positiboa dela haurren eskolatzeari sustatzeko politika eta ekimen anitzak izatea. Alderdi negatiboa, aldiz, zerbitzuak hornitzeko garaian lurraldeen artean dauden desorekek egun hartu duten neurria litzateke. Desoreka horiek bideratzeko modu bat<sup>(10)</sup> izanen litzateke tokiko gobernuei (udalei), hau da, herritarrengandik gertuen dauden gobernu esparruei, zerbitzuen eskarrei erantzuteko ekintzarako aukera handiagoak ematea, aurrekontu bereziak bereganatuz edo kudeatuz. Tokiko gobernuek, gehienetan, hobeki ezagutzen dute euren populazioaren errealitate soziodemografikoa eta zerbitzuak kudeatzeko beharrak zein diren.

Tokiko gobernu horiek, gainera, jokaleku egokiagoan daude hurbiltasunezko zerbitzua emateko eta gurasoek hezkuntza erkidegoan parte har dezaten laguntzeko. Horrek ekarriko luke, besteak beste, udalak baliabide berariazkoek hornituko litzaketan tresna ekonomikoari heldu beharra.

Haur hezkuntzako lehen zikloa irakasten den ikastetxe publikoetan sartzeari dagokionez, sartzeko irizpidea familiaren errentan oinarritua izateak, ohikoa den bezala, alderdi negatibo asko ditu, dirusarrera bikoitzak dituzten familien kontrako bereizkeria dakar, ez du sustatzen emakumeen enplegua, dirusarrera txikiko giza taldeak biltzea eragin dezake eta ez da lagungarria familia eta lana uztartzeko.

Ikastetxe publikoetara sartzeko irizpideak errealitate sozialera egokitu beharko lirateke eta familiaren errentaren muga altuago jarri lan ordainduak dituzten amei ere aukerak emateko. Sartzeko irizpideak zabaltzearen ondorioz eskaera handiagoa izanen litzateke eta beharrezkoa, beraz, eskaintza ere handitzeko konpromiso egiazkoa onartzea.

Azkenik, eskolatzeari goiztiarrak aldeko iritzia biltzen ditu, lehendabiziko haurtzaroko garapen sozioemotional eta kognitiboaren aldetik onura asko dakarrenez, baina onura horien inguruan zalantza handiagoak daude urtebetetik beherako umeen kasuan. Hori dela eta, ona litzateke aitak nahiz amak seme-alabak amatasuna edo aitatasunagatiko baja ordaindua eskatu eta hartu ahal izatea egun amari, amatasunagatiko baja dela eta, dagozkion 16 aste horiez gain.

Testuinguru honetan, alegia adingabekoarenak batetik -0tik 6 urtera bitarte prestakuntza integralaren ezaugarriari erantzun beharra eta berariaz 3 urte bete arte- eta bestetik familienak -familiarren premien eta haurren hezkuntza premien arteko orekaren alde hobekien eginen duen eredu hautatzea- osatutakoan, administrazio publikoentzat eta gurasoentzat erreferentzia garrantzitsua da, dudarik gabe, eredu hurbil bat izatea eta bilakatzeari, Iruñeko haur eskolena alegia, azken hogeita bost urte hauetan etengabe hazi eta sakontzen joan den esperientzia, udalaren eskutik.

#### IRUÑEKO UDALAREN HAUR ESKOLEN ERE-DUA

“Haurren eskubideak berreskuratu nahi dituen hezkuntzaren kultura bat, gizarte osoa eskubide horien partaide egiteko asmoz”

Erakunde autonomoaren izaerarekin, barne identitatea dute, Iruñeko nahiz Nafarroako beste eskola batzuen antolakuntzatik bereizirik. Haien ezaugarri administratiboaren aldetik, eskola hauek duten eginkizun nabarmen bat da zuzendaritza batzordeak onartzen duela eskolatan bete beharreko ildo pedagogikoa.

Eskolen berezitasunari dagokionez, une historiko bat da 1979an onetsi izana eskolen “ildo pedagogikoa” eta udal patronatu bihurtu izana 1983ko abenduan; horrek argi eta garbi eskolak ikastetxe izatearen aldeko erabakia eta hautua sendotu zuen, bai eta arlo honetan zeuden joera aurreratuena aplikatzeko ideia ere, Loris Malaguzzi, Reggio Emiliako (Italia) haurrentzako udal eskolen sortzaile filosofiko eta pedagogiko italiarra zabaltzen ari zen hezkuntza proposamenak zuzenean ezagutu ondoren.

Urte hauetako esperientziak pedagogia eta metodologia aberatsa eta konplexua ekarri ditu, nekez inprobisatzen dena eta dedikazio handia eskatzen duena, bai profesionala bai bokaziozkoa. Ildo pedagogiko horren oinarriak printzipio hauek dira, besteak beste:

- Umearen irudi aberatsa. Ahalmenez beteriko umea, ahuleziaz, pobreziaz eta gaitasun faltaz eraturiko irudiari kontrajarria. Jaiotzetik, gaitasuna duen umea, errealitatearen irakurle eta eraikitzaile aktiboa; bere historiaren aktore eta protagonista, helduekin eta bere adin berekoekin aritzeko eta haiengan eragiteko gauza dena.

(10) M.J. González López. *Ibidem*.



- Jakintza eraikitzeak aukera emanen dion pedagogia behar duen haurra, jakintzaren jasotzaile pasibo hutsa bilakatuko ez duena.

- Familia integratuaren kontzeptua, eskolarekin bat egina.

- Harremani dagokienez, banakakoen isolamenduak gaudituko dituen pedagogia, bai erakusten duenaren ikuspuntutik bai ikasten duenarenetik.

- Haurren ehun lengoaien teoria, haurren irudi aberatsa, baikorra eta gaitasunez jantzia dakarrena.

- Modu aktiboan entzutea, haurren kultura behatu eta ikertzeko jarrera iraunkor gisa.

- Dokumentazioa izatea haurren ikaste prozesuak aztertu eta baloratzeko gako eta haurren alderdi ezezaguna ulertu eta ezagutzeko bidea.

- Sormena haur txikien ondare garrantzitsua ere badela konturatzeko.

- Espazioaren eta giroaren kalitatea "isileko hizkera" gisa, ideiak, sozializazioa, proposamenak eta ongizatea iradoki ditzakeena eta "hirugarren hezitzailea" izan daitekeena, hezkuntza bikotearekin batera.

- Antolaketa kalitatezko proiektu pedagogikoren parte erabakigarritzat hartzea, ez kudeaketa huztat.

- Langileen prestakuntza, hezitzaileek beraiek sortzen duten jakintzaren eskutik batez ere.

- "Tailerra" eta "tailerreko irakaslea", osagai berritzaile eta funtsezkoak arteaz, estetikaz, ikerketaz eta sormenaz arduratzeko.

- Pedagogiaren ideia hurbilago dago proiektu batetik -haurren ezagutzaren bilakaeraren zalan-tzekiko sentiberagoa- programazio batetik baino, azken hau nahitaez gertatu behar denari xehetasunekin aurreratzea dela ulertzen bada.

- Eskola atsegina, hau da, Malaguzziren iritzi eskola langilea, sortzailea, maitagarria, dokumentatu eta kontatzen duena, komunikatzen duena, esparru alai, ikerketa leku bat, etengabe ikasten egotekoa, hausnartzeko eta kulturarako gunea, haurrak, profesionalak eta familiak gustura egoteko modukoa.

#### Hezkuntza erakundea

Iruñeko Udalak, udalaren haur eskolen erakunde autonomoaren bitartez, horrelako bederatzikastetxe ditu bere menpean, hiriko beste hainbeste tokitan kokaturik:

Haur eskolak	Helbidea	Helbide elektronikoa	Telefonoa
HAURTZARO	Artika, 1 bis.	eimhaurtzaro@animsa.es	948 145607
ARROTXAPEA	Arrotxapeko Juanito z/g (Arrotxapea)	eimrotxapea@animsa.es	948 144426
EGUNSENTI	Miravalles, z/g	eimegusenti@animsa.es	948 146928
IZARTEGI	Marcos Goñi, z/g	eimizartegi@animsa.es	948 123817
PRINTZEAREN			
HARRESIA	Blas de la Serna, 61 bis	eimprintzea@animsa.es	948 247788
ARROSADIA	Irati erreka, 7	eimmilagrosa@animsa.es	948 235171
DONIBANE	Ekoiengo mon., 1	eimdonibane@animsa.es	948 269155
MENDEBALDEA	Iruñeko Premin pasealekua, 1	eimmendebalde@animsa.es	948 270558
MENDILLORRI	Egulbati jaurerria, 26	eimmendillorri@animsa.es	948 162567

Eskola horiek 0tik 3 urtera bitarteko zikloa hartzen dute, 1990eko urriaren 3ko Hezkuntza sistemaren antolamendu orokorrari buruzko Lege Organikoak hezkuntza etapatzat hartzen duen 0tik 6 urtera bitarteko ziklo osoaren barruan.

Patronatuko eskola guztiak eraikin independenteak dira, solairu bakarrekoak, inguruan patioa eta lorategia dutenak. Barneko egitura hauxe da:

- Komunak
- Sukaldea
- Ikuztegia
- Biltegiak
- Bulegoak eta bilera gela.
- Haurren paseo-aulkien gela
- Adierazpen tailerra
- Ikasgelak: sektore bakoitzeko ikasgela bat, honakoekin:
- bainugela
- tailer txikia
- jantokia
- logela

Kanpoko egituraren honakoak daude:

- Kanpoko patioa, eta bertan harria dagoen aldea eta belardi bat. Eremu horretan beste eremu bereizi bat dago haur txikienentzat.
- Patio estalia
- Patioko biltegia

#### **Antolaketarako egitura**

Iruñeko Udalaren haur eskoletan haurren taldeak egiten dira ikasturtearen hasieran duten adinaren arabera; urtero, abuztuan:

Taldeak	Adinak	Hezitzaileak
Titikoak	3 hilabetetik 10 hilabetera artekoak	2
Ibiltariak	11 hilabetetik 19 hilabetera artekoak	2
Erdikoak	19 hilabetetik 23 hilabetera artekoak	2
Lorategia	24 hilabetetik aurrerako haurrak	2

Antolaketa modu hori eraikinaren egituraren arabera alda daiteke. Beste datu funtsezko bat hezkuntza bikotearena da, ikasgelako jardunarekin zerikusia duten gai guztietan analisirako eta eztabaidarako ezinbesteko elementua delako. Aurrerago mintzatuko gara horretaz.

#### **Irakasleak eta irakasleak ez diren langileak**


Haur eskola bakoitzean bi hezitzaile daude ikasgelako edo haur sektore bakoitzeko. Haietako bakoitzak ordutegi desberdina du, eskola irekita dagoen ordutegi osoa hartu ahal izateko. Eskola bakoitzak bere arduraduna du. Zerbitzuetako langileak eskola garbitzeaz eta bazkaria prestatzeaz arduratzen da.

Langileei dagokienez, eskola bakoitzeko hauek ohi dira, batez beste:

Irakasleak	8 hezitzaile Ikastetxeko zuzendaria
Irakasleak ez direnak	sukaldari 1 Sukaldeko laguntzaile 1 Garbiketako 2 laguntzaile
Langileak, guztira	13

Ikastetxe bakoitzeko langileez gain, ikastetxe guztietarako lan batzuk betetzen duen talde bat dago:

- Administrariak
- Gizarte langilea
- Adierazpen tailerretako koordinatzailea
- Talde teknikoa
- Pediatra
- Psikologoa
- Kudeatzailea

**Iruñeko Udalaren Haur Eskolen organigrama****Proiektuaren oinarriak****1. Haurren irudia**

Iruñeko Udalaren haur eskolen proiektuan, ardatz nagusia haurren irudia da. Irudi hori aha-  
legintzen da haurren kultura agerian uzten eta adi-  
tzera ematen; kultura hori ez dago kulturaren eta  
gizakiaren kontzeptuetatik isolaturik eta harreman  
sistema bat eratzen du horiekin. Irudi horren ingu-  
ruan gauzatzen dira plangintza, bizipen, emozio,  
ezagupen, elkarrekintza eta kontrajartze guztiak,  
harremanen, entzutearen, behaketaren, dokumen-  
tazioaren pedagogia egiteko, irudi horren eragina  
jasotzen duen espazio eta giro batean.

Irudi horrek bizirik mantentzen duen ideia da  
estatus berezi bat egon behar dela haurrentzat,  
J.J. Rousseauk zioen bezala: naturaren nahia da  
haurrak haur izatea gizon izan baino lehen, eta  
bera duten ordena naturalean bilakatzea eta  
garatzea, errespetatu beharreko erritmoan, bizitza-  
ren etapa bakoitzak komeni den perfekzioa eta  
heldutasun mota berezkoa dituelako<sup>(11)</sup>.

Era berean, Loris Malaguzziren ideiak haur  
eskolen proiektuaren garapenean daude, bereziki  
haurraz gizarteak duen irudia, gaitasunez gabetu-  
arena -laguntzaren inguruko ikuspegi tradizionala-  
ren abiapuntua- eta gaitasunez jantziriko haur  
baten irudia kontrajarririk daudela adierazten due-  
nean. Iruñeko Udalaren haur eskolen hezkuntza  
proiektuaren egileek gogorarazten dutenez, Mala-  
guzzik haurrentzako identitate bat bilatzen tematu  
zen, haurraz ematen den babesgabeziako irudia-  
ren kontra argi eta garbi. "Izan ere, haur gabetu  
bat, bereizkuntzarik eta kalitate, sexu, eginkizun  
eta historiarik gabea –eta horrela, paradigma gisa  
hartua– defendatzerik ez dago.

Nahi duzun tokian dago, nahi duzun bezala  
deskribatzen duzu, edozein teoria edo aplikazio  
pedagogiko jasan dezake, bateragarri agertzen da  
prestakuntza eta ordainsari eskasak eta ospe  
eskasagoa duten maisu-maistrekin eta beti –ez  
naturak hautatuak– emakumezkoak diren hezitzaile-  
leen eskuetan utzitako erakundeekin."

(11) *Ajuriaguerra neuropsikologoaren azterlanetatik aterea. Madril, 1977.*

Iturburu beretik sortzen dira ereduaren printzipioetako batzuk, gaitasunak dituzten haurren irudi baten bila:

- “Lehenbiziko eginbeharretako bat da identitate historikoa ematea mendetan zehar tratatu txarrak jasan dituzten haurrei, helduak haurrari harrotasunez eta nagusikeriaz ezarritako kulturaren ez-ikusia pairatu duten haurrei”

- “Guk gizonaz, emakumeaz, bizitzaz eta munduaz dugun kontzepzioetik bereizirik ez dagoen irudia, eta ezin dena bereizirik egon”

- “Haurraren irudia da bizi batasun eta osotasun irudi bat, ahal den gehiena bere hanken gainean ibiltzeko eskubidea eskatzen duen haur batena”

- Identitatea praktikatik ematea eskatzen duen haur bat, “praktika delako teoriaren gaineko lehen-tasuna ezarri behar duena, praktikak baitago jokoan gizakiaren eta gizateriaren etorkizuna”

- “Haurraren heldutasun falta ez da ezintasuna, aukera eta hazteko ahalmena baizik”

Haurra ikusi behar da “inguruarekin batera berehalakoan ekiteko prest dagoen subjektu bat, eman eta jasotzeko, bere ondarea garatzeko ingurunearekin harremanetan jartzen den bitartean. Hautatzen duen eta bere hautuen erantzukizuna modu aktiboan bere gain hartzen duen subjektu bat”

#### Haur konstruktibista bat.

Haurra konstruktibista da: bere hezkuntzaren protagonista da, haurrek probatu, aurkitu, bilatu behar dutelako. Ahaleginaren, bilaketaren, azken finean ezagutzaren gozamenaz eraikitzen dute.

Haurrek batera eraikitzen dute ezagutza, haien artean eta helduekin eztabaidatuz eta mintzatuz. Harremanaren pedagogia esaten zaio horri. Bakarrik edo gauzekin bakarrik lan egiten ez duen haur baten ideia da. Haurrek zentzua aurkitu behar diote egiten dutenari. Haurrak berez aurkitzen duenean esanahi bat poz berezia sentiitzen du. Haurra esanahi-ekoizlea da. Ikertzean bilatu eta aurkitzen dituen esanahiak. Emozio horrek hazi, ikasi, hezteko grina eragiten du<sup>(12)</sup>.

Merkatu horretan, haurrek ikasteko aukera dute. Ikasketa hori eraikitzen da ezberdintasunen bitartez, gatazken, tentsioen eta haurrek besteekin

duten harreman solidario eta bereizkuntzazkoan antzematen dituzten ikuspuntu intersubjektiboen desadostasunen bidez.

Era horretan haurraz sortzen den kontzeptua da haur aberats batena, uste baino askoz argiago, pentsa zitekeen baino askoz gaitasun handiagoa duena: “horren ondorioz, haurra prestatu behar duen heldua ere aberatsa izan behar dela gaitasunetan, talentutan, prestakuntzan, eta gizarteak oraindik onartu nahi ez duen aldaketa bat dakar” (Malaguzzi, 1989).

#### Haur elkarreragilea eta solidarioa

Trevarthen (1986) ideia batzuk hartuta, Malaguzzik kontatzen du jaioberriak elkarrekintza aktiboa ezartzen duela, bularra hartzean ere. Haren begiradak, haren begiek eta xurgatzeko moduak erritmoa ezartzen dute, eta ama edo, biberioa emanez gero, beste pertsona bat, partaide da horretan, txandaka. Haurra gauza da harreman aktibo bat ezartzeko mintzakide bat baino gehiagorekin. Ideia hori sozializazioaren kontzeptutik haratago doa. Elkarrekintza sistemiko eta ekologikoa da, Malaguzziren iritziz haurra jaiotz geroztik delako gai lotura adierazgarriak ezartzeko pertsona bat baino gehiagorekin.

Malaguzziren ustez subjektu elkarreragilearen ideia da haurra partaide aktiboa dela berehala gainerako adimen, gizarte eta maitasun bizitzetan. Elkarrekintza, batez ere, bestearekiko begirunea da. Gutaz bestelakoa den bestearekiko errespetua. Haur elkarreragile horrek amaren eta umearen arteko harreman klasikoaren ideia tradizionala puskatzen du.

Haur horrek, beraz, eskubidea du maitasuna jasotzeko helduarengandik, segurtasuna emateko, erreferentzia izateko eta maitatzen erakuts diezaión. Gai den haur bat. Harremanetarako eta elkarrekintzarako gai dena. Munduan eraikitzen duen bidenabar eta munduak bera eraikitzen duen bidenabar bere burua ere eraikitzekeo gai dena.

#### Gaitasun genetiko handiak dituzten haurrak.

Ereduaren abiapuntua da pentsatzea haurra gaitasun biologiko eta neuronazko handiekin jaiotzen dela. Haurrari lagundu egin behar zaio ahalmen horiek garatzen eta adierazten, betiere haurra dela errespetatuz eta heltzeko erritmoak hautsi gabe, presarik gabe eta estimulazio goiztiarreko programa desegokirik gabe.

(12) Loriz Malaguzzi.

Haur aktiboak eta parte-hartzaileak

Helduek noiz eskatu zain egon gabe ekiten duen haurra da. Bere ikaste prozesuen partaide aktiboa izatea atsegin zaio. Bereak diren gaietan parte hartu eta sartzeari gustukoa du. Haurraren irudi hau aldentzen da haurra zerotik hasten dela dioten beste kontzeptio tradizional horietatik. Malaguzzik dioenez, haur hori gogaikarria eta zirikatzaila da, bere interesekoa bilatzen duena, maisu-maistraren interesak alde batera.

Haur konplexu bat

Haurrak konplexutasuna maite du, harreman osagarriak ezartzea bera gorputzez dagoen gertaeretatik urrun eta hurbil. Bere ahalmenetan eta gaitasunetan sakonago jotzera daramaten konplexutasunen arabera bilakatzen den haur bat.

Haur baikorraren irudia

“Baikortasunik gabe hezterik ez dago -aipatzen du Iruñeko Udalaren haur eskolen proiektuak-. Haurrek erakusten digute ikasi daitekeela pozaz, harriduraz, umoreaz eta ironiaz baliatuz. Haurrek hamaika poz dituztelako kantatzeko... hamaika poz amets egiteko... Pozik eta miretsirik ulertu ahal dute mundua, Aste Santuan eta Eguberrietan ez ezik egunero ere, eta jolasa eta lana uztar daitezkeela.

Aurrez ezarri gabeko haurra, zalantzazkoa<sup>(13)</sup>

Malaguzziren etikaren oinarrian dagoen ideia da gizakia zehaztu gabe egoteak agerian uzten duela haren garapenaren zalantza. Beraz ez da bidezkoa zedarritzea definizio eta jokaera murriztaileekin, programazioekin edo norabide bakarreko igurikimenekin. Zalantza eta konplexutasuna maite zituenez, ez zuen onartzen azterlan psikologikoen linealtasuna, ez eta haurra kontzeptu negatiboen bidez edo haren gaitasun ezaren bidez definitzea ere. Haren iritziz haurtzaroa susmatu gabeko aukeren abentura garaia da, etengabeko aldaketei irekitako osatugabea.

Autonomiaz eta erantzukizunaz jantziriko haurra

Orain arte defenditu dugun haurraren irudia ezin da ulertu pentsatu gabe haurrak gaitasun autonomo handiak dituela berez ikasteko eta ikas-

ten ikasteko. Ildo berean, badaki bere erabakien erantzule izaten. Egunero, haurrek autonomiaz eta erantzukizunez egiten diete aurre horrelako erabakiei. Bere bizitzari zentzua emateko gai da haurra.

Alderdi horiek guztiak eguneroko jardun pedagogikoak eta haurren autonomiaz eta antolaketa-rako gaitasunaz egiten diren ikerlan guztiek berresten dituzte. Horren inguruan, ikusi besterik ez dago Izartegi haur eskolak, gure eskolen adibide bat emateagatik, eginiko ikerketak: “Nire argazki-ipuina” (1994-95) eta “Tailerra” (1996-97). Bertan, besteak beste, ustez konplexuak diren eta gurasoek nekez aurreikusten dituzten egoeretan auto antolatzeke haurrek duten gaitasuna ageri da.

Emozio horrek hazi, ikasi, hezteko grina eragiten du. Emozioak ezabatzen du indiferentzia, hau da, Malaguzzik eskoletatik eta berarengandik ere, minbizia balitz bezala, aldenarazi nahi duena.

Apustu horri esker sinets dezakegu, itxaropenaz, hurrengo belaunaldien etorkizunean. Horretarako haurraren eta gizakiaren irudi sendoa behar dugu, haien ahalmenak sormenez erabiltzeko gai izanen diren haur eta gizakiak, naturarekin bat eta agintekeriarik gabe. Naturak berak ematen dizkigun baliabideak hobeki erabili behar ditugu.

Itxaropen horrekin zerikusit handia dute haurrek, ezagutzak euren kulturaren bitartez berrasmatu ditzaketelako, “gauzei itxura ematen gauzek haurrei itxura eman aurretik”. Haurrek ikuspuntu berri bat eman ahal digute geure munduaz. Malaguzziren ideia ospetsu hori da, etorkizun-minari buruzkoa alegia. Etorkizuneko malenkonia dinamiko gisako bat, barre egiten duena izan zitekeen, ez den baina izan daitekeen horretaz.

Hari horretatik sortzen da Malaguzzirengan bere ziurtasun gutxietako bat: etorkizun bat haurrekin, haien ideiekin eta haien kulturarekin, proiektatzeko itxaropenean oinarrituriko ziurtasuna. Esperoan egoten dakien eta askoren esperoan dagoen haurra, dakiena eta jakin nahi duena esan nahi diguna, harritu eta liluratu nahi duenaren indarrarekin eta aberastasunarekin. Haurra, gizateriaren itxaropena. Balio-eramailea eta etorkizun-eraikitzailea den haurra, tinko eskatzen duena bere identitatea eta guzti errespetatu eta balioets dezaten.

(13) Testu honetan oinarrituta: Hoyuelos, A., “Loris Malaguzzi. Pensamiento y obra pedagógica”, Cuadernos de Pedagogía (2001eko azaroa), 52-57 orrialdeak.

### **Haurren, gizakiaren eta eskolaren kultura**

Iruñeko Udalaren haur eskolen ereduak jarrera argia hartzen du ondoko dilemari buruzko betiko eztabaida pedagogikoaren aurrean

a. Hurrek euren kultura duten, hau da, euren ideiak, jokabideak, sinismenak, sinboloak, balioak, ohiturak etab. Eta kultura hori nola erlazionatzen den eta nahasten den helduen kulturarekin, eraikitzen dugun eskola ez den gizarte ereduaren errepikatzailea, baizik eta kultura sortzailea eta gizartea eraldatzeko funtsezko tresna bat.

b. Eskola kultura nagusiaren errepikatzailea den edo, aldiz, gizartea eraldatzeko kultur eragilea den, irmoki baieztatzen dela eskola ezin dela izan gizarte ereduaren errepikatzeke toki bat, kultura sortzaile bat eta gizartearen eraldaketarako eragile funtsezkoa baizik; horrekin batera defendatzen dute haurren berezko kultura, eta kultura horrekin gurea ere kutsatu dezaketela, helduekin harreman adierazgarriak sortuz –agintekeriari eta hierarkiarik gabe.

Nolanahi ere, printzipio adierazpen horrekin ere, bada oraindik<sup>(14)</sup> haur gabetuaren irudikapen sozial bat, bat ez datorrena aurrerapen zientifiko, psikologiko eta pedagogikoekin. Adostasun teoriko handia badago ere, intentsitate praktikoa txikia da, zaila delako lehendik zabalduz dauden kontzeptioak, ohiturak eta aurreiritziak aldatzen.

Eredu hau bultzatu duten irakasleen iritziz, oso ohikoa da gizarte eta giza zientzien aurkikuntzek eta aurrerapenek ez izatea eragin berehalako eta erabakigarri eztabaidetan eta iritzi publikoan. “Haurrak garrantzi sozial gutxiko subjektutzat hartzen dira oraindik, ez baitute berez eskubiderik: beste batzuk mintzatu behar dira haien izenean. Horrela, helduen gaitasunak eta ulertzeko moduak ezartzen dute haurren gaitasunaren ezberdintasuna”<sup>(15)</sup>.

Haurrak gizartearen talde bereizi baten parte dira: “oraindik ez” izenekoak.

Casasen arabera (2002, 33. or.). haurren irudikapen soziala da hurrei “oraindik ez” deitutakoan irudi soziala atxikitzen diena: oraindik ez dira helduak, oraindik ez dira erantzule, oraindik ez dira gai, oraindik ez dira autonomo, oraindik ez dituzte eskubide berberak, oraindik ez dute bereizkuntzarako gaitasunik.

Hartara, haurrak (batez ere lehen haurtzaroan daudenak), kultura gisa ez dira –gizartearen ikuspegitik– lehentasunezko gai bat, ez da oraindik guztion arduratzat hartzen, eta kezka eragiten du etorkizun aldetik (haurrak gazte edo heldu direnean) orainaren aldetik baino.

Hitz batez, haurren eskubideak berreskuratu nahi dituen hezkuntzaren kultura bat, gizarte osoa eskubide horien partaide egiteko asmoz.

### **Haurren arkitektura**

Modeloak arretea berezia, ia nagusia, eskaintzen dio ikastetxea kokaturik dagoen tokiari eta barne banaketari, haurren ezaugarrietara eta haren garapenera egokitu behar delako tokia, eta ez alderantziz.

Horrexegatik –aipatzen du–, oso beharrezkoa da haurraren irudia, pedagogoa eta arkitektura bat etortzea; jardun pedagogikoan eragiten du horrek. “Maiz –jarraitzen du–, diseinatzen diren haur eskolen neurriak, talde bakoitzarentzat, familia txikiarentzat asteburuarentzat edo opor motzetarako hondartza ondoan edo mendialdean eraikitzen diren apartamentuenak bezalakoak dira. Berrogeita bost metro koadro aski izanen dira horretarako. Ez ordea urtebetetik beherako 14 pertsonaz edo hiritik beherako 32 pertsonaz, gehi hezitzaileak, osaturiko taldeen etxea eta eskola izateko.

Idea horretan sakonduz, eta horren ondorioz, ereduak espazio-giroaren erlazioari heltzen dio. Eraldatzen gaituen eta guk, bertan bizi garen neurrian, eraldatzen dugun gure ingurunearekin komunikazio iraunkorra indar kultural bat da, diziplinarteko alderdi bat, ikuspegi askotatik begiratu beharrezkoa: zientifikoa, ekologikoa, politikoa, artistikoa, demografikoa, hirigintzazkoa etab.

Gaiaren koska bizitzeko moduan datza, alegia gizakiaren eta lurraren artean bizi harreman bat ezartzean. Hezkuntzaren ikuspegitik, afera hau espazioak, materialak eta denborak antolatzeaz haratago doa. Hori dela eta, helburua da jolastu, barre egin, elkar maitatu, elkartu, galdu, bizitzeko toki bat proiektatzea. Haur bakoitzak bizitzeko espazio bat bilatuko duen toki bat, euren beharrei arlo guztietan: fisiologia, maitasuna, autonomia, sozializazioa, mugimendua, adierazpena, esperimentazioa, aurkikuntza-erantzuna ematen zaien toki.

Haur eskolen eredu horren ikuspuntutik, espazioak ez dira inoiz neutralak. Giroaren diseinu edo

(14) Casas, 2002.

(15) Iruñeko Udaleko Haur Eskolen hezkuntza proiektua.

soluzio zehatz bakoitzaren atzean hura oinarritze-ko filosofia bat egon behar da. Horregatik ulertzen da espazio-giroa hezkuntzaren arloko faktore nagusietako bat dela haur eskola horietan eta, halatan, zaindu eta planifikatu egiten da, kontuan harturik, azaldutakoez gain, honako alderdi hauek ere:

- Haur eskola bakoitzaren identitatea bilatzea, eredu instituzionalen estandarizazioak dakarren murriztapenera jo gabe.

- Haur bakoitzaren eta haur talde bakoitzaren identitatea islatu behar du eta haien autonomia sustatu behar du.

- Eskolaren eremu guztien arteko komunikazioa erraztu behar du, espazio malguak eratuz.

- Dauden espazio guztien erabilera bultzatu behar da, haurrentzako zentro bat bere osotasunean ulertuz eta bertan gertatzen den guztia garrantzitsua dela pentsatuz.

- Haur eskolaren gardentasuna eta haren kide diren eragile guztien arteko komunikazioa –haurrak, gurasoak, langileak eta gizartea– lortzeko bide emanen duten baliabideak bultzatuko ditue-na.

### **Hezkuntza bikotea**

Eredu pedagogikoaren barrenean, “hezkuntza bikotea” izeneko erabiltzea elementu adierazgarrienetako bat da, haurren nortasuna sustatzeari begira egiten den adierazpen tailerrarekin batera.

Hezkuntza bikoteak –bi hezitzailek osatua– tutoretza lana betetzen du elkarrekin haur talde batean. Jarduteko modu hori aberatsagoa da, hezitzaileen artean eratzen den harremanaren

aldetik (iritzi, emozio, ikuspegi, asmo trukaketa, etab.) eta hezitzailearen eta haurren artean eratzen denaren aldetik ere (hautaketarako, jarduteko moduetarako aukera gehiago...).

Antolaketari dagokionez, lan egiteko modu anitz izatea ahalbidetzen du (talde handia, txikia, banakako arreta...) eta hezitzaile bakoitzak, unean-unean, eginkizun desberdinak hartzea bere gain (behaketa, datu bilketa, eginkizun banaketa...).


Hezkuntza bikoteak urratu egiten du irakasle batek haur talde bakar batekin izan ohi duen bakardade egoera. Horrek dakarren kontzeptua da hezkuntza truke publikoa dela, eskolan egiten den lankidetzaren lehen kate-maila.

### **Txokoak**

Txokoak “haur arkitekturarekin” eta garapen psikopedagogikoarekin loturiko funtsezko alderdie-tako bat dira. Aniztasun elementu bat dira, lan moduen inspirazio iturria. Txokoak ikasgelako toki batzuetan kokaturiko guneak dira, itxiak nahiz irekiak, eta haietako bakoitzari izaera ematen dion material anitzaz hornituak. Gune ludiko bat, non sistemaren elementu guztiek bat egiten duten.

Aukera aberastasuna duen eta bere nortasuna, besteenaz bestelakoa, zehazteko gai den haurren iruditik abiatu. Txokoak aniztasun handia eskaintzen du, haur bakoitzak aukera ditzen adierazgarrienak zaizkion elementuak eta jarrerak, modu autonomoan antolatze gaitasunarekin, beste haur batzuekin edo heldu batekin.

Adierazpen grafikoaren ikuspuntutik, txokoa haurren nortasuna eta ahalmenak sortzeko gune interaktiboa da:



Gune horri buruzko filosofia horretatik abiaturik, hauexek dira haren oinarriko ezaugarriak:

- *Txoko irekiak*, ez oso egituratuak, txokoa bes-telako gune bat bilakatzea galaraz ez dezaten.
- *Bizigarritasuna*. Segurtasuna, berotasuna, intimitatea transmititzen duena.
- *Izaera*. Txokoak irudiz eta argazkiz hornitu behar dira, gunea, materialak eta haurrak banaka eta taldeka identifika ditzaten.
- *Intentzionalitatea*. Materiala asmo zehatzekin eta ordenaturik kokatu eta aurkeztu behar da. Material ugaritasunak ez du inola ere ziurtatzen txokoaren eskaintzaren kalitatea.
- *Estetika*. Horrez gain, txokoaren materialak kokatzeko moduak intentzionalitate estetiko argia izan behar du.
- *Autonomia*. Txokoaren objektu guztiak haurren autonomiarako lagungarriak izan behar dira: materialen hautaketa; objektuen eta espazioaren eskuragarritasuna...
- *Komunikazioa*. Txokoa ez da gune isolatu bat ikasgelaren barruan, eta beraz komunikazioa egon behar da ikasgelarekin eta gainerako txokoekin, guneen arteko trukerako ibilbideak ezartzeko.
- *Aniztasuna*. Txokoan ikusten diren irudietan; espazio fisikoan: zoruan, sabaian; materialaren

eskaintzan eta jardueren eskaintzan: banakakoa, talde txikia, talde handia.

- *Komplexutasuna*. Beharrezkoa da txokoaren eskaintza ez izatea soila, aberatsa baizik, ñabardurei eta aukerei dagokienez. Zentzu horretan, garrantzitsua da sartzeko material aberatsak, merkatuan ohikoak ez direnak; material biziak eta errealak, haurraren etengabeko ikusmina piztuko dutenak.

#### **Taldeko arretaren antolaketa**

Azkenik, nabarmendu beharra dago Iruñeko Udalaren haur eskoletan haurrak talde mota batzuetan antolatzen direla eta horretarako lehen aipatu dugun hezkuntza bikotearen sistema ezinbestekoa dela, talde horietako bakoitzaren ardura-duna hezkuntza bikote bat delako (hiru hezitzaile integrazioa dagoen taldeen kasuan).

Talde bakoitzeko bi hezitzaile edukitzeak, eskoletako zuzendarien unean uneko edo noizbehinkako laguntzarekin edo proiektu zehatz batzuetarako tailerren koordinatzailearen partaidetzarekin, aukera ematen du antolaketa malgua ezartzeko eta, halatan, haurrei eskaintzeko talde txikian, ertainean, handian eta mistoan lan egitea.

Talde handiko proposamenak izaten dira, gehienetan, ikasgelan egiten direnak eta bi hezitzaileek euren taldearekin parte hartzen dutenak. Oro har, borobilean jarrita edo jolas txokoetan aritzeko proposamenak dira.



Talde txikiko proposamenak hezitzaile batek –lau, bost edo sei haurrekin– egiten ditu, adibidez, adierazpen tailerlean, jolas heuristikoarekin, altxoren saskiarekin edo eskolan egiten ari den ikerketa gai bat dagoenean. Proposamen horiek egiten dira, halaber, hezitzaile bat bainugelara joaten denean haurrak aldatzera, esfinterren kontrola egitera edo esku garbiketara egiten denean.

Talde ertaineko proposamenak egiten dira hezitzaile batek talde-ikasgelaren erdiari proposamen zehatzak eskaintzen dizkienean, hala nola ikasgelako lanak, puzzleak, ahokatze jokoak, etab.

Talde mistoan, azkenik, nahasirik dauden adin desberdinetako haurrei egiten zaizkie proposamenak. Zenbait proiektutan interesgarria da adin talde desberdinetako haurren behaketa egitea edo haien arteko harremanak erraztea.

## **5. GIZARTEA 0tik 3 URTERA BITARTEKO HAURREN HEZKUNTZA PREMIEN AURREAN**

**A. NAFARROAKO ARARTEKOAREN ERAKUNDEAK 2001etik 2003ra 0tik 3 URTERA BITARTEKO HEZKUNTZA ZIKLOARI BURUZ TRAMITATU DITUEN KEXEN AZTERKETA.**

• APLIKATURIKO BAREMOAK ETA BEHAR ADINA TOKI EZ IZATEAK ERAGINDAKO DESADOSTASUNA

Kexaren gaia zen (154/2001/4 esp.) guraso batzuek semea Nafarroako Gobernuak Sanduzelain duen haur eskolan sartzeko aurkeztutako eskaera zen.

Aipatutako departamentuak, 2001eko uztailearen 19an Familia eta Gizarte Zerbitzuen zuzendariordeak eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen institutuko Familia atalburuak eginiko txostenaren bidez, eskaerari erantzun zion, eta aurkeztutako kexa zela eta, hauxe adierazi zigun:

- “2001-2002 ikasturterako tokiak esleitzeko erabili den baremoa Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Gobernu Batzordearen 2000ko urtarrilaren 26ko Erabakiaren bidez onetsirikoa da. Erabaki horren bidez onetsi zen erakunde autonomo horren haur-eskoletan sartzeko baremoa (erantsita).
- 2001-2002 ikasturterako eskabideak entregatzeko epea martxoaren 5etik 30era bitartekoa izan da.
- Aitaren eta amaren lana frogatzeko eta, horrela, kontzeptu horrengatik esleitzen diren 10 puntuak lortzeko, eskatzen den frogagiria da bien azken nomina, eskabideak aurkezteko epearen aurreko hilabetekoa.

- Eskatzaileak ez zuen nomina hori aurkeztu, baizik eta berak izenpeturiko dokumentu bat, zeinean esaten baitu irailean kontratatuko dutela.

- Azkenik, adierazten da 2000ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 30eko 18/1999 Foru Legeak ezartzen duela Nafarroako Gobernuak 0 urte-tik 3ra bitarteko hurrendako tokien eskaintza publikoa nabarmen handituko duela 2000/2001 ikasturterako, LOGSEk gai horietan eskatzen duenari erantzuna eman ahal izateko legegintzaldiaren amaieran.

Nafarroako Gobernuak asmoa dauka Foru Komunitatearen esparruan haur-hezkuntzako ikastetxeak modu orokorrean ezartzeko 3 urteko epean, honako egutegi honi jarraituz:

1. 2000/2001 ikasturtea: lehentasunezko zatitza josten diren herrietan ezartzea, Nafarroako Gobernuak antzemandako gizarte-beharrizanen arabera.
2. 2000/2001 ikasturtea: Iruñan eta Tuteran ezartzea.
3. 2002/2003 ikasturtea: erkidego osoan ezartzea.”

Dagoen eskaerari erantzuna emateko xedez, jakinarazi zaigu ezen abenduaren 30eko 18/1999 Foru Legeak, 2000ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzkoak, hogeita batgarren xedapen gehigarrian ezartzen zuela Nafarroako Gobernuak era nabarmenean handituko zuela, 2000-2001 ikasturterako, toki entitateekin hitzarmenak eginez, 0 eta 3 urte bitarteko haurrez arduratzeko tokien eskaintza publikoa; helburua da legegintzaldiaren bukaeran bete ahal izatea LOGSEk gai horretan ezarritako egitekoak.

Xedapen horri jarraituz, eta zero eta hiru urte bitarteko haur-hezkuntzako ikastetxeak arautzeko foru dekretuak indarra hartzen ez duen bitartean, toki-entitateek sustaturiko haur-hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendu eta ekipamendurako hitzarmenak toki-entitate horiekin izenpetzeko oinarriak arautu dira, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzailearen abuztuaren 2ko 3086/2001 ebazpenaren bitartez.

Ebazpen horren azalpen zatian biltzen diren ezarpen-aurreikuspenak txostenean azaldukoen antzekoak dira; dena den, horiek egiazki gauzatea neurri handi batean izanen da toki-entitateek, azken batean, ezarpena eskatu eta kasuko lankidetzaren hitzarmenak sinatzearen menpekoa.

Beraz, ildo horretatik ekiten segitu behar da hasieran ezarritako helburua erdiesteko; alegia, ziklo hori modu orokorrean ezartzea gure erkidegoan. Horrela saihestu eginen lirateke gertaturikoa bezalako egoerak, eta gaur egun dagoen gizarte-eskaria aseko litzateke, eskari hori ezin baita ase une honetan eskuera dauden baliabideekin.

Aurrekoa ezertan galarazi gabe eta, jadanik adierazi bezala, administrazioaren ahaleginak bide horretatik egitearen aldekoak garen arren, beharrezko deritzogu gaur egun erabilitako baremoari buruzko iruzkin labur bat egiteari, kexa-idazkiak zalantzan jartzen baitu.

Hezkuntzarako Eskubidea arautzeko uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoak, 20.2 eta 53. artikuluetan, lehentasunezko irizpide hauek ezartzen ditu ikastetxeetan ikasleak onartzeko ikastetxeetan behar adina postu ez dagoenean, hain zuzen ere ikastetxea askatasunez hautatzeko eskubidea bermatzeko xedez: familia unitateko urteko errentak, bizilekutik hurbil egotea eta ikastetxean matrikulaturiko anai-arrebak izatea.

Horrela, familia-unitatearen urteroko errentaren irizpidea, batzuetan eztabaidatua izan den arren, kasu hauetan ere kontuan hartu beharrekoa dela deritzogu. Konstituzio Auzitegia hura ezartzearen alde agertu zen 77/85 epaian, eta Auzitegi Gorenak ere gaia aztertu zuen. 198ko abenduaren 9an 5. salak emandako epaiko bigarren oinarriak haxe dio LODEko 20.2 artikulua edukiari buruz:

“Aurrera dezakegu ez gaudela inola ere ados aipaturiko lege-aginduari egotzi nahi zaion konstituziokontraotasunezko izaerarekin. Familia-unitatearen urteroko errentaren araberako lehentasunak duen helburu nagusia da errentarik apalenetako familien alde egitea -hori begi-bistakoa da eta ez dago Legean adierazi beharrik-, eta 1960ko abenduaren 15eko Hitzarmena bultzatzen duen printzipioari erantzuten dio.

Lehentasun horrek ez du Konstituzioa urratzen -hain zuzen ere, 14. artikulua debekatzen duena da diskriminazioa eta tratu-berdintasuna funts publikoen bidez ordainduriko hezkuntzaren arloan, baliabide ekonomiko urriagoak dituztenen alde egiteko behararengatik-; alderantziz, 9.2 artikuluko aginduaren araberakoa da. Ez da ahaztu behar artikulua horrek botere publikoei -beraz, baita botere legegileari ere- agintzen diela beharrezkoak diren baldintzak sustatzea, norbanakoaren askatasuna eta berdintasuna (eta baita norbanakoak osatzen dituen taldeenak ere) egiazkoak eta eraginkorrak izan daitezen, eta haien erabatekotasuna eragotzi edo zailtzen duten oztipoak kentzea.

Nekez lor liteke berdintasun hori baldin eta legegileak faktore sozio-ekonomikoa kontuan hartuko ez balu funts publikoen bidez ordainduriko hezkuntza eskuratzeari dagokionez, eta neutraltasun-jarrera bat hartu izan balu, zuzenbidezko estatu sozial eta demokratiko batekin bateraezina (gogoan izan behar da Estatu horrek bere arau goreneko 10. artikuluan aldarrikatzen duela bere ordenamendu juridikoko balio gorena, besteak beste, berdintasuna dela).”

2001-2002 ikasturte honetarako postuak esleitzeko onetsitako baremoari begiratzen badiogu, ikusiko dugu ezen, de facto, hezkuntzarako eskubidea arautzeko lege organikoko 20.2 artikulua horrek aipatzen dituen gainerako irizpideak jasotzen dituela, helbidearen hurbiltasuna eta anai-arreba matrikulatuak izatea, eta bakarrik falta dela familia-unitatearen urteko errentari dagokiona, zeina, hala ere, erabiltzen baita Iruñeko Udalak bere haur-eskoletarako ezarrita daukan baremoan, lehenago aipaturiko beste biekkin eta beste batzuekin batera, hala nola familiaren lan-egoera, familiaren osaketa eta salbuespen-egoerak, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ezarritako baremoak ere jasotzen dituenak.

Iruñeko Udalean erabilitako baremoaren ezauzgarri honi dagokionez, uste dugu, gainera, familia bakoitzaren errealtate ekonomikoa modurik bidezkoenean balioestea ahalbidetzen duen kontzeptua erabiltzen duela; izan ere, xedatzen da familia-unitatearen errentaren balioespina eginen dela per capita errenta baremoan erabiliz.

Azaldutakoagatik, beharrezkoa da, alde batetik, Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari GOMENDIOA egitea zerotik hiru urtera bitarteko haurrentzako postuen eskaintza publikoa handitzeko beharrezkoak diren ekintzak egin eta neurriak har daitezen, betiere gai hori gaur egun arautzen duten xedapenen eta arlo horretan Nafarroan dauden aurreikuspenen esparruaren barnean. Horretarako, beharrian hori antzematen zaien herrietako toki-erakundeekin behar diren hitzarmen eta kontzertuak egitea sustatu behar da.

Bestalde, Nafarroako Gobernuaren haurtzaindegi edo haur-eskoletan sartzeko gaur egun erabilitako baremoari dagokionez, bidezkoa da, era berean, aipaturiko Departamentuari IRADOKIZUNA egitea baremo hori berrikus dezan eta familia-unitatearen errentaren irizpidea aurrerantzean kontuan har dadin lehenago adieraziriko moduan.

Gomendioa zela eta, adierazi zitzaigun beharrezkoak ziren ekintzak jadanik egiten ari zirela zerotik hiru urtera bitarteko haurrentzako postuen

eskaintza publikoa handitzeko, eta xede horrekin bultzada ematen ari zitzaiela toki erakundeekin egin beharreko hitzarmenei.

Bestalde, iradokizunari dagokionez, esan digutenez abian ziren lanak 2002-2003 ikasturtean aplikatu beharreko baremo berri bat egiteko. Besteak beste, familiaren dirusarrerak kontuan hartuko ditu, halako moldez non per capita errentarik apalena daukaten familiek puntuazio handiagoa lortuko baitute.

• NAFARROAN OTIK 3 URTERA BITARTEKO ZIKLOAK DUEN ARAUTZEAK ERAGINDAKO DESADOSTASUNA

Kasu honetan (02/356/b esp.) azaldu zitzaigun kexa egilea ez datorrela bat Nafarroako Gobernuak Otik 3 urtera bitarteko haurren ikastetxeei atxikitako ezaugarrien hainbat alderdirekin. Ezaugarri horiek Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak emandako abuztuaren 2ko 3086/2001 Ebazpenak ezarri zituen, ikastetxe horien funtzionamendu eta ekipamendurako toki entitateekin hitzarmenak izenpetzeko oinarriak arautzean.

Azalduko gaia aztertzekotan ginela, horretan eragina izanen zuten zenbait gertaera izan dira. Bereziki ari gara Hezkuntzaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoak indarra hartzeaz; lege horrek, hizpide dugun hezkuntza zikloari dagokionez, aldatu egin ditu Hezkuntza sistemaren antolamendu orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoan jasotako aurreikuspenetako batzuk.

Besteak beste, bertan xedatzen zen eskolaurreko hezkuntzak, hiru urte arteko haurrei zuzendua, "hezkuntza eta laguntza izaera izanen duela, eta berariaz arauturik egonen dela" (7.2 art.). Orobat xedatzen da "autonomia erkidegoen zeregina izanen dela hezkuntza etapa horretako haurrentzako laguntza antolatzea eta hura emanen den ikastetxe eta erakundeen bete beharreko baldintzak zehaztea, gobernuak etapa horren hezkuntza alderdiei buruz ezarriko duen oinarriko araudiari jarraikiz. Era berean, egokitze jotzen dituzten gainbegiratze eta kontrol prozedurak ezarriko dituzte" (10.2 art.).

Langileei buruz esaten da "eskolaurreko hezkuntza adin horretako haurrei laguntza egokia emateko behar den prestakuntza duten profesionalek emanen dutela" (10.3 art.).

Aurrekoaz gain, jakin dugu otsailaren hasierako egunetan Hezkuntza, Kultura eta Kirol ministroak Kalitatearen Legea garatzeko lehenengo dekretuen proiektuak eta egutegia aurkeztu dituela, eta lege horrek, eskolaurreko hezkuntzaren arloan,

aurreikusten du 2004/2005 ikasturtean ezarriko dela. Testu horiek onetsi aurretik autonomia erkidegoen eta Estatu Kontseiluaren iritzia eskatu beharko da.

Azaldukoarekin adierazi nahi dugu kexaren idazkian azaltzen zen gaian eragin zuzena izanen dutela aipatutako lege aldaketa horiek eta 10/2002 Lege Organikoan jasotako aurreikuspenak betetzeko Estatuak emanen dituen garapen arauak.

Izan ere, lege horren bigarren xedapen iragan-korrean bertan aurreikusten da epe bat egun jardunean dauden baina haur hezkuntzako ikastetxeen baimenik ez duten Otik 3 urtera bitarteko ikastetxeak ezarriko diren gutxienezko baldintzetara egokitu daitezela.

Erakunde honek gai honen inguruan gauza dezakeen edozein jarduketa, beraz, estatuak onetsiko duen garapeneko araudi oinarritzkoa behin betikoz onestearen menpe egonen da; araudi horretan oinarrituko dira gero autonomia erkidegoak eskolaurreko hezkuntza arautzeko, eta maila hori antolatuko dute eta behar diren baldintzak ezarriko dituzte estatuko araudi horren arabera. Botere legegileari eta betearazleari dagokie, lehenetsunez, gai honetan esku-hartzea zeini bere eskumenetan.

Hortaz, uste dugu berriki izan diren arau aldaketak direla eta ez dela komeni oraingoz Nafarroako Gobernuari informazio eskerik luzatzea gai honen inguruan, hasiera batean hala egiteko asmoa bagenuen ere, lehenengo eta behin maila honetan eragina izanen duten baldintzak zehaztu behar direlako garapeneko arau oinarritzkoen bitartez, ondoren Nafarroako Gobernuari eskatu ahal izateko aurkeztutako kexaren idazkian planteatzen zaizkigun alderdiei buruzko informazioa.

Horregatik guztiagatik adierazi behar dizugu oraingoz ezin dugula tramitera onartu kexa egin den moduan, eta erakunde honek arlo honetan egin dezakeen edozein jarduketa aurreikusitako garapen araudiaren onespeneren menpean egon beharko da.

• BEHAR ADINAKO TOKIRIK EZ

Kexaren gaia zen (175/2002/4 esp.) Nafarroako Gobernuak Arrotxapean duen haur eskolan bi haur sartzeko eginiko eskaerari uko egin izana.

Udalaren lehenbiziko informazioan esan zitzaigun "baremo bat dagoela, honi erantsirik dagoena, haur eskolaren zerbitzurako jasotako eskabideei aplikatu beharrekoa, eta kasu horretan baremo hori aplikatu da eta, Iruñeko beste herritar askoren kasuan bezala, ez da tokirik egon gure eskoletan

(tokia dute Nafarroako Gobernuaren Santa Teresa haur eskolan).”

Udalak abuztuaren 30ean bidali zuen eskatutako informazioa, baina bidalitako datuak ikusirik, informazioa zehazteko eskatu zen; 2002ko urriaren 14an jaso genuen erakunde honetan zehaztapena. Hona hemen:

“Haur eskoletan behar adina tokirik ez dagoenez, baremoko “beste irizpide batzuk” atala salbuespen gisa baizik ez da aplikatzen haurrak hartzeko eskoletan. Zuhurtziaz aplikatzen da familia egoera benetan larrietan, batez ere haurrak behar bezalako laguntzarik jasoko ez duela aurreikusten denean. Hizpide dugun kasuan, haurren sarrera oro har arautzen duen baremoa aplikatu zen, eta bizkiei, familia ugariari eta abarri dagozkien puntuazioak eman zitzaizkion kasuari, salbuespenezko egoera ez zelakoan eta haurrek laguntza egokia jasoko zutelakoan udalaren haur eskoletan tokirik ez izanagatik ere.

Hori ikusirik, udala ohartarazi genuen kexak planteatzen duen arazo zabalagoaz –erakunde honi igorritako txostenean berariaz onartzen zena–, alegia udal haurtzaindegietan dagoen toki kopurua eta sartzeari eskatzen duten haurren kopurua ez datozela bat. Egoera horrek agerian uzten du aldea dagoela tokien eskaintzaren eta bizilagunek dituzten behar errealean artean, eta horrek administrazioaren erreakzioa piztu beharko lukeela gizartearen eskaerari erantzun beharraz.

Horrelako aldeak, administrazioak eskaintzen duenaren eta gizarteak arlo honetan benetan eskatzen duenaren artean daudenak, Hezkuntzaren kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoaren ikuspuntutik bideratu behar dira; izan ere, lege horrek exijitzen die administrazio publikoei berma dezaten eskolaurreko hezkuntzan behar adina toki eskaintzen dela, seme-alabei irakaskuntza hori eman nahi dieten gurasoek aukera izan dezaten etxetik gertu dauden ikastetxeetarako eramateko haur horiek.

Hori dela eta, Iruñeko Udalak, aitzindaria izan baita kalitate handiko haur eskolak ezartzen, ildo hori jorratzen jarraitu beharko luke, eta sakon aztertu zein diren egiazko beharrak eta etorkizunerako aurreikus daitezkeenak. Lortutako datuetan oinarrituz, Iruñan, ikastetxe horien eskaintza zabaldu beharko da haurren kopurua nabarmen handitzen joan den tokietan eta, bereziki, epe laburrean hirigintza aldetik hazkundea izanen dela aurreikusten den tokietan, arlo honetan etor daitezkeen premiei erantzun egokia eman dakion.

Azaldutakoagatik, beharrezkoa da, alde batetik, Iruñeko Udalari GOMENDIOA egitea, beharra dagoela antzematen den tokietan zerotik hiru urtera bitarteko haurrentzako postuen eskaintza publikoa handitzeko beharrezkoak diren ekintzak egin eta neurriak har daitezzen, betiere gai hori gaur egun arautzen duten xedapenen eta arlo horretan Nafarroan dauden aurreikuspenen esparruaren barnean.

Iradokizuna onartzen zutela jakinarazi ziguten, eta adierazi beste haur eskola berri bat zabalduko dela Arrotxapean eta beste bi aurreikusirik daudela, bata Mendillorri eta bestea Azpilagañan. Era berean, aztertzen ari dira haur eskolak zabaltzea lanaldi murriztuarekin, 4 edo 5 ordutarako, beste ikastetxe batzuetan dauden lokalak horretarako egokitu ondoren.

• “EGUNSENTI” IKASTETXEAREN FUNTZIONAMENDU BALDINTZAK

Kexaren egileak salatzen zuen (238/2002/4 esp.) Oit 3 urtera bitarteko ziklorako “Egusenti” eskolaurreko ikastetxe horretan haur gehiegi zegoela. Ikastetxea Iruñeko udalaren mendekoa da.

Udalak erakundeari emandako informazioaren arabera, “..Udalaren haur eskoletako haur/hezitzaile ratioak eta espazioek betetzen dute Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak abuztuaren 2an emaniko 308/2001 Ebazpena, toki entitateek sustaturiko haur hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendu eta ekipamendurako hitzarmenak sinatzeko oinarriak arautzen dituen. Horren II. eranskinean ezarritik dago zein den haurra/hezitzaile ratioa eta zer espazio izan behar dituen.”

Geroago, osatu egin zuten informazio hori, honakoa adieraziz:

“1. Haur eskola horretako hezitzaileen plantillan langile hauek daude: zuzendari/arduradun bat, zortzi hezitzaile lanaldi osoz, laguntzako hezitzaile bat, lanaldi partzialean, 82 haurrentzako, lau ikasgelatan banaturik adinen arabera, eta bina hezitzaile ikasgeletan (titikoak 14, ibiltariak 16, erdikoak 20 eta lorategikoak 31).

2. Hezitzaile horiek, gehien bat, legeria indardunean aurreikusitako hezkuntza eginkizunak betetzen dituzte, haurrek behar bezalako garapen fisikoa, intelektuala, afektiboa, soziala eta morala izan dezaten, barne harturik egin behar hauek: programazioa, gurasoei informazioa ematea, haurren higiene pertsonala, elikadura eta loa, material pedagogikoen antolaketa eta garbiketa eta kalitatezko haur hezkuntza lortze-

ko zuzendaritzak emandako beste zeregin guztiak.”

Kontuan hartu behar da, kexaren unean indarra zuen araudiari jarraikiz, Otiak 3 urtera bitarteko tartea haur hezkuntzaren barranean dagoela, zehazki hezkuntza horrek dauzkan bi zikloetako lehenean –LOGSEren 7. artikulutik 11.era–. Izaera hori, halere, Hezkuntzaren kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoak aldatu du, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorriari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoan jasotako aurreikuspenetako batzuetan eragin delako.

Aurrekoarekin ere, eta lege testu horrek erregelamenduzko garapena izan behar duela kontuan harturik –horrek, ikastetxe mota honetarako ezarritako betebeharrak eta baldintzei dagokienez, ekar dezakeena ere–, LOGSEtik datorren araudia aztertuta, kexan planteaturiko arazoa aztertzeke baliagarriak diren zenbait parametro ondorioztatzen dira.

Besteak beste, ekainaren 14ko 1004/1991 Errege Dekretuak, araubide orokorreko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe ez-unibertsitarioen gutxieneko baldintzak ezartzen dituenak, haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe hauen jardunerako gutxieneko betebeharrak batzuk zehazten ditu.

Kexaren xedea den gaiaren harira, “egunsenti” ikastetxean hurrez arduratzeko dagoen hezitzaile kopurua alegia, ikusten dugu zortzi hezitzaile dardela lanaldi osoz, zuzendariak gainera, eta beste bat gehiago, laguntzako, lanaldi partzialean, eta ikasgeletan banaturik daude, adinen arabera, bi bakoitzean; ratio horrek betetzen du aipatutako errege dekretuaren 15.1 artikuluko ziklo horretarako ezarritakoa eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak abuztuaren 2an emaniko 3086/2001 Ebazpenak ezartzen duena ere; are gehiago, azken horrek murriztu egiten du unitate bakoitzeko haurren kopurua ezarritako adin tarteetako batzuetan (1/12 urte batetik bira bitarteko haurren unitateetan eta 1/16 2 urtetik 3ra bitarteko haurren unitateetan).

Horrez gain, bi hezitzaile ikasgela bakoitzeko izateak funtzionaltasun handiagoa ematen dio, gure ustez, profesional horien lanari eta, batez ere, haurrendako laguntzari, 1004/1991 Errege Dekretuaren 13.1 artikuluan eskola unitate bakoitzeko haur kopuruez jasotako aurreikuspenez haratago, horiek ere, oro har, bete egiten baitira.

Horretan oinarriturik uste dugu ez dagoela zertan ohartarazpenik egin Iruñeko Udalarik kexaren xede den gaiaz, ez baitugu antzeman arlo honetako araudian urratzerik. Ez hori bakarrik, kasu honetan aitortu behar delako entitate horrek aspalditik egiten duen ahalegina haur eskolen sarea -alderdi askotan eredu-garritzat hartua-sendotzeko, egia bada ere egungo egoeran saiatu beharko dela ikastetxe eta toki kopuruen aldetik moldatzen zerbitzu honen eskaera gero eta handiagoa.

• BEHARRADINAKO TOKIRIK EZ

Kexan planteatzen zen (02/267/E esp.) alaba ez zutela eskatutako haur eskola publikoan hartu, gehien bat ez dagoelako behar adina toki egungo eskaerari aurre egiteko.

Informazioa eskatu genuen Iruñan dagoen toki kopuruari buruz eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak abuztuaren 2an emaniko 3086/2001 Ebazpenaren babesean izenpeturiko hitzarmenen kopuruari buruz, nola dauden eta zer aurreikuspen dagoen ikastetxe berriak jardunean hasteko epeei buruz eta horietan egonen diren tokien kopuruari buruz.

Departamentuak 2003ko urtarrilaren 30ean igorri zuen eskatutako informazioa eta adierazi zuen Iruñeko haur eskola publikoetan dagoen tokien kopurua, osotara, 1.107 dela eta 2002-2003 ikasturterako aurkeztutako eskaeren kopuruak, berriz, 1.284 egiten duela. Horrekin batera, zenbait taula igorri zituzten, zerbitzua eskaintzen duten Nafarroako herriena eta hurrengo ikasturterako aurreikuspenak, zenbait udalekin hitzarmenak izenpetuz gauzatuko direnak, 3086/2001 Ebazpenaren babesean.

## IKASTETXEAK JARDUNEAN DITUZTEN ETA HITZARMENA IZENPETUA DUTEN UDALAK (0-3 urte)

Herria	Unitate kopurua	Haurren kopurua	Ordu-tegi mota	Hezitzaileak	BBetako unitateak	Hizkuntza ereduak
ABLITAS	3	35	7	4		dena gaztelaniaz
ALTSASU	4	48	6	5		dena euskaraz
ANTSOAIN	8	81	7	9		4 gaztelaniaz 3 euskaraz
AZAGRA	3	38	4 eta 7	5	u 1	dena gaztelaniaz
BARAÑAIN	6		7	9	u 1	2 euskaraz 4 gaztelaniaz
BERRIOZAR	9	112	4 eta 7	11	u 1	4 euskaraz 5 gaztelaniaz
BUÑUEL	2	27	7	3		dena gaztelaniaz
CABANILLAS	1	17	6	3	u 1	dena gaztelaniaz
CASCANTE	3	42	7	4		dena gaztelaniaz
CASTEJÓN	2	28	7	3		dena gaztelaniaz
CINTRUÉNIGO	6	72	7	7		dena gaztelaniaz
ELIZONDO	3	40	4 eta 7	4		dena euskaraz
UHARTE-IRU.	3	41	4 eta 7	4		dena euskaraz
LARRAGA	3	40	4	4		dena gaztelaniaz
LODOSA	2	28	7	3		dena gaztelaniaz
IRUNBERRI	2	16	4 eta 7	3		dena gaztelaniaz
ORKOIEIN	5	52	4 eta 7	6		2 euskaraz 3 gaztelaniaz
IRUÑA	8	91	7	9	u 1	dena gaztelaniaz
IRUÑA	10	117	7	11	u 1	dena gaztelaniaz
IRUÑA	4	32	7	5		dena gaztelaniaz
IRUÑA	10	121	7	11		dena gaztelaniaz
IRUÑA	8	91	7	9		dena gaztelaniaz
IRUÑA	8	91	7	9	u 1	dena gaztelaniaz
IRUÑA	10	114	7	11	u 1	dena gaztelaniaz
IRUÑA	8	91	7	9		dena euskaraz
IRUÑA	4	49	7	5		dena euskaraz
AZKOIEIN	5	63	7	6		dena gaztelaniaz
GARES	2	28	7	3		dena gaztelaniaz
SAN ADRIÁN	5	62	7	7	u 1	dena gaztelaniaz
TUTERA	10	103	7	12	u 1	dena gaztelaniaz
ARANGUREN	6	60	4 eta 7	7		3 gaztelaniaz 3 euskaraz
VALTIERRA	1	11	6	3	u 1	dena gaztelaniaz
VIANA	2	20	4 eta 7	3		dena gaztelaniaz
VILAFRANCA	2	28	7	3		dena gaztelaniaz
ATARRABIA	12	107	7	13		6 euskaraz 6 gaztelaniaz
ZIZUR NAGUSIA	6	72	7	7		3 euskaraz 3 gaztelaniaz
GUZTIRA	186	2068		230		

## NAFARROAKO GOBERNUAREN IKASTETXEAK

Herria	Unitateen kopurua	Haurren kopurua	Ordutegi mota	Hezitzaileak	BBetako unitateak	Hizkuntza eredia
NINIA ETXEA (Iruña)	6	76	7	9	u 2	dena gaztelaniaz
LOS ANGELES (Iruña)	6	58	7	7		dena gaztelaniaz
ORREAGA (Iruña)	6	50	7	7	u 1	dena gaztelaniaz
SANDUZELAI (Iruña)	7	71	7	10	u 2	dena gaztelaniaz
SANTA TERESA (Iruña)	6	58	7	8	u 1	dena gaztelaniaz
EGUNSENTI (Iruña)	8	80	7	10	u 1	dena gaztelaniaz
NIÑO JESÚS (Corella)		7	74	7	8	dena gaztelaniaz
IZARRA (Lizarra)	7	71	7	9	u 1	dena gaztelaniaz
GUZTIRA	53	538		68		

## JARDUNEAN DAUDEN IKASTETXEAK, DIRUZ LAGUNDUAK HITZARMENA EGITEKO DUTENAK

Herria	Unitateen kopurua	Haurren kopurua	Ordutegi mota	Hezitzaileak	BBetako unitateak	Hizkuntza eredia
MENDABIA	2	23	6	2	2003	dena gaztelaniaz
GUZTIRA	2	23		2		
EGUNGO TOKIEN KOPURUA, GUZTIRA					2.629	

## HITZARMENA 2003AN AURREIKUSIA DUTEN UDALAK

Herria	Unitateen kopurua	Haurren kopurua	Ordutegi mota	Hezitzaileak	BBetako unitateak	Hizkuntza eredia
ANDOSILLA	3	36			2003ko ira.	
AGOITZ	3	36		4	2003ko ira.	
ARGUEDAS	2	28			2003ko ira.	
BERA	4	45		5	2003ko ira.	dena euskaraz
BETELU	1	14			2003ko urt.	
ZARRAKAZTELU	3	36			2003ko ira.	
OLTZAKO ZENDEA					2003ko ira.	
CORTES	3	36		4	2003ko urt.	dena gaztelaniaz
AURIZBERRI-ERRO (AUÑAMENDI)	2	28			2003ko ira.	
LIZARRA	6	72			2003ko urt.	
FUNES	3	30		4	2003ko urt.	dena gaztelaniaz
LEKUNBERRI	3	36		4	2003ko ira.	2 euskaraz 1 gaztelaniaz
ZANGOZA	6	72			2003ko ira.	
SARTAGUDA	1	14		2	2003ko urt.	dena gaztelaniaz
ULTZAMA	2	28		3	2003ko mar.	dena euskaraz
	42	511				

## Otik 3 URTERA BITARTEKO HAURRENTZAKO IKASTETXEEN PROIEKTUAK EGITEN ARI DIREN UDALAK

Herria	Unitateen kopurua	Haurren kopurua	Ordutegi mota	Hezitzaileak	BBetako unitateak	Hizkuntza eredia
ARTAXOA	2	26		2	2004	dena gaztelaniaz
EGUES	6	72			aurreikusi gabe	
LAKUNTZA	2	28			aurreikusi gabe	
ERRIBERRI	4	45			aurreikusi gabe	
TAFALLA	10	124			2004ko iraila	
	24	295				



Iruñeko Udalak, bere aldetik, informazio hau igorri zigun 2002ko urriaren 14an:

- “1. Datoren egunean Iruñan Otik 3 urtera bitarteko zikloan, Nafarroako Gobernuaren 14 haur eskola publiko daude eta 9 udalarenak. Guztira, 1.016 toki.
2. Ikasturte honetarako 1.284 eskabide aurkeztu ziren, eta horietatik 363 onartu ziren udalaren haur eskoletan eta 164 Nafarroako Gobernuarenetan.
3. Aurreikusirik dago beste haur eskola bat irekitzea Arrotxapean datorren ikasturtean, eta eskaturik dago Azpilagañan beste haur eskola bat eraikitzeke proiektua. Era berean, aztertzen ari dira haur eskolak zabaltea lanaldi murriztuarekin, 4 edo 5 ordutarako, beste ikastetxe batzuetan dauden lokalak horretarako egokitu ondoren.”

Departamentuak igorritako txostenean aipatzen diren ikastetxeetako bat ere ez dago Iruñan edo Iruñerrian kokaturik, eta beraz tokien kopuruaren hazkundeak ez du eraginik izanen alde horretan, hau da, eskabideen kopuruaren eta dauden tokien kopuruaren arteko aldea handiena den tokian. Bestalde, udalaren txostenean aipatzen bada ere datorren ikasturtean beste ikastetxe bat irekiko dela Arrotxapean, ez dirudi halere arazoak konponbidea izanen duenik horri esker, kontuan harturik eskaeraren tamaina. Eta bistan da ez dela konponduko, halaber, Azpilagañako ikastetxea 2004-2005 ikasturtea hasi aurretik eraiki eta jardunean hasten bada ere.

Horrexegatik ohartarazi genituen berriz Hezkuntza eta Kultura Departamentua, gai honetan eskuduna baita, eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua eta Iruñeko Udala, kexak aipatzen duen arazoaz –erakunde honetara igorritako txostenetan berariaz onartua–, hau da, haur eskola publikoetan dagoen toki kopurua eta sartzeari eskatzen duten haurren kopurua ez datozela bat.

Horrelako aldeak, administrazioak eskaintzen duenaren eta gizarteak arlo honetan benetan eskatzen duenaren artean daudenak, Hezkuntzaren kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoaren ikuspuntutik bideratu behar dira; izan ere, lege horrek exijitzen die administrazio publikoei berma dezaten eskolaurreko hezkuntzan behar adina toki eskaintzen dela, seme-alabei irakaskuntza hori eman nahi dieten gurasoek aukera izan dezaten etxetik gertu dauden ikastetxeetarako eramateko haur horiek.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak, aitzindariak izan baitira giza eta gauza baliabideez ongi hornituriko haur eskolak ezartzen, ildo hori jorratzen jarraitu beharko lukete, eta sakon aztertu zein diren egiazko beharrak eta etorkizunerako aurreikus daitezkeenak. Beraz, ikastetxe horien eskaintza zabaldu beharko da haurren kopurua nabarmen handitzen joan den hiriko tokietan eta, bereziki, epe laburrean hirigintza aldetik hazkundea izanen dela aurreikusten den tokietan, arlo honetan etor daitezkeen premiei erantzun egokia eman dakion. Era berean, aurreikuspenetan kontuan hartu beharko dute eskolaurreko hezkuntza ezartzeko egutegia bete behar dela eta 2004-2005 ikasturtean behar adina ikastetxe dagoela bermatu. Ildo horretan, gure iritzia da udalak dituen aurreikuspenak, alegia Arrotxapean ikastetxe berri bat irekitzea eta Azpilagañarako proiektu bat onestea, ez direla aski izanen populazioaren egiazko beharrei erantzuteko.

Azaldutakoa dela eta, bidezkoa da GOMENDIOA luzatzea Hezkuntza eta Kultura Departamentuari eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari, Otik 3 urtera bitarteko haurrendako tokien eskaintza publikoa handitzeko eta halatan gurasoek beren seme-alabei irakaskuntza emateko duten eskubidea bermatzeko behar diren ekintzak gauza ditzaten.

2003ko maiatzaren 22an Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren erantzuna jaso genuen, adieraziz onartzen zutela lehen aipatutako espedientean egin nion gomendioa. Era berean, ekainaren 22an Iruñeko udalaren erantzuna jaso genuen, gauza bera esanez. Idazki horretan aipatzen dute beste haur eskola berri bat zabalduko dela Arrotxapean eta beste bi aurreikusirik daudela, bata Mendillorri eta bestea Azpilagañan. Era berean, aztertzen ari dira haur eskolak zabaltea lanaldi murriztuarekin, 4 edo 5 ordutarako, beste ikastetxe batzuetan dauden lokalak horretarako egokitu ondoren.

• BAREMOAREN APLIKAZIOA ETA BEHAR ADINA TOKIRIK EZ ANTZOAINEN

Bi espediente hauetan (03/120/E eta 03/121/E) Antsoaingo guraso talde batek adierazi zigun ezinezkoa zitzaiela Otik 3 urtera bitarteko zikloko tokiak eskuratzea. Ezinezkoa zitzaien, alde batetik, Antsoainen dagoen toki kopurua ez delako asko eta bestetik Iruñetik kanpo erroldaturik daudenek murrizturik dutelako Nafarroako Gobernuak Iruñan dituen haur eskoletako tokiak eskuratzea, Gizarte Ongizate Departamentuak 2003/2004 ikasturtean ezarri bezala.

Antsoainen toki aski ez dagoela eta, idazkian salaketa egiten dute, haien iritziz Antsoaingo Udalaren aldetik zerbitzuen aurreikuspenik ez delako izan, ezta inolako jarduketarik ere gai honetan.

Adierazten dute, hortaz, zailtasunak dituztela beren lanerako eskubideaz eta beren seme-alabek adinerako egokia den hezkuntza eta laguntza jasotzeko dutenaz baliatzeko, 2003/2004 ikasturtean Otik 3 urtera bitarteko zikloan kanpoan utzi dituzten haurren kopuruak onartutakoen halako hiru egin duelako Antsoainen.

Egoera are larriagoa da kontuan hartzen badugu, hasieran aipatzen genuen bezala, Iruñetik kanpo erroldaturik daudenek murrizturik dutela Nafarroako Gobernuak Iruñan dituen haur eskoletako tokiak eskuratzea, 2003/2004 ikasturtean Hezkuntza Departamentuak ezarri bezala.

Gai horren inguruan azaltzen dute ikasturte honetan, estreinakoz, Iruñerriko udalen batean erroldaturik dauden herritarrek ezin dutela parte hartu Iruñan erroldatuen baldintza berdinekin Nafarroako Gobernuak Iruñan dituen Otik 3 urtera bitarteko tokiak eskuratzeko modua antolatzen duen onarpen prozeduran.

Haien ustez Nafarroako Gobernuak bereizkeriaz jokatzeko du Iruñan erroldaturik ez dauden haurrekin. Gurasoek diotenez, Antsoainen bizitzeagatik murriztu egiten zaie Gobernuak Iruñan dituen haur eskoletan sartzeko aukera, kasu batzuetan eskolatik Antsoaingo etxera dagoen distantzia eskolatik Iruñan bizi diren beste haur batzuen etxeetara dagoena baino txikiagoa bada ere. Errola-tokiaren arabera tratatu desberdina emateak justifikazioa izan dezake Iruñeko Udalaren mende dauden Otik 3 urtera bitarteko tokien kasuan, baina ez Gobernuaren mendean daudenen kasuan.

Aurkeztutako bi salaketa idazki horiek azterturik, eta guk, Nafarroako Arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legean ezarritakoarekin bat, jarduteko izan ditzakegun aukerak zehazteko, Antsoaingo Udalera eta Gizarte Ongizate Departamentura jo genuen planteatutako gaiei buruzko informazioa jasotzeko.

Antsoaingo Udalari 2003ko uztailaren 28an zuzendutako idazkian eskatu genuen, zehazki, informazioa eman ziezaguten planteaturiko hezkuntza beharrei erantzuna ematen saiatzeko jarduketa aurreikuspeni buruz.

Gizarte Ongizate Departamentuari eskatu genion informazioa eman ziezaguten ondotik aipatzen ditugun gaien inguruan, kontuan harturik Nafarroako Gobernuaren mendeko Otik 3 urtera bitarteko tokiak eskuratzeko gertatzen ari bide zen

balizko bereizkeria, eta horrez gain azpian antzematen den arazo orokorra, alegia behar adina tokiarik ez izateak haur eskoletan tokia eskuratzeko garaian eragiten dituen zailtasunak.

1. Plantaturiko kasu zehatzari dagokionez, Nafarroako Gobernuaren mende dauden Iruñeko haur eskoletan nola aplikatu izan den baremoa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Gobernu Batzordeak 2000ko urtarrilaren 26an harturiko erabakian aurreikusi zena, bereziki keaxaren egileek aipatzen duten erroldatzeari buruzko alderdia, haiek diotenez bereizkeriaz jokatzeko baita haiekin Antsoainen bizitzeagatik.

2. Bestalde, kexa mota honetan planteatzen den arazo orokorrari dagokionez, nahi genuke osatzea edo gaurkotzea departamentuak gure erakundeari, 2003ko urtarrilaren 27an eta 02/267/B kexa espediente zela eta, toki entitateekin izenpeturiko hitzarmenei buruz emandako informazioa, adierazirik zenbat hitzarmen izenpetu diren ordutik hona eta zer aurreikuspen dauden etorkizunari eta hurrengo ekitaldiei begira.

3. Horrez gain, kontuan harturik Hezkuntzaren kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege organikoaren 10.4 artikulua ezartzen duela: "administrazio eskudunek erantzunen dietela familietan dauden beharrei eta koordinatuko dutela eskaera asetzeko tokien eskaintza behar adinakoa izatea", eta legea garatzeko ekainaren 27ko 827/2003 Errege Dekretua, legea aplikatzeko egutegia ezartzen duena, onetsi zela eta horren 2.2 artikulua aurreikusten duela 2004-2005 ikasturtean administrazio eskudunek ekinen dietela eskolaurreko hezkuntza ezartzeari, jakin nahi dugu halaber zein diren Nafarroako Gobernuak dituen jarduketa aurreikuspenak, bai arau garapenari dagokionez bai lege testu horretan dauden zehaztapenak betetzei dagokionez.

Antsoaingo Udalak gure informazio eskeari erantzun zuen, honakoa adieraziz:

"..alkatetza honek atseginez jakinarazten dizu udalek eman beharreko zerbitzuen artean ez dagoela, autonomia erkidegoak salbuetsi ezean, hezkuntzarena, eta Nafarroan jakinen duzunez, Foru komunitateko administrazioaren eskumena da.

Horrekin guztiarekin ere, 1979an, udal honek haurtzaindegi bat sortu zuen, egun haur eskola izena duena, eta ordutik honako ikasturteetan, batez beste 80/100 haur hartu izan ditu; horrek defizit handia eragin die udalaren diruetan, zerbitzu hori emateko betebeharririk ez badu ere, aurreko paragrafoan esan dugun bezala.

Esan nahi baita ez dagoela “erantzun egokirik ez ematea”, kexan dioten bezala, kontrakoa bai-zik: betebeharrekoa ez den zerbitzu bat ematen da, eta haren defizita udal honetako zergadun guztiek jasaten dute. Ez dago, halaber, udal honen aldetik, “planteaturiko hezkuntza beharrei erantzun egokia emateko jarduketa aurreikuspenik”, ez dagokiolako eta ezin duela-ko halakorik egin, Arartekoaren erakundeari kexa aurkeztu dioten jaun-andreek eskaturiko zerbitzua udalak bere gain hartzeko behar dituen baliabideez hornitzen ez bada. Antsoingo haur eskolan toki faltak ukitutako gurasoen egonezarekin eta kezka handiarekin bat gatoz, baina alkatetza honen iritziz aurkeztu dizuten kexak ez du inolako oinarri legalik eta beraz ezetsi egin behar da goitik behera.”

Gizarte Ongizatearen Departamentuak ere erantzuna eman zien eginiko galderei, informazio eskea errepikatu ondoren. Hemen arituko gara zehazki kexa idazkian aipatzen ziren alderdiez, departamentuak jakinarazitako gainerako datuei txosten honen beste atal batean heldu baitiegu.

Gizarte Ongizatearen Departamentuaren erantzuna hauxe da:

“..Lehendabiziko puntuan planteaturiko gaiari dagokionez, hau da, eskolaurreko ikastetxeetan tokiak esleitzerakoan baremoa aplikatzeko moduz, adierazi behar da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua ezartzen ari dela eskolaurreko ikastetxeak Nafarroan. Abuztuaren 2an Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak emaniko 3086/2001 Ebazpenaren bidez, toki entitateekin haur hezkuntzako 0tik 3 urtera bitarteko ikastetxeen funtzionamendu eta ekipamendurako hitzarmenak izenpetzeko oinarriak onetsi ziren.

Ebazpen horretan, I. eta II. eranskinetan, jasorik zeuden institutuaren eta toki entitateen arteko lankidetzak hitzarmenak formalizatzeko oinarriak eta hitzarmenak izenpetzeko baldintzak. I. eranskinean, 2. puntuan esaten denez, lankidetzak hitzarmenen oinarriko edukiak aipatzen ditu, besteak beste, ikastetxeetako antolaketa-rako eta jardunerako irizpideak.

Bestalde, eskolaurreko ikastetxeen araubidea arautzen duen foru dekretuaren zirriborroan, 37. artikuluan ezartzen dira ikastetxeetan sartzeko baremoan ageri behar diren faktoreak.

Horrexegatik jasotzen du Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak lankidetzak hitzarmenetan herri bakoitzean aplikatzen den baremoa. Araudia onetsi gabe dagoenez, orientabideak ematen zaizkie ikastetxe berri guztiei

erkidego osoan jarduteko irizpide komunak ezartzeko.

Iruñeko Udalarekin izenpeturik dago lankidetzak hitzarmena. Iruñeko populazioari eskabideak aurkezteko modua errazteko eta prozesua argitzeke erabaki zen bi administrazioen menpeko ikastetxeetako tokien eskaintza bateratzea. Deialdi bateratuak ikastetxe guztiak eremutan banatzea eta baremo bera erabiltzea dakar.

2003/2004 ikasturteko deialdirako ezarri zen Iruñetik kanpoko eskatzaileek hiriko bertako eskaerari erantzuna eman ondoren eskura zitzaketela tokiak. Honi erantsirik igortzen dugu Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzailearen ebazpena, txostena onetsi zuena, eta bi eranskin: baremoarena eta eremuena.

Beraz, egia da ikasturte honetan baremoa aldatu dela, baina kontuan hartu behar da gainerako herriek ere badituztela beren baremoak, bertan erroldaturik ez daudenei sartzeko murrizten dietena.

Ikastetxe publiko guztiek jasotzen dituzte Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren dirulaguntzak hitzarmen bidez eta guraso guztiek dituzte antzeko baremoak ikastetxe horietan sartzeko eta tarifa sistema berdina.”

Kexaren egileek planteaturiko bi gaiak bakoitza bere aldetik aztertutik, iruzkin hauek egiten ditugu:

1. Lehendabiziko gaia, alegia “Antsoingo Udalaren aldetik zerbitzuen aurreikuspenik ez dela izan, ezta inolako jarduketarik ere gai honetan”, hau da, 0tik 3 urtera bitarteko zikloan toki askirik ez izatea, interesatuek salatu dutenez.

Ikasturte honetan ziklo horretan tokirik gabe gelditu diren Antsoingo haurren kopurua 102 da. Egia bada ere, udalak dioten bezala, haur eskolak edo eskolaurreko hezkuntzako ikastetxeak sortzeko eskumena Nafarroako Gobernuarena dela, egia da halaber Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak abuztuaren 2an emaniko 3086/2001 Ebazpenaren bidez arautu zirela toki entitateekin hitzarmenak sinatzeko oinarriak, toki entitateek beraiek sustaturiko haur hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendu eta ekipamendurako. Horrek, finean, eginkizun erabakigarria esleitzen die toki entitateei, erakunde honetan lehenago ere tramitaturiko espedienteetan adierazi izan dugun bezala, aukera hori gauzatzeko baldintzak, neurri handi batean, toki entitateek ikastetxe berriak ezartzeko eskatzea eta lankidetzak hitzarmenak izenpetzea direlako.

Toki entitateek esleitua duten ekimen hori, toki an tokiko udal esparruan dauden beharrak antzeman ondoren, 3086/2001 Ebazpenaren 3. puntuan ageri da, honako ezartzen baitu: "Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuarekin Otik 3 urtera bitarteko haur hezkuntzako ikastetxeak ezartzeko hitzarmenak izenpetzeko interesa duten toki entitateek eskabidea aurkeztu beharko dute Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Familia Atalean."

2. Planteatutako bigarren gaiak arreta berezia eskatzen du: Iruñetik kanpo erroldaturik daudenek murrizturik dute Nafarroako Gobernuak Iruñan dituen haur eskoletako tokiak eskuratzea, 2003/2004 ikasturtean Hezkuntza Departamentuak ezarri bezala.

Departamentuak txostenean adierazten digunez, 2003/2004 ikasturtean bateratu egin zen Otik 3 urtera bitarteko haurrentzako Iruñan dauden tokien deialdia, bai udalaren menpe daudenak bai Gobernuaren mendeko ikastetxeetakoak; eremu banaketa eta baremo berberak ezarri ziren guzti-entzat, Iruñeko populazioari eskabideak aurkezteko modua errazteko eta hautaketa prozesua argitzeko. Tokiak eskuratzeko lehentasun hurrenkera ezartzeko aplikatzen den baremoa irizpide oinarritzko hauen arabera da: Gurasoen lan egoera, errenta maila, familiaren osaketa, etxera edo aitarren nahiz amaren lantokira bitarteko distantzia eta behar sozialeko hainbat egoerari erantzuten dioten beste zenbait irizpide. Nolanahi ere, baremoa aplikatzean beste irizpide bat sartzen da, lehentasuna edo ordena ezartzeko: "Iruñetik kanpoko eskabideei erantzuna emanen zaie toki hutsik gelditzen bada eskatutako toki guztiak esleitu ondotik."

Aurreko guztia zehaztu eta esan dezakegu ezen, Nafarroako Gobernuaren menpeko toki bat Iruñan dagoena, eskuratzekoan, gerta dezakeela baremoan ezarritako irizpideak zorrotz aplikatuz gero puntuazio hobea lor dezake Iruñerriko udalen batean erroldaturiko haur batek Iruñan erroldaturiko haur batek baino, baldin eta, onetsitako eremu banaketari jarraiki, ikastetxearen eragin esparruan bizi bada. Halere, dauden toki guztiak Iruñan aurkeztutako eskabideekin betetzen badira, gerta daiteke eskabidea kontuan ez hartzea ere.

Aurrekoarekin bat, esan daiteke baldintza berdinekin, alegia, bizitokira bitarteko distantzia bera, errenta bera, familia osaketa bera..., neurri berria Iruñan erroldaturiko aldekora edo haientzat onuragarria izan eta, beraz, bertan erroldaturik ez daudeneentzat bereizkeria ekartzeaz gain, sartzeko halako lehentasuna ematen die non baztergarria baita besteentzat. Horren guztiaren abiapuntua da

Iruñak eta Iruñerriak kokapen geografikoaren ikuspuntutik dituzten berezitasunak eta beraz, tokiak eskuratu nahi dituztenek, egoera honen eragina jasotzen dutenek, aukera berdinak dituztela.

Interesgarria da gogoratzea hemen nola mugarrizten duen Konstituzio Auzitegiak berdintasuneko eskubidea, doktrina horrek planteaturiko kasuan aplikatzean oso esanguratsua delako. Konstituzio Auzitegiak adierazten du "herritarrek tratu berdina jasotzeko duten eskubide subjektiboak botere publikoak behartu eta mugatzen dituela hura errespetatzera, eta eskatzen du egitate berdinek tratu berdina izan dezaten ondorio juridikoei dagokienez, halako moduan non haien artean bereizketak ezartzeko behar adinako justifikazioa egon behar baita, oinarritua eta arrazoizkoa, oro har onarturiko irizpide eta iritziekin bat, betiere bereizketak ekartzen dituen ondorioak ez badira, edozein kasutan, desproporzionatuak... Beharrezkoa da halaber ondorioak bilatutako helburuarekiko proportziozkoak izatea, emaitzak ez daitezen izan kaltegarriak edo neurrigabeak".

Konstituzio Auzitegiak dio, aurrerago, "berdintasunaren gaineko iritzia erlaziozkoa dela. Nahitaez eskatzen dituen aurre baldintzak dira, batetik, zalantzan jarritako neurriaren ondorioz pertsona taldeei edo kategoriei tratu desberdina ematea, eta bestetik, alderatu nahi diren egoera subjektiboak homogeneousak edo parekagarriak izatea, hau da, alderaketaren terminoa arbitrarioa edo apetzakoa ez izatea... Behin bi aurre baldintza horiek egiazaturik izanen da bidezkoa zalantzan jartzea sartutako tratu desberdina Konstituzioaren arabera legezkota den ala bereizkeria eragiten duen... (Konstituzio Auzitegiaren 119/2002 Epaia, maiatzaren 20koa, eta Konstituzio Auzitegiaren 200/2001 Epaia, urriaren 4koa).

Badakigu Nafarroako Gobernuak Nafarroako edozein herritan sortzen duenean haur eskola edo eskolaurreko hezkuntzako ikastetxe bat, horren bidez erantzun nahi diola dagoen toki eskaerari, are gehiago sortutako eskola edo ikastetxea kasuan kasuko herriko bakarra denean. Baina hizpide dugun kasuan, Gobernuaren mendeko Iruñeko haur eskolak izatean, eskatzekoa da, argi eta garbi, Konstituzio Auzitegiaren doktrina hori aplikatzean, Iruñaren eta Iruñerriaren kokapen geografikoa dela eta. Esan daiteke argi eta garbi tratu desberdina ezarri dela, erroldako tokiaren arabera, pertsona talde batzuentzat, batetik IRUÑAN erroldaturik daudenak eta bestetik Iruñerriko udalen batean daudenak, egiaz homogeneousak eta parekatzeko modukoak diren egoera subjektiboak (berdintasuna tokiak eskuratzeko eskatzen diren baldintzetan: etxetik ikastetxera dagoen distantzia,

errenta...) badaude ere. Eta antzeman daiteke era berean, ezarritako desberdintasunaren behar adina justifikazio oinarri eta arrazoidunik ez dagoela, ez eta proportzionaltasunik ere bilatzen den xedearen eta eragindako emaitza edo ondorioen artean. Ez dirudi aipatutako xedea, "Iruñeko populazioari eskabideak aurkezteko modua erraztu eta hautaketa prozesua argitzea" neurria hartzeko behar adinako justifikazio oinarri eta arrazoiduntzat har daitekeenik. Eta ezin da ulertu halaber eragindako emaitza: hautaketa prozesutik kanpo uztea zenbait pertsona talde, baremoa zorrotz aplikaturik tokia eskuratzeko aukera zutenak, ez izatea ondorio larria edo neurrigabea bilatutako helburua lortzeko.

Jakin ahal izan dugu, gainera, 2003/2004 ikasturtean ezarritako neurri murriztaile horri eutsi zaiola 2004/2005 ikasturterako martxoan irekitako hautaketa prozesuan.

Arestian azaldutako guztiarekin bat, egokitzat jo genuen GOMENDIOA egitea Nafarroako Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari, martxoan hasitako hautaketa prozesuan berdintasunez aplika zezaten Nafarroako Gobernuaren menpeko Iruñeko haur eskoletan sartzeko baremoa Iruñan errolaturik daudenei nola Iruñerriko udaletakoren batean daudenei, Iruñerriko udaletako batean errolaturik daudenek tokia eskuratzeko edo aurkeztutako eskabideak baloratzeko baldintza izan ez dadin tokiak libre geratzea Iruñan errolaturik daudenek eskatutakoak eman ondoren.

Bada, maiatzaren 25ean honako erantzuna igorri zitzaigun:

"Nafarroako Gobernuaren mendeko haur eskoletan 0tik 3 urtera bitarteko tokiak eskuratzeko prozesuen inguruan Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentu honi eginiko gomendioari erantzutea eskatu zenuenez 2004ko apirilaren 7an igorritako zure idazkian, hauxe adierazi behar dizut:

2004ko maiatzaren 6an kontseilari honek eta Hezkuntzakoak agerraldia egin genuen Nafarroako Parlamentuko batzordean bi departamentuok haur hezkuntzako ikastetxeei dagokien ez ditugun planak azaltzeko.

Agerraldian, Hezkuntza kontseilariak argi esan zuen beharrezkoa dela antolatzea edo arautzea Nafarroan dauden haur hezkuntzako ikastetxe guztiak, publikoak nahiz pribatuak, Nafarroako Gobernuarenak nahiz udalenak. Adierazi zuen halaber prest daudela funtzionamenduari, ikuskaritzarekin eta eraikin berriekin zerikusia duen guztia arautu behar duten foru dekretuak, lehentasuna emanez hezkun-

tza arloari eta beraz, Hezkuntza Departamentuaren eskumen gisa. Arau proiektu horiek Nafarroako eskola Kontseiluak baloratuko ditu behar den garaian.

Horregatik guztiagatik ez dirudi komeni denik zuen gomendioa onartzea oraingoan, Hezkuntza Departamentuaren xedapen berriek indarra hartu eta departamentu bakoitzaren eskumena zedarriturik geratu arte, batez ere kontuan hartuta gomendioa betetzeak dagoeneko onetsirik dagoen eta eskabideak aurkezteko epea aurtengo martxoaren 31ra artekoa zela ezartzen zuen deialdia aldatu beharra ekarriko lukeela.

Jasotako erantzunaren edukia ikusirik, gogoraz diogu Gizarte Ongizate Departamentuari Nafarroako Foru Komunitatearen arartekoa arautzen duen uztailaren 3ko 4/2000 Foru legearen 34.2 artikulua ezartzen duela: "Behin gomendioak egin ondoren, ukitutako agintari administratibokak bi hilabeteko epe batean neurri egokirik hartzen ez badu ildo horretan... gai hori urteko txostenean edo txosten berezian sartuko du, jarrera hori izan duten agintarien edo Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen izenen berriazko aipamenarekin, eta betiere arartekoaren iritziz konponbide positiboa izan zezaketen eta konponbide hori lortu ez den kasuen artean."

Era berean, departamentuari adierazi diogu ezen, aurrekoa gorabehera, kontuan harturik egindako gomendioak ez onartzeak Iruñerriko udalengan errolaturiko herritarren eskubideetarako ondorio kaltegarriak izan dituela eta erakunde honetatik igorritako ebazpenean, gomendioaren oinarria den horretan, jakinarazitako irizpidea departamentuak ez duela zalantzan jarri, komenigarria dirudiela etorkizunean aintzat hartzea eginko gomendioa, idazkian aipatzen dituen eskumen aferak mugarritu ondoren.

• ARROTXAPEAKO HAUR ESKOLAKO HIZKUNTZA ERE-DUA

Oraindik ez dugu jaso udalari eskatu genion informazioa.

**B. GURASOEN ASMOAK ETA ESKAERAK**  
0tik 3 URTERA BITARTEKO HAURREN HEZKUNTZAREN INGURUAN.

Txosten berezi hau egiteko, eta erakundearen aurkeztutako kexen orientabide osagarria izan dadin, lan mahaian bildu ginen ikasleen gurasoekin, haietako batzuk 0tik 3 urtera bitarteko haur hezkuntzaren inguruko kexa izenpetu zutenetakoak.

Parte-hartzaileak ohartarazi genituen lan saio kualitatibo haren xedea ukitutako herritarren iritziak biltzea zela txosten hau prestatzeko lanei begira.

Hasiera batean hizpide izan genuen haiek adin tarte horretan hurrek jaso behar zuten hezkuntzaz zuten ideia, ea lehentasuna eman behar zaion hezkuntzaren arloari eta ez laguntzakoari, nolako garrantzia ematen dioten horri, ikastetxeak kudeatzeko modua, hizkuntza kontuak etab. Bertan ziren guztiek argi adierazi zuten lehentasuna izan zen seme-alabek aukera izatea ikastetxe horietan sartzeko, eta eskatzen zuten behar adina toki egotea, administrazioaren betebeharra izanik hala izan dadin bermatzea, ez ordea gurasoena, ez baitzitzaien oso garrantzitsua iruditzen zikloa derri-gorrezkoa izatea edo ez izatea.

Bizi diren tokian dituzten arazoak aipatzen zituzten, esanez Iruñeko inguruko beste herri askotan bezala populazioa bikoiztu egin dela azken urteetan; horrez gain, azaldu zuten beharrezkoa dela, lehenengo eta behin, familia eta lana uztartzeko laguntzak eta bestelako onurak emateko ezarririk dauden baldintzak hobetzea, eta bereziki enpresetan sortzen diren zailtasunek onura horiek jasotzeko askotan eragiten dituzten arazoak berri eman zuten.

Gurasoek nahiago dute, noski, ziklo honi izaera ematerakoan hezkuntza arloak lehentasuna izatea laguntzakoaren aldean. Baina arazo hori bigarren mailakoa iruditzen zaie eskolak toki aski izateko beharrezkin alderaturik. Eta hezkuntza ereduari dagokionez -gaztelaniaz; ele bitan, gaztelania/euskara; beste batzuk-nahiago dute argi eta garbi euskarazkoa, ingelesaren gainetik hizkuntzaren bat hautatu behar badute, eta aipatzen dute oso positiboak direla haiek aurkeztutako esperientziak, bi urteko hurrek euskarazko hastapenak jasotzen dituztenean, eta horrek dakarren aurrerapena aurrerago D eredia hautatzen duten haurrentzat.

Etapan honetan, lehen hezkuntzako laguntzaren finantzazioa partekatua izan daiteke, haien iritzi, baina uste dute ordaintzeko moduko zenbatekoak izan behar direla, errenta mailarekin bat datozenak eta, edozein kasutan, beka eta laguntza sistema bat ezarri beharko litzatekeela pertsonen erosmen mailak ikastetxe hauetan sartzeara eragozten ez duela bermatzeko.

Ildo horretan, haien iritzi baremoek ezarri beharko lukete familia erabiltzaile bakoitzak hilerdordaindu beharreko zenbatekoa eta ez, orain ger-

tatzen den bezala, “familia batzuk baztertze, seme-alabak onartuak izatea lortzen duten beste familia batzuen mesederako”.

Haiek uste dute ikastetxeen kudeaketa publiko izan behar dela eta administrazioa bera arduratu behar dela horretaz zuzenean. Emakiden bidezko kudeaketa pribatuaren edo zeharkakoaren kasuetan, haiek uste dute interes ekonomikoei eta kostuak murrizteko ematen zaiela lehentasuna, eta horrek ondorio batzuk dakartzala langileen arloko politikari, lansariei, motibazio profesionalari eta abarri begira, eta horrek ere ikastetxeen funtzionamenduan eragiten duela.

2 urteko haurrak egun dauden ikastetxeetan eskolatzeko aukeraz hitz egitean, haien iritzia da horrek ez lukeela konponduko arazo orokorra, baina ez lukete baztertuko bide hori arazoa arintzen lagundu dezakeelakoan.

Azkenik, berriz aipatzen dituzte euren hiriko berezitasun zehatz batzuk, hala nola iaz 80 edo 85 ume berri erroldatu zirela, eta horrek eskaera handiaren eta administrazioaren eskaintza urriaren arazoa larriagotzen duela, areago kontuan harturik egun dagoen ikastetxean –udalaren menpekoa– 80 toki dituela eta horietatik 40 bat eskaintzen direla urtero.

Horren inguruan salatzen dute aurreikuspen falta dagoela administrazio eskudunen aldetik, hiritzaintza jarduketak gauzatzen direnean ez direlako behar bezala aurreikusten populazio gune berrietara bizitzera joanen diren pertsonen beharko dituzten zerbitzuak eta ekipamenduak.

Otik 3 urtera bitarteko haur hezkuntzan egiten den eskaintza etorkinek izan dezaketen eraginari dagokionez, berriz, ez zaie iruditzen eskaera handirik dagoenik populazio horretan, eta askotan etorkinak izaten direla, hain zuzen ere, haurtzaindegietan edo haur eskoletan onartu ez dituzten haurrak zaintzeaz arduratzen direnak, batez ere, neska gazteak, diru gutxiren truke aritzen direlako horretan, eta horrek beste arazo bat ekartzen du, alegia aldaketa asko izaten direla zaintzaileen artean, lansari hobea duen lanposturen bat topatuz gero berehala uzten dutelako haurren ardura.

#### KALITATEZKO HAUR ESKOLAREN ESKAERA SOZIALA

Urteak dira zenbait giza talde<sup>(16)</sup> hasi zirela eskatzen Otik 3 urtera bitarteko etapako haur hezkuntzari buruzko arau garapena egin zedin kalitatearen aldeko apustu irmoa oinarri harturik, kontu-

(16) Nafarroako Ikasleen Guraso Elkarteetako Federazioa “Herrikoa”.

an harturik haurren eskubideak eta lehentasuna emanik proiektuaren hezkuntza ezaugarriei, bereizkeriarik gabe eta haurtzaindegiek eskaintzen zuten laguntzazko izaera edo izaera tradizionala gaindituz.

Eskaera sozial horren alderdi ekonomikoez –diru kopuruak udalen ahalmen ekonomikoaren arabera-koak, familientzako laguntzak...– edo euskaraz nahiz gaztelaniaz dagoen toki kopuru eskasaz harago, eskaera nagusia foru gobernua arautu beharreko ereduaren hezkuntza alderdien ingurukoa da. Zentzu horretan, planteatzen diren alderdi oinarrizkoenak bat datoz hein handi batean Iruñeko Udalen haur eskolen eredu pedagogikoaren ardatzekin:

- Ikastetxeak hezkuntzarako ez beste ezertarako erabiltzeko lokaletan egotea ikastetxea, kanpotik sarbide independentea duela.

- Unitate bakoitzeko sala bat izatea, ikaspostu bakoitzeko bi metro koadroko azaleraduna eta, gutxienez ere, 30 metro koadrokoa. Haurrek atsedeen hartzeko eta garbiketa, bainua eta bazkaria egiteko eremu berezituak izan behar dituzte salek.

- Sukalde bat, eskolan kontsumitzen diren jakiak prestatzeko.

- Erabilera anitzeko gela bat, 30 metro koadrokoa.

- Jolastokia, ikastetxekoa, gutxienez 100 metro izan behar duena.

- Patioko materiala gordetzeko areto bat.

- Bainu osoa langileentzat.

- Bulegoa eta bilera gela.

- Aulkitxoak eta haur-kotxeak gordetzeko gela.

- Europako Kontseiluko umeentzako arreta sareak haurrentzako zerbitzuen kalitateari buruzko helburuen bidez emandako gomendioekin bat datozen ratioak:

- Heldu bat lau haurrendako, 12 hilabete baino txikiagoak badira.

- Heldu bat sei haurrendako, 12 eta 23 hilabete bitartekoak badira.

- Heldu bat zortzi haurrendako, 24 eta 35 hilabete bitartekoak badira.

- Sukaldari bat.

- Garbiketa eta sukaldeko laguntzaile bat 25 haurrendako.

- Hezitzaileen titulazioak hezkuntzaren arlokoak soilik.

- Beste profesional batzuk izatea, titulu egokiak dituztenak, hezkuntzaren ikuspegitik zenbait espezialitatetan aritzeko: arte ederrak, musika, psikomotrizitatea etab.

- Ikastetxeko lan-astearren hamarrena emanen da, gutxienez ere, haurrik gabeko lanetan, prestakuntzan nahiz familiekiko harremanetan hain zuzen ere.

- Ratioak mantentzea, ordezkien egiteko sistema alde aurretik ezarri eta antolatuz.

- Gurasoek ikastetxearen kudeaketan parte hartzeko organoak ezartzea.

- Ikastetxe guztien eskaintza osoa 0tik 3 urtera bitarte.

#### C. 0tik 3 URTERA BITARTEKO HAURREN HEZKUNTZARAKO BALIABIDEAK ETA HAIEN EZAUGARRIAK (Foru Gobernuak emandako informazioa).

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eginiko galderei erantzunez, foru gobernua gure erkidegoan, egun, 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntzaren beharretarako dauden baliabideen berri eman zuen. Informazio hori ekarri dugu hona<sup>(17)</sup>, gaurkotuena delako, baliabide horien inguruko mapa ahal denik zehatzena izateko.

- *Gizarte Ongizatearen Departamentuak 2003-2004 ikasturtean finantzatu dituen Nafarroako Gobernuaren haur eskolen sareko ikastetxeen kopurua eta izenak.*

- *Non dauden.*

Nafarroako Gobernuak 8 ikastetxe ditu; horietako 5, Iruñan, eta beste 3 Burlatan, Lizarran eta Corellan.

Haur eskola	Helbidea	Herria
Ninia-Etxea	González Tablas, z/g (Zabalgunea)	Iruña
Ntra. Sra. de los Angeles	Descalzos, 2 (Alde Zaharra)	Iruña
Ntra. Sra. de Roncesvalles	Urdanotz etxe-multzoa, z.g. (Etxabakoitz)	Iruña
San Jorge	Reparaz doktorea, z/g (Sanduzelai)	Iruña
Santa Teresa	Laguntzako Andre María z/g (Txantrea)	Iruña
Egunsenti	San Frantzisko, z/g	Burlata
Niño Jesús	Avda. del Villar, z/g	Corella
Izarra	Cordeleros z/g	Lizarra

(19) Nafarroako Aldizkari Ofiziala.

- *Ikastetxe horietako bakoitzean 2003-2004 ikasturtean eskolatutako Otik 3 urtera bitarteko haurren kopuru osoa, mailaz maila.*

2003-2004 ikasturtean 576 haur eskolatu dira osotara. Ondoko taulan ageri dira mailaz mailako eta ikastetxez ikastetxeko datuak:

Sektoreak	Niño Jesús	Izarra	Egunsenti	Santa Teresa	San Jorge	Los Ángeles	Ronces-valles	Ninia Etxea	Guztira
2tik 3 urtera	60	30	54	37	47	28	26	49	331
1etik 2 urtera	25	23	16	15	18	16	11	33	157
Otik urte 1era	14	12	14	7	14	14	13		88
Guztira	99	65	84	59	79	58	50	82	576

- *Lan Ministerioak Nafarroako Gobernuaren bidez eskualdatu eta egun udalen menpe dauden haur eskolen izena eta kopurua, 2003-2004 ikasturtean funtzionamenduan daudenak.*

Lan Ministerioak langileentzako hiru haurtzaindegi eskualdatu zituen 922/1986 Errege Dekretuari jarraikiz. Horietako bi "La Milagrosa" eta "San José Obrero" izan ziren. "La Milagrosa" berehala eskualdatu zitzaion Iruñeko Udalarri, eta artzapez-

pikuak kudeatzen zuen "San José Obrero," berriz, eraldatu eta handitu egin da, eta 2002-2003 ikasturtean aurrera udalak diruz laguntzen du.

- *Kokapena.*

"La Milagrosa" haur eskola Iruñan dago, eta "San José Obrero" Orkoienen.

- *Ikastetxe horietako bakoitzean 2003-2004 ikasturtean eskolatutako Otik 3 urtera bitarteko haurren kopuru osoa, mailaz maila.*

Ikastetxea	Udala	Otik urtera bitarteko haurrak	1etik 2 urtera bitarteko haurrak	2tik 3 urtera bitarteko haurrak
Ostadar	Orkoien	6	29	37
La Milagrosa	Iruña	28	0	0

- *Iruñeko Udalak diruz laguntzen dituen Iruñeko Udalaren haur eskolen sareko ikastetxeen izena eta kopurua*

- *Non dauden.*

Haur eskola horiek, egun eskolaurreko hezkuntzako ikastetxe deitzen direnak, Iruñeko Udalarenak dira, eta erakunde autonomo batek kudeatzen ditu. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuarekiko hitzarmen bat dela medio, diru-laguntza jasozten dute, erakunde horretako zuzendari kudeatzaileak emandako 3086/2001 Ebazpenari jarraikiz.

Iruñeko Udalak 9 haur eskola ditu:

Haur eskola	Helbidea
Mendebalde	Premin de Iruña pasealekua, 1 (Mendebalde)
Donibane	Ekoiengo monasterioa, 1 (Donibane)
Arrosadia	Irati ibaia, (Arrosadia)
Printzearen Harresia	Blas de la Serna, 61 bis (Arrosadia)
Arrotxapea	Arrotxapeko Juanito z/g (Arrotxapea)
Haurtzaro	Artika, 1 bis (Arrotxapea)
Mendillorri	Egulbatiko jaurerria, 26 (Mendillorri)
Egunsenti	Miravalles, z/g (Orvina)
Izartegi	Marcos Goñi, z/g (Txantrea)



- *Ikastetxe horietako bakoitzean 2003-2004 ikasturtean eskolatutako Otik 3 urtera bitarteko haurren kopuru osoa, mailaz maila.*

2003-2004 ikasturtean 686 haur eskolatu dira osotara. Ondoko taulan ageri dira mailaz mailako eta ikastetxez ikastetxeko datuak:

	Sektoreak			Guztira
	2-3 urte	1-2 urte	0-1 urte	
Donibane	56	32	14	102
Mendebaldea	44	24	14	82
Printzearen	56	30	0	86
Arrosadia	0	0	28	28
Hautzaro	44	24	14	82
Arrotxapea	44	24	14	82
Izartegi	28	16	0	44
Egunsenti	44	24	14	82
Mendillorri	52	32	14	98
<b>Guztira</b>	<b>368</b>	<b>206</b>	<b>112</b>	<b>686</b>

- *Haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetan, administrazioak edo gurasoen elkar-teak kontrataturiko irakasleak dituzten hiru urtetik beherako haurrentzako unitateen kopurua.*

Gure foru erkidegoko haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetan ez dago administrazio-

ak kontrataturiko irakasleak dituzten hiru urtetik beherako haurrentzako unitaterik.

Tafallako Marques de la Real Defensa ikastetxe publikoan 2 urteko 25 haur dituen talde bat dago, gurasoen elkar-teak kudeatuta.

- *Gizarte Ongizateak diruz lagundutako haurtzaindegi pribatuen –langileentzako haurtzaindegiak– kopurua.*

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak langileentzako haurtzaindegi bakarra laguntzen du diruz, "Nuestra Señora de los Dolores" izenekoa.

- *Non dagoen.*

Mendabia

- *Ikastetxe horietako bakoitzean 2003-2004 ikasturtean eskolatutako Otik 3 urtera bitarteko haurren kopuru osoa.*

Bi urteko haurren bi talde dituzte: 32 haur, guztira.

- *3 urtetik beheitiko haurrak baimenik gabe eskolatzen dituzten ikastetxeen kopurua eta matrikula.*

Hona 3 urtetik beheitiko haurrak baimenik gabe eskolatzen dituzten ikastetxe itundu nahiz publiko- en kokapena eta izena (horietako bakoitzean dagoen Otik 3 urtera bitarteko haurren kopurua ere adierazten da):

Ikastetxea	Herria	Otik 3 urtera bitarteko haur eskolatuak	
		- 2 urtekoak	2 urtekoak
Irabia	Burlata	18	40
Tantirumairu ikastola	Lesaka		11
Ntra. Sra. de los Dolores	Mendabia		33
Iruña	Ursulinas		58
Zangozako ikastola	Zangoza		15
Marqués de la Real Defensa HEIP	Tafalla		25

- *Egun hiru urtetik beherako haurrez arduratzen diren ikastetxeek 2003-2004 ikasturtean izan duten matrikula.*
- *Galderaren testuan aipatzen diren ikastetxez besterik ba al dago Nafarroan hiru urtetik beherako haurrez hezkuntza edo laguntza aldetik arduratzen denik?*

Ez dago diruz lagundutako beste ikastetxerik. Haurtzaindegi pribatuak daude, baina horiek ez dute inolako erregistrorik eta ez dute behar inolako baimenik, eskolaurreko hezkuntza arautzeke dagoelako.

Argitu beharra dago Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak hitzarmen bidez laguntzen

duela diruz Iruñeko Udalaren haur eskolen sarea, eta horrenbestez, 3086/2001 Ebazpenean ezarritakoari jarraituz zaiola. 2003/2004 ikasturterako prezioak, berriz, 488/2003 Ebazpenean ezarritakoak dira. Bi ebazpen horiek Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren zuzendari kudeatzaileak emanak dira, eta eskolaurreko hezkuntza deritzoneko ikastetxe guztietan dute eragina. Horieta-

ko gehienak 2000tik aitzina sortu zituzten toki entitateek, eta hitzarmen bidez laguntzen dira diruz.

- *Adierazi horien kopurua eta non dauden.*

Nafarroako gizarte laguntzaileen eta gizartelaneko diplomatuen elkargo ofizialak 2001ean eta Iruñeko Udalak eginiko txostenei esker dakigu 68 haurtzaindegi daudela ondoko herrietan:

Andosilla	Berriozar	Los Arcos	Iruña eta Iruñerria	Tutera
Agoitz	Caparroso	Martzilla	Azkoi	Eguesibar
Arguedas	Lizarra	Murchante	San Adrián	Viana
Auñamendi	Fustiñana	Noain	Sartaguda	Atarrabia
Barañain	Lakuntza	Erriberri	Tafalla	Zizur Nagusia

- *Ikastetxe horietako bakoitzean eskolatutako Otik 3 urtera bitarteko haurren kopuru osoa, mailaz maila*

Ez dugu informazio hori.

- *Hezkuntza-laguntza zentroek, udalen menpe daudenek eta Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzekin sortuak eta jarduteko hitzarmena*

*dutenek egiten duten kopurua eta izandako matrikula.*

Ondokoak dira, mailaz maila adierazita, Nafarroako Gobernuaren laguntzekin eraiki ziren, jardunerako hitzarmena duten eta udalen menpe dauden Otik 3 urtera bitarteko haurrentzako hezkuntza-laguntza zentroen matrikulari eta kopuruari buruzko 2003-2004 ikasturteko datuak.

Herria	Izena	Unitate kopurua	0-1 maila	1-2 maila	2-3 maila
Ablitas	Mi Cole EI	3	8	12	16
Altsasu	Altsasuko Udal Hartzaindegia	4	0	16	25
Antsoain	San Cristóbal EI	8	9	29	43
Azagra	Azagra EI	2	0	5	23
Barañain	Barañain EI	6	0	28	69
Bera	Mukixo EI	3	6	6	12
Berriozar	Iruñalde EI	9	16	34	58
Berriozar	Recalde EI	5	0	35	32
Betelu	Sorgintxo Haur Eskola	2	2	5	4
Buñuel	Buñuel EI	2	0	11	19
Cabanillas	Montesori EI	1	0	7	8
Cascante	Gorria EI	3	0	12	32
Castejón	Garabatos EI	2	0	12	28
Cintruénigo	Capuchilandia EI	8	7	39	53
Cortes	Cortes EI	2	1	11	15
Elizondo	Baztango Hartzaindegia	4	0	19	23
Funes	Funes EI	3	6	12	14
Uharte	Urrats EI	3	0	8	32
Larraga	Gatopato EI	3	0	10	20
Leitza	Leitza EI	2	0	13	16
Lodosa	Lodosa EI	2	0	7	17
Irunberri	Lumbier EI	2	2	4	5
Mutiloabeiti					
Mutiloabeiti	Kuluxka EI	6	8	24	32
Orkoién	Ostadar EI	6	6	29	37
Iruña	Donibane EI	10	14	32	56
Iruña	Egunsenti EI	8	14	24	44
Iruña	Hartzaro EI	8	14	24	44
Iruña	Izartegi EI	4	0	16	28
Iruña	Mendebaldea EI	8	14	24	44
Iruña	Mendillorri EI	10	14	32	52
Iruña	Milagrosa EI	4	28	0	0
Iruña	Printzesaren Harresia	8	0	30	56
Iruña	Arrotxapea EI	8	14	24	44
Azkoién	Peralta EI	6	8	22	46
Gares	Txori EI	4	0	20	30
San Adrián	Santas Reliquias EI	5	20	13	32
Zangoza	Sangüesa EI	6	6	30	25
Tutera	María Reina EI	5	1	16	30
Tutera	Santa Ana EI	10	4	33	66
Ultzama	Xinbili Xanbala EI	3	2	14	13
Valtierra	Valtierra EI	2	0	7	12
Viana	Jaime Garcia Orio EI	3	5	15	12
Villafranca	Pasitos EI	3	8	12	16
Atarrabia	Amalur EI	12	29	42	53
Zizur Nagusia	Zizur Nagusia	6	16	24	32
2003ko urrrián irekita daude, guztira		215	281	841	1367

## ESKOLAURREKO IKASTETXE PUBLIKOAK: 2002/2003 IKASTURTEA

Herria	Ikastetxearen izena	Hizkuntz eredua
Ablitas	Mi Cole EI	Gaztelania
Altsasu	Altsasuko Udal Haurtzaindegia	Euskara
Antsoain	San Cristóbal EI	Mistoa
Azagra	Azagra EI	Gaztelania
Barañain	Barañain EI	Mistoa
Berriozar	Berriozar IP	Mistoa
Betelu	Sorgintxo Haur Eskola	Euskara
Buñuel	Buñuel EI	Gaztelania
Cabanillas	Montesori EI	Gaztelania
Cascante	Gorria EI	Gaztelania
Castejón	Garabatos EI	Gaztelania
Cintruénigo	Capuchilandia EI	Gaztelania
Cortes	Cortes EI	Gaztelania
Elizondo	Baztango Haurtzaindegia	Euskara
Funes	Funes EI	Gaztelania
Uharte	Urrats EI	Euskara
Larraga	Gatopato EI	Gaztelania
Lodosa	Lodosa EI	Gaztelania
Irunberri	Lumbier EI	Mistoa
Orkoién	Ostadar EI	Mistoa
Iruña	Egunsenti EI	Euskara
Iruña	Mendillorri EI	Gaztelania
Iruña	Haurtzaro EI	Gaztelania
Iruña	Arrotxapea EI	Gaztelania
Iruña	Printzesaren Harresia EI	Gaztelania
Iruña	Milagrosa EI	Gaztelania
Iruña	Donibane EI	Gaztelania
Iruña	Mendebaldea EI	Gaztelania
Iruña	Izartegi EI	Euskara
Azkoien	Peralta EI	Gaztelania
Gares	Txori EI	Gaztelania
San Adrián	Santas Reliquias EI	Gaztelania
Tutera	Santa Ana EI	Gaztelania
Tutera	María Reina EI	Gaztelania
Ultzama	Ultzama EI	Euskara
Valtierra	Valtierra EI	Gaztelania
Arangurengo ibarra	Kuluxka EI	Mistoa
Viana	Jaime Garcia Orio EI	Gaztelania
Villafranca	Pasitos EI	Gaztelania
Atarrabia	Amalur EI	Mistoa
Zizur Nagusia	Zizur Nagusia EI	Mistoa

Grisez margoturik 2002/2003 ikasturtean jardunean hasi diren ikastetxeak

**JARDUNEAN DAUDEN IKASTETXEAK, DIRUZ LAGUNDUAK  
HITZARMENA EGITEKO DUTENAK**

Mendabia	Nuestra Sra. de los Dolores	Gaztelania
----------	-----------------------------	------------

**NAFARROAKO GIZARTE ONGIZATEAREN  
INSTITUTUAREN MENPEKO IKASTETXEAK**

Iruña	Ninia-Etxea	Gaztelania
Iruña	LOS ANGELES	Gaztelania
Iruña	Orreaga	Gaztelania
Iruña	San Jorge	Gaztelania
Iruña	Santa Teresa	Gaztelania
Burlata	Egungenti	Gaztelania
Corella	Niño Jesús	Gaztelania
Lizarra	Izarra	Gaztelania

2003. URTEAREN AMAIERAN IREKITZEA AURREIKUSIRIK DUTENAK			
Herria	Hasiera aurreikusia	Unitate kop.	lkasle kop.
Bera	Urria	3	25
Zarrakaztelu	Azaroa	3	39
Zangoza	Azaroa	6	58
2004ko IRAILEAN IREKITZEA AURREIKUSIA			
Herria	Hasiera aurreikusia	Unitate kop.	lkasle kop.
Agoitz	Urtarrila	4	52
Barañain berria	Abuztua	9	106
Oltzako Udala	Iraila	2	24
Eguesibar	Iraila	6	72
Lizarra	Iraila	6	72
Ezkaroze	Urtarrila	2	28
Fontellas	Urtarrila	2	28
Uharte (berria)	Iraila	8	94
Murchante	Iraila	5	58
Iruña Arr.	Abuztua	8	94
Ribaforada	Iraila	5	58
Tafalla	Urria	10	114
Tutera (Maria	Iraila	8	94
Erroibar	Hasteko egunik gabe	3	36
Sartaguda	Urtarrila	1	14
IREKITZEA AURREIKUSI GABE			
Tutera (Sant)	2005eko Iraila		8
Andosilla	Sortzeko eskaera		4
Arguedas	Proiektua amaiturik.		2
Artaxoa	Proiektua prestaketan		3
Baztan (berria)	Aurreproiektua		4
Burlata (ikastetxe berria)			
Cabanillas (A)	Proiektua prestaketan		1
Castejón (Un)	Aurreproiektuaren erredakzioa		
Galarko Zendea	Sortzeko eskaera		9
Fustiñana	Sortzeko eskaera		3
Lakuntza	Proiektua amaiturik.		3
Larraga (berria)	Proiektua amaiturik.		3
Leitza (zaharberritzea)			
Lekunberri	Proiektua prestaketan		3
Martzilla	Informazio eskea		3
Milagro	Informazio eskea		2
Monteagudo	Proiektua prestaketan		2
Murchante	Proiektua amaiturik.		4
Erriberri	Proiektua amaiturik.		5
Gares	Proiektua amaiturik.		6
San Adrián	Proiektua amaiturik.		6
Sesma	Informazio eskea		2

### **6. Otik 3 URTERA BITARTEKO ZIKLOAK HEZKUNTZA IZAERA EDUKITZEAREN KOMENIGARRITASUNA**

Otik 3 urtera bitarteko zikloak hezkuntza arlokoa izatearen komenigarritasuna bi ikuspuntutatik ikus daiteke: haurren gaineko kontzepzioa edo hartzeko modua eta haurren bilakaera psikopedagogikoa, bata, eta juridiko hutsa bestea. Bi alderdien arteko lotura erabat ezabatzerik ez dago, eta batera edo elkarren osagarritzat hartuta aztertuko ditugu hemen. Otik 3 urtera bitarteko zikloaren tratamendua edo izaera hezkuntzaren arlokoa izateari heltzeko abiapuntua edo nahitaezko aurre baldintza da Konstituzioaren 27. artikuluan aitortzen dela hezkuntzarako eskubidea pertsonen eskubide oinarrikoa dela.

Kode Zibilaren 29. artikulua aitortzen du "Jaiotzeak ezartzen duela nortasun zibila..." hau da, jaiotzea hurrengo artikuluan (30. art.) adierazten diren baldintzetan egiten bada, jaiotzeko unea da, gure antolamenduaren arabera, pertsonak nortasun juridikoa bereganatzeko unea, alegia, antolamenduak aitortzen dituen eskubideen eta subjektuari ezartzen zaizkion betebeharren nahiz balioski hartutakoentz titularrak izateko gaitasuna orduantxe eskuratzen du.

Hezkuntza ulertzen badugu aurrez ezarritako ezagutza edo eduki batzuk emateko zeregina izateaz gain, Konstituzioaren arau horrek ematen dion zentzu osoagoa duela: "hezkuntzaren helburua da nortasuna erabat garatzea..." ez dago arrazoirik hezkuntzarako eskubideari adin muga bat ezarri, eta horren arabera esateko hortik aurrera eskubidea dagoela eta horren aurretik eskubidearen aitortza lausoagoa dela. Hezkuntzarako eskubidea bermaturik dago gure antolamenduan, Konstituzioaren bidez, jaiotzetik hasita. Pertsona orok du, beraz, jaiotzen denetik, prestakuntzarako eta nortasuna libreki garatzeko, pertsona bezala betetasuna izateko xedearekin; beste afera bat da irakaskuntza legez zehaztutako une jakin batetik aurrera derrigorrezkoa eta doakoa izateko ezartzeko aukera.

Egun baieztapen zientifikotzat hartzen da bizitzaren hastapeneko urteak erabakigarriak direla nortasunaren garapenari begira. Adin horretan, haurra bere gorputza deskubritzen eta hartaz jabetzen hasten da, autonomia pertsonala bereganatzeko bide emanen dioten eguneroko ohiturak hartzen ditu, pentsaera abstraktuaren oinarri diren zentzumen, mugimendu eta pertzepzio ahalmenak eskuratzen ditu, beste haurrekin eta helduekin hasten da komunikatzen eta harreman sozialak izaten, hizkuntzaren kode desberdinetan sartzen da, ahozko hizkeraz baliatzen eta menperatzen

hasten da eta kanpoko mundua behatu, esperimentatu eta aurkitzeko lehendabiziko esperientziak bizi ditu, guztia dimentsio emozional eta afektibo handi baten barruan. Finean, haurra, bizitzaren hasierako urte horietan, bere pentsaera eta izaera taxutuko duten eskuratze eta banatzeak egiten joaten da.

Bizitzaren hasierako urte horietan, gure ustez, arreta berezia merezi dute, akats fisiko, psikiko edo zentzumenezkoren bat duten haurrek, gabezia horien kasuan garaiz antzemateak eta diagnostikatzean duen garrantziagatik. Kasu horietan erabakigarriak izan daitezke hezkuntza konpentsaziorako hartzen diren neurriak, haur hauen garapenak eta prestakuntzak behar dituzten laguntza gehigarriak emateko.

Planteamendu honetan ezin da ahaztu halaber Konstituzioaren testuak ezartzen duen aukera berdintasunaren printzipioa, Espainiako Konstituzioaren 9.2 artikuluan araututakoak botere publikoei zuzendutako agindu berariazko bihurtzen baitu. Hartara, eskola bilaka daiteke, hasierako urteetatik, gizartea eraldatzeko trena eraginkorra.

Testuinguru horretan, egungo ideien arabera, gaindituztat eman behar da haurrek erantzuna eman beharreko premiak dituztela dioen pentsamoldea, eta haurrek errespetatu eta bermatu beharreko eskubideak dituztela pentsatzera jo behar da.

Hasiera batean haurrentzako hasierako urteetako laguntzari eman zitzaion izaera, laguntzazkoa hain zuzen, une historiko zehatz baten emaitza da, garai horretan gizartean eta familian premia berriak sortzen ari zirelako eta haurrei buruz hedaturik zegoen ideia zelako laguntza premia zuen izakia-rena. Haurrei buruz gizartean zegoen irudi horri, haurrei oraindik ez zirenen itxura ematen zien horri, alegia oraindik helduak ez direnak, oraindik gai ez direnak, oraindik autonomoak ez direnak, oraindik gauza ez direnak, helduen eskubideak oraindik ez dituztenak, bereizteko gaitasuna oraindik ez dutenak... kontrajartzen zaio oraingoari, haurra gaitasunez eta aukerez betea ikusten duen ideiarri, bere pentsaera eraikitzen izugarri aktibo eta bere hezkuntzaren egiako protagonista. Haurrak, orain, laguntza edo zaintza, bai eta hezkuntza ere, jasotzeaz gain, hezkuntzarako eskubidearen subjektua da.

Adingabearien interesa legezko beste interes ooren gainetik nagusi dela dioen printzipioa ahaztu izan da beti, antza denez, haurraren zerotik hiru urtera bitarteko adinean.

Adin tarte horretan beharra zaintzarena baizik ez dela justifikatzeko familia eta lana uztartzeko

arrazoiak aipatzen dira maiz, arrazoi bidezkoak baina haurrak hiru urte bete ondoren ere hor daudenak. Arrazoiaren artean aipatzen da halaber hezkuntza tarte hori derrigorrezkoa ez dela, baina horrek esan nahi duena da gurasoak ez daudela derrigorturik, ez ordea botere publikoak, baina hala azaldu nahi izaten da batzuetan tokien eskaintza behar adinakoa ez izatea...

Idea nahasketa horren aurrean bidezkoa dirudi gogoratzea, hasiera esan dugun bezala, 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloaren inguruan planteaturiko eztabaidaren gakoa adingabeak hezkuntzarako duen eskubidearen esparruan dagoela eta ez botere publikoek familia eta lana uztartzeko hartu ahal dituzten neurrienean.

Gai hau ez da nolana hika, ez eta eztabaida teoriko edo doktrinaren ingurukoa ere, ondorio juridikoak kontuan harturik, Konstituzioak aitortu eta bermatu egiten baitu hezkuntzarako eskubidea I. tituluko II. kapituluko 1. atalean jasotako eskubidearen artean, hau da, botere publikoei eskatu ahal zaizkion eskubideak, Konstituzioaren 53. artikulua ezartzen duen babesik handiena edo sendotuenaren dutenak. Familia eta lana uztartzeko neurriak 39. artikulua esparruak hartzen ditu, I. tituluko III. kapituluko politika sozial eta ekonomikoaren gida-oinarrien artean baitaude; ez bairik gabe arau izaera, ez pragmatiko hutsa, badute ere, Konstituzio Auzitegiak behin eta berriz adierazi duenez, haien eraginkortasun zuzena 53.3 artikuluan dago ezarria, ezartzen baitu: "aitortutako printzipioak onartu, errespetatu eta babestu egin behar dira, eta legeria positiboak, eginera judizialek eta botere publikoen jardunak horietatik izango dituzte kontuan."

Horrenbestez, ukatu gabe gurasoen ahalmena (eskubidea-betebeharra) euren seme-alaben hezkuntzan, hiru urtetik behar haurren hezkuntzarako eskubidea gure antolamenduan aipatutako moduan adierazitako eskubidea da. Hezkuntza etapa honen borondatezko izaera, beraz, gurasoentzat aukera eta botere publikoentzat betebeharra edo eginbeharra dela ulertu behar da.

## 7. ONDORIOAK

### ONDORIO OROKORRAK

- LOGSEk zioen bezala, hura sortu zuen partaidetzazko agiria jasoz (Hezkuntzaren Liburu zuria), hezkuntzan gizartean bizitzea ahalbidetzen duten balioen transmisioa eta erabilera gauzatzen dela, bereziki oinarrizko eskubide eta askatasun guztien errespetua, eta bizikidetasun demokratikoaren eta elkarrenganako begirunearen ohiturak bereganatzen direla. Gizartean heldutasuna, neu-

ria handi batean, banakako arloa eta erkidegoarena hezkuntzan oinarriturik eta haren parte-hartzearekin, bateratzeko gaitasunaren eskutik. Gizartearen aurrerapenaren aldeko aldakuntza orok, txikiak nahiz handiak, ondoan izan du beti, aurretik ez bada izan, hezkuntzaren bizkortzea eta bultzada, aldakuntzarako dituen aukerei emaniko itxaropenak eraginda.

- Hezkuntzarako eskubidearen esparruan haurren eskubidearen printzipioa sartzeari –LOGSEren bitartez lortu zuen hala izatea aurrenekoz– jauzi garrantzizkoa izan zen haurren eskubideen alde, lehen haurtzaroko hezkuntza eskubideak Espainiako hezkuntza sistema orokorrean txertatzen baititu, besteen maila berean.

- Ziklo horretan eskolatzearen derrigorrezkotasuna adierazirik nahiz adierazi gabe, lege horrek oinarriak ezarri zituen zehazteko zein den administrazio publikoen erantzukizuna familiek adin tarte horretan egiten duten toki eskaerari erantzuna emateko eta familia eta lana uztartzeko aukerak emateko adingabeak hezkuntza hobea jasotzeko duen eskubidearen kaltetan izan gabe.

- Hezkuntzaren Kalitatearen Legeak LOGSEren filosofiaren alderdi nabarmenak aldatu ditu lehen haurtzaroko hezkuntzarako eskubideaz arduratzeari dagokionez. LOGSEk hezkuntzarako eskubidearekiko ezartzen duen begirunea, adin guztietarako hedatu daitekeen eskubide orokor gisa, alde batera utzi gabe, ñabardura sakonak sartzen ditu, berreskuratzen duelako hezkuntza tarte honi demokraziaren aurreko legeak ezarri zioten laguntzazko izaera, pedagogia sendotuenak baztertuta.

- LODE izenekoak, hein batean, indarra badu ere, 0tik 3 urtera bitarteko haur hezkuntzarako ikastetxeek bete beharreko oinarrizko printzipioei dagokienez, LOCEk ezarritakoak, horrekin batera, laguntzaren kontzeptua eta kalitatearen gutxieneko baldintzen inguruko zehazgabetasun handiagoa eranstean ditu.

- Era berean, derrigorrezkoa ez den haur hezkuntza gurasoek biek lan egiten duten familientzako laguntza soiltzat ez hartzea, baizik eta guraso horiek euren seme-alabak hezten bete behar duten lanaren osagarritzat, erantzukizun partekatuen printzipioa ezarri zuen, bai eta gurasoen partaidetza demokratikoarena ere euren seme-alaben hezkuntzan, adin horretan ere, eta haur horiek hartzen dituzten ikastetxeetan halaber.

### ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ESKUMENAK

- Hezkuntzaren kalitateari buruzko legeak LOGSEren espirituari, haur hezkuntzaren ezauga-



rrien inguruan eginiko aldaketak gorabehera, artikuluek gogorarazten dute “eskolaurreko hezkuntza gurasoentzat borondatezkoa bada ere”, administrazio eskudunek “erantzuna emanen dietela familietan dauden beharrei eta eskaera asetzeko behar adina toki eskaintzen dela koordinatuko dutela”.

- Halatan, LOCEk jasotzen du gurasoen kezka nagusietako bat: toki aski izatea; erakundearen ordezkariak Iruñerriko gurasoekin eginiko bileran egiaztatu ahal izan genuen hala dela. LOCEk bigarren mailan uzten duena da LOGSEren ikuspuntutik oinarritzko eta funtsezko abiapuntua dena: Otik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloak eustea hezkuntza zikloaren ezaugarriari: adin horretako haurren hezkuntza. Esan daiteke LOGSEren ikuspuntutik haur hezkuntza familiarren hezkuntzaren eta arretaren osagarria zela, lana eta familia uztartzeko beharrei aurre egiteko. Eta LOCEk ezartzen duen sistemak, berriz osagarria ordezkari bihurtzen du toki faltak eragindako presioagatik eta enpresen ekimenarentzat orain arte izan dena baino emankorragoa izanen den eremu baten aurreikuspena, ez aurreko araudiek mugatua, haurrei arreta emateko premia soziala agertu delako baizik.

- LOCEk autonomia erkidegoen esku uzten du haur hezkuntzan kalitatezko maila lortzeko aplikatu behar diren gutxienezko irizpideak zein diren zehazteko eskumena, eta horrek, oro har sistemaren arrazoizkotasunari begira, aurrerapena dakar, lurralde administrazio horiek gertuago daudelako gizartearen errealitateak eta autogobernu maila handiagoa dutelako. Halere, zehaztuzko erantzukizun maila handia ematen du, irizpide horiek haurren hezkuntza sistema itxuratuko dutelako eta, harekin batera, adingabeen hezkuntza etorkizuna. Gobernu autonomikoek arlo horretan hartzen dituzten erabakiek zaindu behar dituzte, beste guztiaren gainetik, haurrek hezkuntzarako duten eskubidearen interesak, hemendik hasita eta gero batean izanen duten garapen psikologikoari eta hezkuntzazkoari begira, sistemaren azken ezaugarrien barrenean, zeinean alderdi ekonomikoak eta kudeaketarenak itxuraz garrantzi handienekoak izan daitezkeen autonomia handiagoko esparru horretan.

- LODERen 14. artikulua ezartzen dituen gutxienezko baldintza horiek ikastetxe pribatuei ere eskatu beharrekoak dira, eta LODERen 23. artikuluan ezartzen du “araubide orokorreko nahiz bereziko irakaskuntzan aritzen diren ikastetxe pribatuek ireki eta jardunean egoteko baimen administratiboa beharko dutela. Baimena lege honen 14. artikuluan xedatutakoarekin bat ezartzen diren gutxienezko baldintzak betetzen badira emanen da.” Garrantzitsua da gogoratzea LODERen

24. artikulua justifikatzen duela “haurrak babestearren” “haur hezkuntzan dauden haurrak hartzen ohi dituzten ikastetxeak 23. artikulua aipatzen duen baimen administratiboaren printzipioaren mendean” egotea. Eta komeni da gogora ekartzea hiru urte arteko tartea LOGSEk ezarritako haur hezkuntzako lehen zikloa dela, eta beraz haur hezkuntzari buruz esaten denak tarte hori barne hartzen duela ulertu behar da.

- Toki administrazioen jarduketa hurbilagoaren filosofiatik abiatuz, legeak aurreikusten du (LODERen 2. xedapen gehigarria) “hezkuntza administrazio eskudunekin elkarlanean arituko direla, legeria indardunak ezarritakoaren esparruan eta haiekin adosten duten moduan, ikastetxeak sortu, eraiki eta mantentzeko, bai eta derrigorrezko eskolatzea betetzen dela zaintzeko”, baina ezartzen du aldi berean eskolaurreko ikastetxeak sortzeko eskumena autonomia erkidegoko gobernuarena edo gobernu kontseilua dela, zein bere eskumenen barrenean. Azken arau horri esker sortu ahal izan zen, Foru Komunitatearen esparruan, UPNk eta PSNk hitzarturiko akordio parlamentarioa garatzeko lege esparru bat; akordioaren arabera, foru administrazioaren eta udalen arteko hitzarmenak gauzatu behar ziren Otik 3 urtera bitarteko haur hezkuntzako tokiak sortzeko Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak abuztuaren 2an emaniko 3086/2001 Ebazpenak arautzen zituen oinarrien arabera.

- Lege esparruak Otik 3 urtera bitarteko zikloan ezartzen duen erantzukizun banaketari onuragarria irizita, eta kontuan harturik ondorengo arau garapena, LOCEn ezarritako printzipioetan eragina izan dezakeena, ez dagoela amaiturik, garrantzizkoa da hausnartzea komeni dela aintzat hartzea, edozein dela azken esparru hori, egun gizarteak toki administrazioaren inplikazio mailaren gainean egiten duen presioak gainditzen duela bai Nafarroan bai beste erkidegoetan, toki administrazioaren erantzukizun esparrua, arau berrien ikuspuntutik nahiz foru gobernuak, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak eman eta dagoeneko derogaturik dagoen agindu horren bidez jardueraz egin duen antolamenduaren ikuspuntutik.

Errealitatea zuhurki aztertzen badugu baliabideei, eskaerei eta horiek erantzuteko eskumenei dagokienez, aterako dugun ondorioa da planteatu daitekeela, baita exijitu ere, lankidetzara maila handiagoa izan dadila administrazio publikoaren artean, bakoitzak bete beharreko eginkizunetan aritzeko, administrazio baten nahiz bestearen erantzukizunak endekatzeak ez baitu konponbiderik ekartzen

herritarren eskakizunetarako ez eta hobetzen ere haien eraginkortasuna eta balorazioa.

- Gure abiapuntua izan daiteke haurren eskolaztea sustatzeko politika eta ekimen aniztasuna ona dela. Alderdi negatiboa, aldiz, zerbitzuak hornitzeko garaian lurraldeen artean dauden desorekek egun hartu duten neurria litzateke. Desoreka horiek bideratzeko modu bat izanen litzateke toki-gobernuei (udalei), hau da, herritarrengandik gertuen dauden gobernu esparruei, zerbitzuen eskaerei erantzuteko ekintzarako aukera handiagoak ematea, aurrekontu bereziak bereganatuz edo kudeatuz.

### 0tik 3 URTERA BITARTEKO ZIKLOAREN HEZKUNTZA PRINTZIPIOA

- LOGSEren oinarrian dagoen “hezkuntza sistemaren erreformarako liburu zuriak” adierazten zuenez, “hezkuntza etapa honek irakasleen hezkuntza asmoa eskatzen du, esperientzien eta jardueren planifikazio zaindua, profesional espezializatatuak, lan baldintza jakin batzuk zenbait gaitan: osasun, espazio, irakasle/ikasle proportzioa...” Aurrerago zioenez, “antolamendu berriaren helburua da hezkuntza irizpideen arabera arautzea arreta gutxi jaso ohi duen eta maiz xede pedagogikoetara baino laguntza edo gizarte xedeetarako bideraturik egon den hezkuntza maila hau...” Maila hau hezkuntzazkotzat hartzeak aldaketak ekarri behar ditu ikastetxeen antolaketan eta horietan gauzatzen diren hezkuntza esperientzietan.

- LOGSEren I. tituluko I. kapituluak haur hezkuntza arautzen du (7. artikulutik 12. artikulura), eta ezarri “haur hezkuntza sei urte artekoa dela, eta haurren garapen fisikoa, intelektuala, afektiboa, soziala eta morala landuko duela. Haur hezkuntzako ikastetxeek harreman estua izanen dute gurasoekin edo tutoreekin elkarlanean aritzeko, gurasoek hezkuntza etapa horretan duten funtsezko erantzukizuna aintzat hartzeko.

- Etapa borondatezkoa dela ezartzen da, baina administrazioaren esku uzten da eskolaztea eskatzen duten guztientzako behar adina toki izan dadin bermatzeko ardura.

- Lege horrek berak ezartzen du haur hezkuntza kasuan kasuko espezializazioa duten irakasleek emanen dutela, eta lehen zikloan ikastetxeek izanen dituztela beste profesional batzuk ere, adin horretako haurrentzat egokia den hezkuntza laguntza emateko kualifikazioa dutenak.

- Gogoratu daiteke LOCEk berak ere adierazten duela haur hezkuntzaren ezaugarria dela “izatera bikoitza duela, hezkuntzako batetik eta lehen haurtzarokoei laguntza eta zaintza izatea, eta ber-

matzen dela behar adina toki eskainiko dela famili- en eskaerari eta haien beharrei erantzuteko.”

### HEZKUNTZA EREDUA ETA BILAKAERA SOZIALA

- Berdintasun eta elkartasun handiagoa, gizarte lankidetzaren handiagoa lortzeko begira, hezkuntza iturri ezinbestekoa da eta adingabeen lehen haurtzaroen hezkuntza sistemak sendotzea funtsezkoa. Haurren eskubide guztiak, salbuespenik gabe, betetzean oinarri izan behar duen kultura berri bat, eta horrek berarekin dakar objektibitatea eta ahalegintzea garrantzi bereko hainbat aldaketa erdiesten. Aurrebaldintza edo ondorio gisa, haur hezkuntza eta haurren bizitza garatzen den errealitate sozioekonomikoen aldaketa bat eginik daude.

- Ziur jakinda milurteko honetan hezkuntza sistema guztien kezka eta erronka 6 urtetik beherako adingabe guztiei hastapeneko arreta ematea dela, hezkuntzarako eskubideak hartzen duen esparrua horrela handitzeko abiapuntua izan beharko da elikadurara eta osasunera mugatzen ez den hezkuntza goiztiararen kontzeptu bat.

- Osasunari eta hezkuntzari dagozkien alderdi horien arteko bereizkuntza abiapuntutzat harturik, lehen haurtzaroko garapena eta hezkuntza eginkizuna ez dira laguntza eginkizunean oinarritzen, ikerketak eta, kulturaren ikuspegitik, gizartearen bilakaerak berak kontzeptualki gainditu dituen arau historikoek hala ezarri bazuten ere. Laguntza arloko izatearen kontzeptua “gutxienekoetan” oinarritzen da, zerbitzuen beharrari nola eskaintzari dagokionez; administrazioak, hau da, botere publikoek, sostengua ematen dute ekintza berezien bidez baldintza okerragoetan dauden herritarren oinarritzko premiak asetzeko.

- Haurren eskubidea aitortzen den unetik, kontzeptu hori ez da aplikatzeko modukoa, eta are gutxiago hezkuntzaren esparruan, bertan eskubide bikoiztasuna gertatzen baita: haurtzaroari dagozkionak eta hezkuntzarako eskubidea, orokorragoa. Biek, banaka nahiz batera, bizitzaren hasierako urteetan ere gizakiaz sortzen duten dimentsioan laguntza jarduketari lehentasunezko esku-hartzearen maila, ez osagarriarena, emateak ez du tokirik eta ez da zuzena.

- Beharbada gure gizarteak azken hamarkadetan ezagutu duen kultur eta gizarte bilakaera izan da etapa horretako beharretarako laguntza ikuspuntu “fisiko hutsetik” (zaintza) ikusteko modu hori gainditzeko bultzadarik onena, emakume gero eta gehiago lan munduan sartzearen ondorioz adingabeen arduratzeko guneak bilatu beharrak presio

handia egin eta egiten badu ere. Batez ere hezkuntza alderdia ezin delako bereizi, haurrari ematen zaion laguntza fisikoari berari ere atxikia dago adin horretan.

- Baina emakumearen eskubideak, lanerako, lan eta gizarte berdintasunerako, pertsonaren autonomiarako eta lana eta familia bateratzeko eskubideak, ezin dituzte erabili familiek, banaka, ez eta administrazioek ere, kolektiboki, defendatzen omen den adingabearen eskubideetan gizarte eta lege aldetik horrek dakarren atzerapena sendotzea arrazoitzeko.

- Familientzako laguntza lortzeko presioaren eta haur hezkuntzan hezkuntza alderdiak sendotu beharraren arteko kontraesanak ezin dira moldatu adingabearen edo haren eskubideen kaltetan, eskubide gisa indarra baitzuten araudi bat zein bestea ezarri aurretik ere. Bi araudiak ez datoz bat funtsezko alderditan, eta haur hezkuntzako etapan hezkuntzarako eskubidearen printzipioa adingabearen bizitzaren funtsezko elementua da, pertsona den aldetik, beraz administrazioen erantzukizuna da bi alderdientzako hezkuntza testuingururik onena "eraikitzea," eskubide horietan oinarriturik, eta ez unean uneko politikan.

- Haurtzaroaren etapa honetarako dagoen toki faltak –espero dezagun unekoa izatea– ezin du haur hezkuntzarako eskubidea mugatu gizartearen, ekonomiaren edo lan munduaren bilakaerak ekarri duen eskaera edo premia sozial hutsa izatera, alderdi horiek guztiak elkar loturik baitaude.

#### Otik 3 URTERA BITARTEKO HEZKUNTZAREN ETROKIZUNA

- Hezkuntza sektore honetan, orain arte behintzat, eskaintza pribatua munta txikiagokoa izateko arrazoia, berriz, pizgarri ekonomikoen falta izan da, bereziki biztanle gutxiko eremuetan; hau da, etekin handirik ez dela izaneren aurreikustea.

- Berriki egindako ikerketek diotenez, "ekonomikoki eskuragarriak diren zerbitzuak garatzeak, ordea, hainbat xede betetzen du: banakako eskubideak sustatu, gurasoek lan merkatuan parte hartzen lagundu, eta gainera familiakoek edo etxeko langileek egun orduka betetzen duten lan ez-formala merkatura eraman dezake; horrez gain, enplegua ugaltzeko ondorioak sor ditzake.

- Europan, zerbitzuen eskasiari aurre egiteko erabili diren joera berrienak bi ildotan banatu daitezke, orokorrean ikusita: seme-alaba txikiak dituzten familiei sostengua ematea laguntza ekonomikoen bidez (zerga arintzeak edo ordainketa erregularrak) batetik, eta haurrentzako zerbitzuen garapena zuzenean sustatzea, bestetik.

- Zerbitzu publikoak sustatzeko aukerak eragin banatzaile handiagoa izan dezake familietan, agin gabeko guztiek kalitatezko baldintza gutxieneko batzuekin bereganatzen dutelako eskolatzeko eskubidea. Dirulaguntzek, ekintza bide bakar gisa baliaturik, eragin desberdina izan dezakete familieren errentaren eta emakumeak lan merkatuan duen tokiaren arabera.

- Lehen haurtzaroko laguntzak hezkuntza izatera duela diote gurasoek ere, tokian egoteari lehen-tasuna ematen badiote ere, eta haien ustez garrantzia handikoak dira ezarri beharreko ratioak, zaintzaile-hezitzaile bakoitzeko haur kopuruak alegia, kontuan harturik zerbitzuaren kalitatean horrek duen eragina.

- Lehen haurtzaroko laguntzaren hezkuntza alderdiak zehazterakoan, administrazioak kontuan hartu beharko du gurasoen iritzia, euskara bere baitan hartzen duen sistema elebidunaren alde egite dutelako, beste hizkuntza batzuen gaintik, ingelesa, kasu, aurrerago D ereduan eginen duten hezkuntza ibilbiderako egokiagoa delakoan baitaude.

- Proposamen gisa, honakoak luzatuko genituzke:

- Ikastetxe publiko eta pribatuetan haur hezkuntzako tokien eskaintzarako eskola mapa bat prestatu beharko litzateke, Otik 3 urtera bitarteko multzoan, banakako adinen eta udalerrien arabera zehazturik. Udal mailako eskola mapa horren berri eman beharko litzazieke hezitzaileei, ukitutako administrazioei eta iker-tzaileei, oro har, eta zeregin horretan Foru Gobernuako Hezkuntza Departamentua aritu beharko litzateke buru, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioarekin elkarlanean, beharrezkoa bada, azken hori arduratzen baita hezkuntza arloko estatistikak zentralizatzeaz.

- Argi edukitzea zein den egiazko eta ezkutuko eskaera lehen haurtzarorako zerbitzuen arloan. Informazio hori eskuratzeko bide bat izan litzateke titularitate publikoko ikastetxeetan dauden itxaron zerrendak (izena eman eta tokirik izan ez duten haurrenak) nahitaez argitaratzea.

- Hobetu beharko litzateke zerbitzuen kudeaketa publikoaren gardentasuna, herritarrek eza-gutu dezaten zein den administrazio bakoitzak hartutako konpromisoa, haietako bakoitzak izanzen dituen ahalmenak eta zer ekarpen egiazko egiten ari diren. Gardentasun hori hobetu eginen litzateke konpromiso zehatzak ezarri gero tokiko gobernuek edo/eta foru gobernuek biztanle kopuruaren

arabera bere gain hartu beharko lituzketen gutxieneko inbertsio egonkorren inguruan.

### Otik 3 URTERA BITARTEKO HAUR HEZKUNTZAREN FINANTZAZIOA

- Finantzazioari dagokionez, zenbait adituk uste dute haur hezkuntzako sistemari egin beharreko inbertsioek Barne Produktu Gordinaren ehuneko bat egin beharko luketela gutxienez, baina zenbateko horretara Danimarkan eta beharbada Suedian baizik ez da ailegatzen. Bitartean, kostuen banaketa izan liteke heren bat familientzat eta bi heren sektore publikoarentzat, eta dirusarrera maila gutxieneko batetik behera dauden familiak ordaintzetik salbuetsirik egonen lirateke.

- Ikastetxe publikoetan sartzeko irizpidea familiaren errentan oinarritua izateak, ohikoa den bezala, alderdi negatibo asko ditu, dirusarrera bikoitzak dituzten familien kontrako bereizkeria dakar, ez du

sustatzen emakumeen enplegua, dirusarrera txiki-ko giza taldeak biltzea eragin dezake eta ez da lagungarria familia eta lana uztartzeko.

- Ikastetxe publikoetara sartzeko irizpideak errealitate sozialera egokitu beharko lirateke eta familiaren errentaren muga altuago jarri lan ordainduak dituzten amei ere aukerak emateko. Sartzeko irizpideak zabaltzearen ondorioz eskaera handiago izanzen litzateke eta beharrezkoa, beraz, eskaintza ere handitzeko konpromiso egiazkoa onartzea.

- Azkenik, garrantzitsua da familia eta lana uztartzeko laguntzak eta bestelako onurak jasotzeko ezarriak dauden baldintzak hobetzea, eta neurriak ezartzea, lan hitzarmenen bidez edo beharrezkoak diren arauen bidez, familiek lana eta familia bateratzeko ezarri diren onuretako batzuk, bereziki, jaso ahal izateko lan esparruan aurkitzen ohi dituzten trabak desagerrarazteko.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete .....	41,00 euro
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko .....	1,05 »
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko .....	1,23 »